Eual
5.000

# LUISTAŔEN ELIZ LIBURUA




LUISTAR
EUSKALDUNA


ARITZA BEZIN SENDO
LILIA BEZIN GARBI
IZANGO AL-ZERA



A 2896
M. 8838
R. 34772
DTU
18907

AGIŔE'TAR JOṚKE J. Ḷ.

# LUISTAŔEN ẸLIZ LIḄURUA

SAN SEBASTIAN

1934

ḶEIZAOLA'REN IRARKOLA
Aṿenida, 32-DONOSṬIẠ

Nihil obstat

*Lucianus de Aguirreolea S. J.*

Imprimi potest

*Rufus Mendizabal S. J.*

Praep. Prov. Castellanae

Imprimatur

Victoriae, die 3 Octobris 1933

† *Mathaeus Episcopus*

Victoriensis



# Gure mutil irakurleari

**Lagun on bat eskeintzera natorkizu. Lagun ona, ta ona ez ezik, onen onenetakoa dezu bada irakurtzen asi zeran *Luistaŕen eliz liburua.***

**Ez aŕokeritzat artu esaten dizudana; liburua nerea banu eznizuke, bada, oŕelakorik esango. Egia da, nik eskeintzen dizudala. Egia da, liburu ontan arkituko dituzun eta zure gogoari argia, beroa ta indaŕa emango dizkioten jaki gozo ta mamitsuak an emenka biḻa ta eskean ibiḻita *gaztezale* onek bildu dizkizula. ¡Ta ementxe dago liburuaren bikainta-**

suna! Zuri emateko bildu ditugun jaki gozo mamitsuetan.

Ikasgai ta jakingaietan bai ote da KRISTAU-IKASBIDEA baño jaki mamitsu ta zoriongaŕiagorik?—Nik ez det arkitu; ez ta zuk ere noski. Begira, bada: KRISTAU-IKASBIDEA ia oso osorik arkituko dezu liburuaren ataletan *jakingaitzat*. *Jakingai* oriek ondo ez badakizkizu, ezer gutxi dakizu. Oriek ikasi ta jakiten badituzu gizonak jakinbeaŕenekoetan jakintsu izango zera. Irakuŕi bada *jakingai* oriek bein eta amar eta ogei aldiz eta geyagotan.

*Egiteko* otoitzak eta gañerakoak ere ez dituzu nere burutik atereak. Ama Elizak Otoi liburu – Liturgia ta bestetan – ematen dizkigunetatik euskerara itzuli ta liburuuratu dizkizut.

*Dizkizut* diot, baña *dizkizugu* esan da obeto itz egingo nizuke. Zure *lagun on* au txukun jazten eta apaintzen Aita ta Anai Jesulagun argi ta yayoak laguntzale izan ditugu, bada. Ona emen gutxi edo geyago lan ontan laguntzale ta artzekodun izan ditugun batzuen izenak: A. A. Aizpuru, Azpiazu J., Goenaga J., Egibar, Zaitegi, t. a.. Guztiei eskeŕak biotz biotzetikan.

Ez nizuke auŕetik esan gabe utzi nai

A. Kardaberaz'en idazti zerutar eztietatik ere zerbait artu degula.

Azkenik: liburu au lagun on ona zaizula entzun da, ez uste izan oso osoa ta besterik ez bearekoa dezula. Agertu dan baño osoago ta beteago atera nai genun; bañan ikusi degu, guk esan nai giñuzenak beste euskerazko liburu bikañetan, adibidez, *Argi Donea*'n guziz egoki esanik dauzkazula. Orégatik ez ditugu emen atera Igande ta Jai egunetako Beŕi onak (Evangelioak), Gogaketak eta ikusiko dituzun baño Eraspen geyago.

Artu, bada, zuretzako egin eta zuri eskeintzen dizugun *Luistaŕen Eliz liburua*, baña ez besteak irakurtzeke ta erabiltzeke geratu.

Jakingose ez bazera, gose ori egin zazu eta ase zure gogoa liburu onen bitartez.

Zure zure orain eta beti,

*Agiŕe J. L.*

# LUISTAR IZATEAK ESAN NAI DUANA TA ESKATZEN DUANA



# ANDRE MARI'REN ETA LUIS GONZAGA DEUNAREN LAGUNTALDEAK

*Laguntalde oetako mutil̄ai Luistar izena eman oi diegu euskeraz; neskatxak «Mariaren alaba» deitzen ditugu.*

*Euskaleŕian, Gipuzkoan batez ere, oso ugariturik daude Laguntalde oek.*

*Noiz sortu ziran? – 16'gaŕen eunkidaren azken aldera Jesus'en Lagundikoen bitartez sortu ziran. A. Leunis Jesulagunak egin zun lenengoa Eŕoma'n 1563'an.*

*XIII'gaŕen Gregorius Aita Santuak Eŕoman Jesu Lagunak zuzentzen zuten Andre Mari'ren Laguntalde nagusi nagusia (prima primaria) orduan ziran eta gero izengo ziran guzien Buru eta Ama bezela izendatu zan, ondasun eta barkamen ugariak emanaz.*

***Ordutik onara.*** – *Ordutik onara Elizan izan diran Santu eta jakintsu asko Laguntalde oetokoren batekoak izan dira, edo beintzat oso maite eta goragaŕi uste izan ditue Andre Mari'ren Laguntaldeak.*

*Lenengo beŕeun da geyago urteetan gizasemeak bakaŕik batu oi ziran Bazkun oetan, baña orain emakumeak ere batutzen dira.*

*Eŕoma'ko laguntalde nagusi nagusienarekin bat egindako laguntaldeak amairu milatik gora dituzu.*



# Luistaŕen Araudi laburtua

*(Arau auek gero ikusiko dituzun arauditik artu ta alde oetarako zuzenduak dira. Laguntalde bakoitzak bere araudiya izan oi du).*

## Luistar izatea zer dan

1. Luis Gonzaga Deuna bitarteko ta ikasbidatzat artu ta, Amatzat artu dun:

*a)* Andre Mari guziz Garbiari maitasuna agertuz,

*g)* Bere burua obeago egin,
*k)* Eta besteen onerako,
*y)* Batez ere, Elizaren alde lan egiteko bazkidetu dan mutila da Luistaŕa.

## Bete beaŕeko aginduak

2. Egunero, al bada, meza entzun; eta goiz aŕatsetan Ama guziz garbiari iru «Agur Mari», ta Luis Gonzaga Deunari «Aita Gure» bat esan.

3. Igandeoro ta jaioro, al bada, aitortu eta Jaunartu; ta gutxienaz benik bein meza, al dala meza nagusia, entzun. Laguntaldeak beretzat mezarik badu, meza au entzun.

4. Ileoro, Laguntaldearen Meza entzun eta bertan Jaunartu, garaiz eta arduraz aitortza ondo egin da. Aŕatsaldean Laguntaldeak elizkizunik badu, ez uts egin.

Urteoro, iñola al dala, Gogo Jardunak egin.

5. Beti ta nunnai agiriko pekatuetatik eta pekaturako bide jakiñetatik alde egin. Pekatu eta pekaturako bide jakiñak dira: birauak, izketa loiak, irakurgai edo igusgai lizunezko paperak, katoliko ez diran aldirokoak (periodikoak), baimen gabeko zineak, dantza lotuak, batzar nastuak, gau beranduko ta bide baztéŕetako ibilerak, t. a.

(Euskaleŕiko gaztedia usteltzera ekaŕi diguten *dantza lotu* nazkagaŕiaz gure Gotzai Jaunak emandako erakutsiak artu, eta aginduak bete bitez).

## Ikas-Batzak

6. Luistaŕa beti ta nunnai elizaren eta oitura garbien alde burua jasotzeko ta lan egiteko gertu-

rik egongo da. Oŕetarako al dutenak bazkidetu bitez Laguntaldeak egingo dun Ikas-Batza'n; au ezingo dutenak lagundu bezaie besteai Elizaren eta oitura garbien aldeko lanetan.

## Batzar buruak

7. Laguntaldearen iritzia nola edo ala artu-ta gero, Zuzendariak izendatuko ditu Batzordea osatuko duten lagunak. Eta bi urtetik bi urtera edo aldian aldian Zuzendariak berak, izendatu bezela. aldatuko ditu Batzorde Lagunak

## Zuzendari eta batzarburuen erabakiak

8. Laguntalde guziko Zuzendari ta Buru diranak Laguntalde guziaren izenez zer edo zer erabakitzen badute, Luistaŕak ayen erabakiak zintzo eta zuzen bete bitzate.

# LAGUNTALDEAN SAŘERA

**Zuzendari izango danari, au da, Laguntaldea egin nai duanari:**

*Zure eliz ortan Andre Mari'ren eta Luis Gonzaga Deunaren Laguntaldea egin nai badezu, Gotzai Jaunari baimena eskatuko diozu esanaz:*

*1) Nun nai dezun, ze elizatan, alegia, Laguntaldea egin.*

*2) Zaindaritzat: lenengoa Andre Mari onelako edo alako izenez, adibidez Sortze garbi, Jasokunde... bigařen Zaindari Luiz Gonzaga edo beste deunen bat nai ziñuzkela.*

*3) Luguntaldea mutil ezkongaientzako dala; eta Zuzendari, au edo ura izan ditekela.*

*Gotzai Jaunak baimena ematen*

*dun egunean sortu da zure eleiz ortan Laguntaldea.*

*Ta orain zure egitekoa da lugunak bildu, sarera ospetsua egin, Batzordea aukeratu; eta Gotzai Jaunaren bitartez (ta onek bear bada Aita Jesulagunen bidez egingo du) Jesus'en Lagundiko buru nagusiari eskatu Laguntaldea batu dezatela Eromako Andre Mari'ren Laguntalde Nagusi nagusiarekin, oni Aita Santuak emandako barkapen ugarien jabegai egin dedin. Jesus'en Lagundiko Aita Nagusi nagusiak agiri bat bidaliko dizu.*

## Zuzendariari:

*Egiñik daukazun Laguntaldean lagun beri bat artzeko, aski da lagun gaiak zuri eskatu ta zuk eskatzen dizuna artu nai izatea.*

*Baña Luistar berien sarera elizan eta ospetsuki egin oi da, adi*

*bidez, Andre Mariaren jai aundiren baten eri osoa elizkizunera bilduta.*

*Ortarako dira orain arkituko dituzunak.*

## Laguntaldean sartzeko Andre Mari Sortzez garbi garbiari egin oi zaion eskeintz otoia

Jaungoikoaren Ama guztiz garbia! Nik zure mendekorik azkenekoena izan aren, Zure eruki arigaria ta Zu maitatzeko daukadan gogoa ikusi ta, gaur nere aingeru zaitzale ta zerutar guzien aurean, Jabe, Bitarteko ta Amatzak aukeratzen zaitut; eta gaurgero Zure naia egin eta eragiteko asmo erabakia artzen det.

Otoi dagizut, bada, ta Jesus'ek nigatik ixuritako odolagatik eskatzen dizut, nere Ama guztiz eruktsua! artu nazazula Zure ardu-

rapean eta Zure betiko mirabetzat. Lagun zakizkit egite guzietan, eta nere gogo, itz eta egiñetan Zure Seme guztiz Donea ta Zu bein ere ez naigabetzeko eskeŕa ugari idazu. Nitzaz oroitu eta ez alde egin nigandik nere eriotzaldian. Alaxe. —Amen.

## Lagunak Laguntaldean artzeko Zuzendariak esan oi duana

Onetarako dedan eskubidez eliz ontan egiñik dagon Sortzez Garbiaren eta Luis Gonzaga Deunaren Laguntaldean artzen zaituet eta Laguntalde oen guzien artean lenen lenengo dan Eŕomako Laguntalde nagusiari emandako barkapen eta irabazi guzien jabegai egiten zaituet.

Gure Laguntalde ontan nik orain ipiñiko ditudan zuen izenak beti zeruan biziko diranen artean

idatzita arkitu ditezela. Ala bedi. Amen.

## Irabazi ditzazkedan zenbait barkapen oso

1. Laguntaldean sartzekoan aitortu ta Jaunartuz.

2. Ileoroko guzien Jaunartzean

3. Jesus'en eta Andre Mari'ren jai egunetan, animen egunean eta Luis Gonzaga Deunarenean.

4. Luistar batek elizakoak artzekoan Zuzendariak barkapen osoa gaixoari emateko eskubidea badu eriotza Jaunagandik artuazi eta iru «Aita gure» esan eraziaz.

5. Eriotzako orduan aitortu eta Jaunartuz; au ezin bada, itzez ¡JESUS! esan da eta itzez ezin esan balezake, maite damuz eta biotzez JESUS esanaz.

6. Eta beste barkapen asko.

*Gure Laguntaldearen elizkizunik eta jairik aundienak dira:*

Gure Zaindarienak, alegia, Andre Mari'ren Sortze garbi eguna, Luis Gonzaga Deunarena, Jesukristo Er̃egearena, t. a., t. a. (Gogoan artu jai egun oriek).

## Medal̄ak bedeinkatzeko Eleiz-otoitza

(Ex Rituali romano)

*V. Adiutorium nostrum in nomine Domini.*
*R. Qui fecit cœlum et terram.*
*V Dominus vobiscum.*
*R. Et cum spiritu tuo.*

### OREMUS

Omnipotens sempiterne Deus, qui Sanctorum tuorum imagines sculpi aut pingi non reprobas, ut quoties illas oculis córporis intue-

mur, toties eorum actus et sanctitatem ad imitandum memoriæ óculis meditemur: has quæsumus, imagines in honorem et memoriam Inmaculatæ Mariæ Virginis et Sancti Aloisii adaptatas bene ✝ dicere et sancti ✝ ficare digneris: et præsta: ut quicumque coram illis Inmaculatam Virginem et Sanctum Aloisium supliciter cólere et honorare studúerint, illorum meritis et obtentu, a te gratiam in præsenti, et æternam gloriam obtineant in futurum. Per Christum Dóminum nostrum. Amen.

*(Ultimo aspergat aqua benedicta).*

## Ezaugaria bakoitzari ipintzekoan

Accipe signum Congregationis ad corporis et animæ defensionem, ut divinæ bonitatis gratia ope Dei-

paræ et Sti. Aloisii æternam beati-tudinem consequi merearis. In nomine ✝ Patris et Filii et Spiritus Sancti. Amen.

*Abestu nai bada «Te Deum», eta nai bada «Magnificat»*





# ANDRE MARI'REN LAGUNTALDEEN ARAUDIA

Begira! Araudi au ez da itzez itz, dagon bezela, Laguntalderen baterako egiña. Baña emendik egoki diranak artuta ederki atera ditezke edozein Andre Mariren Bazkunetarako Legedi, Araudi edo Zuzenpideak.

Gañera emen agintzen diran asko Jesus'en Lagundikoak Zuzendu bear dituen Laguntaldeetarako, (ez Paŕoki ta beste elizetan egiten diranentzako) esanak daude.

## Jesusen Lagundiko Buru Nagusi Franciscus Xaverius Wernz'ek

*Andre Mari'ren Laguntaldeen arauak egin, aldatu eta zuzentzeko Gregorius amairugaŕenak, 1584-gaŕeneko Lotazilaren 5'ez «Omnipotentis Dei» deritzaion eskutitzan eman, ta gero Sixtus V, Clemens VII, Gregorius XV, Benedictus XIV, Clemens XIII, eta Leo XI ta XIII'gaŕenak baieztu eta gaiagotu dizkidaten eskubideen bidez ondorengo arau abek ontzat ematen ditut. Lenago ere ontzat eman zituzten 1587'gaŕenez Aita Aquaviva'k; 1885'gaŕenez Aita Beckx'ek eta 1905 gaŕenez Aita Martin'ek eta azken aldi ontan Aita Santuaren agindu eta erakutsiei ta gaurko eguneko eginpideei egokiagotuak izan dira. Oŕela bada, neronek ikusi eta aztertu ondo-*

*ren, beŕiro ontzat eman ditut eta Jesu-Lagundi osoko etxe eta elizetan irazi eta sortutako Laguntalde guzien arautzat artu bitez. Jesus'en Lagundiko Buruak noizbait norbaitzueri edo alderdiren bateko Laguntaldeai emandako eta emango dien eskubideak ontzat ematen ditut.*

*Eskubide onen agerbidetzat, neure izenez izenpetu ta Jesus'en Lagundiaren ikuŕatzakin itxitako eskutitz auek bidali eraziten ditut Eŕoma'tik Sorkunde Jaian, 1910-gaŕen Lotazil̄ak 8.*

*WERNZ'tar F. XABIER*
Jesus'en Lagundiko B. N.



Loyolako Argi Izpiak

# ARAUDIA

## Lenengo atala

### Zer eta zertarako diran Andre Mari'ren laguntaldeak

1. Amatzat artu duten Andre Mari garbi garbiari maitasuna agertuz, beren buruak obeago egin; eta besteen onerako, batez ere, Elizaren alde lan egiteko alkaŕen kidekoak batutzen dituzten, eta Aita Santuak ontzat emanik dauzkan Bazkun elizkoiak dira

ANDRE MARI'REN LAGUNTALDEAK.

2. Jesusen Lagundiko Aba Nagusienari bakaŕik dagokio Andre Mari'ren Laguntaldeak Lagundiko Elizetan eratu eta Eŕomako Laguntalde Nagusi-Nagusiari ezartzea, Elizak oni emanik dauzkan barkamen eta eskubideak Laguntalde ayek ere izan ditzaten.

3. Laguntalde auen Buru eta Zaindari Andre Mari txit garbia da. Oŕegatik Andre Mari txit garbiaren izenen bat eraman bear dute. Bañan izen oŕi beste Deun baten izena ezaŕi lezaioke.

4. Andre Mari txit garbiaren Laguntaldeak kristau guzientzat izan aŕen, beren elburu eta izakerari egokiago litzaioke alkaŕen kidekoentzat eratzea: au da, mutilentzat, ezkonduentzat, ikasleentzat t. a, talde bakoitza eratzea.

# Bigaŕen atala

## Laguntalde guzien eginkizunak

5. Asteoro gutxienez euki bear dira batzaŕak Laguntalde bakoitzaren arauak edo oiturak agintzen duten egun eta orduan. Al bada, batzar au igandez egin bedi; eta jai oso guzietan egingo balitz, obe. Eragozpide aundiren bat ez bada eginkizun au egun berezietan egin bear da beti, eta lagunak eŕitik aldegiten ez badute, ala beste galerazpideren bat ez bada, udaran ere ez da utzi bear.

6. Batzar auetan egitekoak auek dira: 1. «Veni Creator» esan. 2. Ordu laurden batez, lagunak batutzen diran bitartean idazti elizkoi bat irakuŕi. 4. Batera goizean egiten bada, Andre Mari txit

garbiaren « Oficium Parvum'ko Matutinak» abestu; eta bezperak aŕatsaldean izaten bada. 5. Laguntaldearen bigaŕen Zaindariari beste otoi batzuek oi dan bezela. Batzaŕa goizean egiten bada, batez ere jai egunetan, Matutiñak esaten diran bitartean Meza emango da.

7. Batzar auek ez ezik, Andre Mari txit garbiaren Laguntaldeak beste batzar bereziak ere izan bear ditue: Lagun guzien Jaunartzea, Iñaki Deunaren Gogo jardunak, eta beren Zaindarien egunetako jaiak.

8. Guzien Jaunartzea ilean bein, egun berezian; Jesukristo edo Andre Mari txit garbiaren jai egunen baterako uztea obe ez bada. Batzar au onela egin leike: Meza, Jaunartzeko egoki diran idazkietatik zerbait irakuŕi, Eliz oaŕak eman, Agur Eŕegiña edo beste otoitzen bat Andre Mari txit garbiari abestu.

9. Egun batzuetako Gogo jardunak urteoro egin bear dira, guzien Jaunaitze batekin bukatuz. Laguntalde bakoitzeko Zuzendariak noiz, nola eta zenbat egunetako Gogo jardunak egin bear diran erabakiko du. Ala ere aldirik egokiena garizuma da; eta bakaŕean egitea, onuratsuen. Baña au ezin balitz, edo egun oso bat eŕe ortarako euki ezin baleike, sei egunetakoak egin bitez jardunaldi bat goizean eta bestea aŕatsaldean eukiz.

10. Laguntaldeak Zaindari jaiak urteoro elizkizun aundienaz ospatu bear ditue. Andre Mari sortzez garbiaren jai auŕetik bederatziuŕena egitea oso egoki litzake. Luis Deunaren jai auŕetik sei igandeak egin oi dira, Deun au Laguntaldearen Zaindari ez balitz eŕe.

11. Al dan elizkizun eta ospeŕik aundienaz, baña bidegakeko

geiegikeririkan gabe, egin bitez jai aldi aoek; aundikeriak on baño kalte geiago egiten bait dute.

## Irugaŕen atala

### Sail̄ak eta Jakitun-Batza

12. Len esan danez, Laguntalde auek lagunak onbide ta deuntasunean goi goiko mal̄arano igoerazi, ta lagun urkoei beren laguntza biotzkoia emateko sortuak dira; oŕegatik Laguntalde auen bidez, lagunak elizkoi egin ta lagun urkoaren maitasun eginkizunetara eramatea bear beaŕezkoa da.

Eginkizun beaŕezkoenak auek dira: Kristau Ikasbidea irakatsi, gaixotegi eta espetxekoei ageŕaldi eta ikustaldiak egin t. a., lengo Laguntalde zaŕak gogoz egin oi zuten bezela.

13. Gure Laguntaldeen aspal-

diko izakerari, batez ere ikaslenari onelako edo alako *Ikas-Batzak* eratzea ondo dagokie. Ořela gazteak ederti, elerti, lege-jakintza, artu-eman gai eta beste ikaskizunetan yayotzeko aukera izango dute. Gañera gure gazteak beren bizitzarako bear beařekoa dan jakinpidea lortu dezaten, batzar oen buru uzkurtz edo erlijio gaietan jakintsu diran gizonak izan bitez.

## Laugařen atala

### Laguntaldeen zuzenbideak

15. Aita Santu Gregorius XIII' gařenaren «*Omnipotentis Dei*» deritzan eskutitzak dionez, Jesus'en Lagundiko etxe edo elizetako Laguntaldeen Zuzendaritza Lagundi guziko Buruari dagokio. Eskutitz ořek dionez Jesus'en Lagundiko

Buruak Laguntaldeen Zuzendaritzako arau eta aginduak eman eta zabaldu litzazke; bere aginduz besteak emandokoak aztertu eta ontzat eman, bai eta aldatu, zuzendu eta zearo beŕitu ere, egoki deritzaion guzietan.

16. Benedictus XIV'ren «*Laudabile Romanorum Pontificum*» dionez, eliz bakoitzeko Laguntaldeen Zuzendariak beren Laguntaldeetan eskubide guziak dituzte. Oŕegatik arau oetzaz gañera beren eŕietan beaŕezkoak diran beste batzuek egin dizazteke, baita lenago egindakoak kendu ere. Ortarako lagunen baimen eta iritziak eskatu beaŕik ez dute.

17. Jesus'en Lagundiko Buruaren aginduz, Laguntaldeen Zuzendaria izendatzeko eskubidea Jesus'en Lagundiko Probintzietako Nagusiak dute. Etxeetako nagusiak beŕiz beren Elizatako Laguntal-

deen Zuzendariak dauzkan eskubide guzien jabe dira. Zuzendariaren ordez beste bat izendatu lezake, ori egin bear duala uste duanean.

18. Laguntaldearen Zuzendariari bere lanean laguntzeko Batzorde bat izaten da. Batzorde ontan Lagun-Buru bat, Laguntzale bi, Idazkari bat, seien bat ordelari, Lagun-gaien irakasle bat, eta Diruzai bat izaten dira. Abek dira Laguntaldeetako Nagusi; ta berak bakaŕik izan leizke Batzorde-lagunak. Bear danean len aitatutakoei laguntzeko beste batzuk aukeratu ditzazke Zuzendariak eta oiek ere Batzorde-lagunak izango dira.

19. Bigaŕen malako Batzordelagunak, alegia, Eleiz-zai, zenbakari, idaztegi-zai eta irakurleak agintza gabeko arazoak ditue; ala ere oietako batzuk gaŕantzi aundikoak dira. Laguntalde bakoitzak

bear ditun aña onelako Batzorde-lagun izendatu bear ditu.

20. Bigaŕen malako Batzorde-laguntzat Zuzendariak nai dituanak artu ditzazke. Batzorde-lagunak ere Zuzendariak berak aukeratu ta autu bear ditu. Baño onelako oiturarik ez bada, ta sartu ezin baleike, Batzorde-lagun arazo bakoitzerako iru aukeratuko ditu Zuzendariak, eta iru oietatik lagun geienak aukeratzen dutena autua izango da. Beŕiro sortzen diran Laguntaldeetan bere onerako izango dan oitura bi oietako bat edo bestea sartu leike. Laguntalde bat edo besterentzako beste aukerabide era bat obeago uste bada, au ere artu leike.

21. Urteoro, arauak dion eta oi dan bezela, kargu eta arduradunak beŕitzen dira. Utsunerik gertatzen bada, len esan degun bezela bete bear da.

22. Lenbiziko eta bigaŕen maļako Batzorde-lagunak Zuzendariarengandik artutako eskubideen jabe dira; baña beren lanean naiz banaka, naiz danak batera, Zuzendariaren mendean egon bear dute.

## Boskaŕen atala

### Lagun artze eta ayenatzea

23. Andre Mari txit garbiaren Laguntaldean sartzeko asmo duanak eskaerakin Zuzendariarengana jo beza; iñor artzeko onek bakaŕik du eskubidea ta. Saŕera, al izatekotan beintzat, beste lagun baten bidez eskatuko du. Lagungaiak, lendabizi bizikera garbia, beaŕezko urteak, bizipide, egipen eta Laguntalde artan agertzen zaizkion baldintz guziak, ta arauak zintzo zintzo betetzeko asmo sendoa beregan izan bear ditu.

24. Aŕera nagusia baño len, gutxienez bi il̄abeteko agerkun aldi bat igaroko du. Tarte ortan Laguntaldeak lagunei ezartzen dizkien eginbear guziak beteko ditu lagungaiak. Beste Laguntaldeetatik datozenak ber-bertan artu leizke, lengo Laguntaldeko Zuzendariaren izenarekin beren bizikera onaren agerbideak baldin badakazkite. Beste Laguntaldeetatik ez datozenak, naiz lenago lagun izanak izan, agerkun aldia (luzea ala motxa Zuzendariak erabakiko du) igaroko dute.

25. Lagun beŕien aŕera nagusia, urtean bitan eta nai bada saŕiago Laguntaldearen Zaindarien jaietan, edo Andre Mari garbi garbiaren beste jai berezietan egingo da.

26. Lagun-gaien aŕera nagusia uŕeratzean Zuzendariak bere ustez artu leizkenen izenak Batzordeari

agertuko dizkio. Batzorde lagunei beren iritzia entzun ondoren, Zuzendariaren esku dago lagun-gaia Laguntaldean artu, ala bere itxoin aldia luzatu, ala betiko Laguntaldetik uŕutiratzea.

27. Lagun-gaien aŕera nagusia Laguntaldeko guzien auŕean egin bear da. Zuzendari, Lagun-buru, Idazkari ta Irakaslaria buru dirala; Idazkariak deitu ta aldareratuko dira eta belaunikaturik, Andre Mari txit garbiari norberaren eskeintza egingo diote, ondorengo otoitza esanaz:

## Sales'tar Franciscus Deunaren Eskeintz-otoia

*(Bat naikoa dala ta au bakaŕik euskeratu degu).*

*Jaungoikoaren Ama guztiz garbia! Nik zure mendekorik azkenekoena izan aŕen, Zure eŕuki aŕi-*

*gaŕia ta Zu maitatzeko daukadan gogoa ikusita, gaur nere aingeru zaitzale ta zerutar guzien auŕean, Jabe, Bitarteko ta Amatzat aukeratzen zaitut, ta gaurgero Zure naia egin eta eragiteko asmo erabakia artzen det.*

*Otoi dagizut, bada, ta Jesus'ek nigatik ixuritako odolagatik eskatzen dizut, nere Ama guziz eŕukitsua! artu nazazula Zure ardurapean eta Zure betiko mirabetzat. Lagun zakizkit egite guzietan eta nere gogo, itz eta egiñetan Zure Seme guztiz Donea ta Zu bein ere ez naigabetzeko eskeŕa ugari indazu. Nitzaz oroitu eta ez alde egin nigandik nere eriotz aldian. Alaxe. Amen.*

## Laguntaldean artzeko Zuzendariak esan beza:

*Onetarako dedan eskubidez eliz ontan egiñik dagon Sortzez Gar-*

*biaren eta Luis Gonzaga Deunaren Laguntaldean artzen zaituet eta Laguntalde oen guzien artean lenen lenengo dan Eŕomako Laguntalde Nagusiari emandako barkamen eta irabazi guzien jabegai egiten zaituet.*

*Gure Laguntalde ontan nik orain ipiñiko ditudan zuen izenak beti zeruan biziko diranen artean idatzita arkitu ditezela. Ala bedi. Amen.*

*(Agiri idazkia ez degu euskerara biurtu).*

Laguntaldean sartu diranen izenak ortarako izan oi diran idaztietan jaŕi bitez.

28. Iñor Laguntaldean artu bear danean, agiriko aŕeran egin bear liraken elizkizun gabe artzeko eskubidea ere badu Zuzendariak. Sartu nai duanak eta artzeko eskubidea duanak oŕetarako gogoa

adieraztea naikoa da beste gabe Laguntaldeko izateko.

29. Laguntalde bakoitza sail edo mala bateko Lagunentzat egiten da; oŕegatik ezin leike iñor artu auen kidekoa ez bada, Zuzendariak bestelakorik uste ez badu beintzat.

30. Iñor Laguntaldean sartuz geroztik betiko Laguntalde artako lagun da, bere gogoz aldegin edo Zuzendariak Laguntaldetik aterazi ez badu.

31. Edozein kristauren eginbeaŕetan edo Laguntaldeko arauetan uts egin duan lagunak, edo lagunentzat kaltegaŕi danak Laguntaldean jaŕaitzeko eskubidea galtzen du. Laguntaldetik ertetzeko agindua, ordea, Zuzendariak eman bear du; baña au bezelako auzi nasian, Batzordearen iritzia eskatu bear du.

## Seigaŕen atala

### Lagun guzien egin beaŕak

32. Laguntaldetako arauak ez dute berez iñor ere ogen astun eta arinpean ere beartzen. Ala ere, saŕera egunean gogoz artu, ta Laguntaldearen elburua betetzeko eginkizunik beaŕen eta egokienak diran ezkero, Lagunak biotz-biotzean euki eta al duten zintzoen bete bear ditue arau auek.

33. Laguntaldeko lagun onak kristau zintzo zintzo izan bear du; bere siñiste eta oiturak Eliz Ama Donearen siñiste eta Aginduekin bat egin da, Elizak goratzen duana goratu, eta debekatzen duana debekatu; eta beti, lotsik gabe, etxean eta agirian ain ona dan Amaren seme zintzo izan bedi.

34. Kristau on sutsuari dagoz-

kion egin beaŕak al duten ardurarik aundienaz betetzen alegindu bitez lagunak. Egunoro, jaikitzerakoan, sinispen, itxaropen, eta maitasun egintzak laburki esan; Jaungoikoari berak eman dizkigun on guziengatik eskeŕak egin; Jaunari egun artako eginkizun guziak eskeñi; eta al dituzten barkamenak irabazteko asmoa artu; Ama txit garbiari gutxienez iru Agur Mari esan; gabaz, oeratzekoan, egun artako egiñen azterketa egin, eta bizitza guztiko eta batez ere egun artako ogen edo gaiztakerietzaz biziro damutu.

35. Begirune aundiz gizon ta emakume gaiztoengandikalde egin bezate; ırakurgai ta ikusgai zantaŕak uŕutiratu bitzate; ta beti beren gogoaren gaitzerako edo lagun urkoaren okerbiderako izan leizkenetatik iges egin bezate.

36. Al danean lagun bakoitzak

bere gogo Zuzendaria izan beza eta oni argi eta garbi bere bařena agertu eta zabaldu bezaio; ta bere gogo bizitza osoaren aitor entzule onen agindupean egon bedi.

37. Medaļa artu baño len, guzien aitorpena egin bezate Lagun izan nai dutenak, aitor entzuleak besterik esaten ez badie beintzat; eta gero maiz Jauna artu, ez iļeroko guzien Jaunartzeetan bakařik.

38. Amalaugařen Benedictus Aita Santuak urtean bein edo bi aldiz aitorpen orokařa egiteko esan oi zuan. Ortarako egun egokienak gogo jardun egunak lirake.

39. Iñor baño len, Laguntaldeetako lagunak dira Jauna maiz artzeko Aita Santuak egin duan deiari erantzun bear liotekenak. Ez, bada, barkapen osoa irabazi dezateken egunetan bakařik, baita Jaunak eta Elizak nai duten be-

zela, maiz eta egunero ere, al badute, Jaunartu bezate.

40. Laguntaldeetako Zaindaria Ama txit garbia da, ta lagun guziak biotzez maite bear dute, bere onbide eta ikasbideak jaŕaitu, beregan itxadon eta geiago ta geiago bera maitatzen eta beraren mirabetzan alegindu.

41. Laguntaldearen ileroko eta noiz beiñero batzaŕetara lagun guziak garaiz etoŕi bitez. Zein etortzen dan jakiteko, era asko dira; onenetakoa auxe da: bakoitzak bere izena daukan ingitxo bat ortarako dagon lagunari ematea. Uts egiten duanak, itzez ala ezkutitzez lenbaitlen Zuzendariari esan bazaio.

42. Irugaŕen atalean esan degun bezela, oso egoki litzake Laguntaldeetan elizkoitasuna ta beste kristau egınkizunak lagun artean gero ta geiago zabaltzeko

sail bereziak eratzea. Oŕegatik lagun guziak sail abetakoren baten sartu bear lirake; eta, al bada, sartu bitez. Jakitun bazkun bakoitzeko arauak erabakiko dute noiz eta nola beartuak dauden bazkideak.

43. Eŕukizko eta bestelako egintzetan leiatu bitez lagunak; eta batez ere lagun-gai egokiak diranak Laguntaldean artzen; oŕela Jaungoiko ta bere Amaren aintza beti alde guzietan zabaltzeko gogo beroa erabili bear du lagun bakoitzak.

44. Laguntaldeai dagozkien goraberetan, lagunak Zuzendariaren erabakiak zintzo eta zuzen bete bitzate. Lagun-buruari lenbiziko ta bigaŕen malako Batzorde-lagunei ere, dagozkienetan agintzen dutenean lotsa azaldu eta esaneko dirala adierazi.

45. Beren artean anai-kristau

maitasuna izan bedi, eta Laguntalde eta Lagunen alde Jaunari otoi bezayote ta, batez ere, gaixoen alde. Lagunen bat iltzen bada, al dutenak ilobiraño lagundu bazaiote, eta guziak bere gogoaren atsedenerako laguntzak eskeñi; gañera lagunak ildakoen otoiak batean esango dituzte. Aldare bereziaren barkapena ildakoarentzat irabazi dezaten, Laguntaldearen aldarean edo beste toki egoki batean Meza bat emango da.

46. Laguntaldeak bere egin beaŕak ondo betetzeko bear duan dirua lagunak osatu bear dute; bakoitzak al duana, ta erabakita dagona emanaz.

47. Lagunen batek betiko ala aldi baterako eŕitik aldendu bear badu, Zuzendariari esan bezaio; onek, bear bada, bere eta Lagunburuaren izenarekin indartutako

lagun-txartela eman dezaion eta ořela beste eřiko Laguntaldean artu dezaten. Urtebete edo geiagorako eřitik uřutiratzen dan lagunak, beste eřiko Laguntaldean, al izatera, sartu bear du barkapenak irabazi nai baditu.

Zuzendari edo Lagun buruari idatzi bear diote noizean bein uřuti dabiltzanak; eta, al duten eran Jaunartze ta Laguntalde oitura guziak bete eta lagun on bati dagokion bezela bizi.

## Zazpigařen atala

### Batzorde lagunak

48. Lagun auek, nausitasunean galur dabiltzan bezela, onbidean eta arau betetzen ere zintzo ta galur ibili bitez.

49. Egiñalak egiñaz bete bear ditue beren egin beařak; eginpide

ta lan guzien beŕi Zuzendariari eman, ez dakizkitenak galdetu, bere irakaspenak entzun; oŕela Laguntalde zuzendaritzan Zuzendariaren lagun zintzo izan ditezen.

Naiz Zuzendariak naiz onen izenez Lagun-buruak deituta, egiten diran Batzaŕetan lagun guziak autatzeko ta autuak izateko eskubidea dute. Batzordeko lagun geienak artu eta Zuzendariak ontzat emandako aginduak, Batzorde beraren erabakitzat euki bear dira. Zuzendariak eman ez dun erabakiak, Batzordeko lagun guziena izan aren, ez du indaŕik.

51. Batzaŕean erabiltzen diran auzi ta gaietan beren iritzia zabal zabal agertu bezate. Norberaren iritzi, nai ta onura zalegiak ez bitez izan; Jaungoikoaren aintzarako eta Laguntaldearen onerako izango dana bakaŕik begi auŕean euki bezate.

52. Bete gaitza izan leiken aginduren bat Batzordearen epaira ekaŕi baño len Zuzendariarekin itz egin bezate. Batzordearen iritzia eskatu ala ez Zuzendariak erabaki bear du.

53. Batzorde - lagunen artean Buru nagusi Lendakaria edo Lagun burua da, eta Zuzendariaren lagunik onena bera izango da. Batzaŕen buru, biak izango dira; eta Lagun buruak (beti Zuzendariaren menpean) Laguntaldearen zuzendaritza ere bere gain izango du; batez ere lagunen bat artu ala kendu bear danean.

54. Lenengo eta bigaŕen Laguntzal̄eak Lagun buruari euren iritzi ta laguntza eman bear diote. Lagun burua ez badator lenengo Laguntzal̄ea izango da bere ordezkoa, ta bigaŕena beŕiz beste bi oiek ez badatoz.

55. Batzordearen artu-emanak

idatzi, Laguntaldearen egutegia eraman eta lagunen sarerako oriak zabaltzea Idazkariaren lana da. Lan ontan Zuzendari ta Lagun buruaren iritzira etori bear du. Batzordearen artu emanak, Laguntaldearen egunkari ta lagunen izenak, Laguntalde guztietan euki bear diran iru liburuetan jari bear dira.

56. Batzordearen batzaretan eta Zuzendari edo Lagun buruak galdetzen dietenean, beren aoulku ta iritzia eman bear dute Oarlariak. Iritzi zuzena eman dezaten, lagunak ondo ezagutu eta Laguntaldeari dagozkionak ondo jakin bear ditute; eta iñorenganako zalakeri gabe beren iritzia zintzo eman bezate.

57. Lagun-gaiak medala artu aurean Laguntaldean gero egin bearko dituenen beri Irakasleagandik artu bear dute. Irakasle

onek Zuzendariari jakiñerazo bezaio lagungaiak nola bizi diran, naiz Laguntaldean naiz beste aldeetan; ori ezagutu ondoren, Zuzendariak lagungaia Laguntaldean artu, ala ikasletza aldia luzatu, ala betiko uŕutiratu dezan.

58. Lagunak eta beste ongiĺeak ematen duten dirua, Diruzaiak artuko du. Diru au berak erabiĺiko du eta Laguntaldeak eman beaŕekoak emendik ordainduko ditu; baña artu eman oetan Zuzendariarekin ala Lendakariarekin egon gabe ez beza ezer egin.

Artu emanak eta bestelako agiriak zuzen ta argi idatzirik euki, eta Andre Mari'ren Laguntaldeko diru apuŕak zintzo zaitu bitza.

# Zortzigaŕen atala

## Bigaŕen maĺako Batzorde Lagunak

59. Lenbiziko maĺakoak bezeĺa bigaŕeneko Batzorde lagunak ere elizkoitasun ta Laguntaldeaganako maitasunean auŕen auŕenekoak izan bitez; beren gain dituzten lanak zintzo bete, eta Zuzendariarekin saŕi jardun bezate lan oyetzaz itz egiten.

60. Laguntalde bakoitzak, bere batzaŕerako ta elizkizunetarako beaŕezkoak gertu ditzaten, gutxienez bi eleiz-mutiĺ euki bear ditu.

61. Bear-beaŕezkoak dira gañera Laguntaldearen batzaŕetara datozenen izenak artzeko bi, iru, lau... Zenbakari. Auek liburu berezian lagun eta lagun-gaien izenak euki bitzate, eta batzar bakoi-

tzera nor datoŕen nor ez, idatzi bear dute.

62. Laguntaldearen batzaŕetan irakurtzen diran idazti elizkoiak deun-izendegi eta asteko oaŕak Irakurlcak irakuŕiko ditu.

63. Idaztegiaren zaindaritza Idaztegizai bat edo geiagoren gaiñ dago. Erabakitako egun eta orduetan idaztien izen-zeŕenda nai duten lagunei eskuratu bezaie. Auek eskatzen dizkiotenak eman, eta itzulitakoak beren tokian jaŕi bitzate.

64. Gaixo dauden lagunak ikustera, bear aña bider Zuzendaria edo Lagun-burua joan ezin badira, beste lagun on batzuek, Gaxozaiak, lan ortarako aukera bitzate. Ikustaldi auetan gaxoei atsegiña eta poza ta gaixotasuna gogo onez eramateko indaŕa eman bear diote. Auek eta Laguntalde osoak gaixoen alde otoitz egin bear du.

te, batez ere, gaitza auŕeratzen bada; eta orduan lenbaitlen Zuzendariari esan bezaiote gaixoak elizakoak artu ditzaten.

65. Emen esan ditugun arazo edo egite txiki ta aundi auek Laguntalde guzietakoak dira. Bestelakoen batzuk Laguntalderen baten artu bear balira, beren izakera, eskubide eta eginbeaŕak Zuzendariak erabakiko ditu.

## Bederatzigaŕen atala

### Andre Mari txit garbiaren Laguntaldeen alkaŕen arteko artu emanak

66. Laguntalde bakoitzak ez ezik, alkaŕen kidekoak diranak eta guziak ere beren elburu ta asmoak eŕezago iritxi ditzaten, egoki izango da Zuzendarien eta lagun guzien batzaŕak egitea, batez ere,

luŕalde edo alderdi bateko Laguntaldekoak badira.

67. Laguntaldeetan argitaratzen eta irakurtzen diran aldizkariak ere oso onurakoŕak dira, lagunen onerako diran gaiak erabiltzen bait dituzte.

68. Jaungoiko eta bere Amaren aintzarako, alkaŕen kideko eta alderdi bateko Laguntaldeak beren arteko Alkarte sendo eta iraunkor bat egitea egoki litzake.

## Amargaŕen atala

### Laguntalde bakoitzeko arauak

69. Anderledi Aita agurgaŕiaren aginduz, emen esandakoen antzik ez duten arau beŕirik egiten bada, Jesus'en Lagundi guziko Buruaren iritzipean jaŕi bear dira. Arau aben aurkako araurik Laguntaldeetan ezin leike egin; eta

betirako ematen diran arau beŕiak, Jesusen Lagundiko Aita Probintzialaren iritzipean jaŕi bear dira.

# LUISTAR ONAREN BIZIBIDEA

## Egunoro

Goizean jaiki orduko, ziñatu, egun guziko zure asmo, itz, egin-beaŕak Jaunari eskeñi, ta eskatu eguna, ezertan utsegin gabe, ondo igarotzeko laguntza.

Otoitz egin goizean bezela aŕa-tsean ere, Jesus onari, Andre Mari txit garbiari, Aita Jose Deunari, zure Aingeruari, Luis Gontzaga Deunari ta maite dituzun beste deunai.

Zure eginkizunak eragozten ez

badizute, Meza entzun eta, al badezu, Jauna artu.

Zure egiteko eta lanetan, noizik bein bada ere, Jaungoikoaz oroitu; ta are geiago estuasunen batean arkitzen zeranean, eta etsaien eraso aldietan.

Otordu auŕean maia onetsi; ta ondoren Jaungoikoari eskeŕak egin

Goiz, eguerdi eta iḹunabaŕean *Angelus* esan; eta *Agur Mari* bat ordu osoak entzundakoan.

Etzaite beñere oeratu zeruko zure Amari Agurtza esan gabe.

Oeratu baño len, begira eguna nola igaro dezun; ondo egiñen eskeŕak eman; utsegite guztien barkapena eskatu, eta esan biotz biotzez belauniko *Jesukristo nere Jauna...* oe buruan ikusiko dezun Jesus gurutzatuaren auŕean.

## Asteoro

Jaungoikoarenak dira eta Jaungoikoarentzat izan beařekoak egun guztiak; ez da bat bakařik ere ondo igaro bear ez danik.

Badira ala ere, zenbait egun besteak ez bezela, ta zintzoago igaro bear diranak: *igande eta jaiak*. Egun oietan Meza osoa entzun zazu. Onena izango dezu Meza nagusira joatea ta ařatsaldeko elizkizunera ere bai.

Aste egunetan ezin badezu, igande eta jayetan beñepin Jauna artu zazu.

Bear-beařekoa ez dan lanik ez egin.

Lagun onakin bakařik ibiḷi. Adiskide zoro, ibiḷera galdu, lagun arte gaizto, ikuste lotsagaři, jostaketa lasai ta dantza lotu nas-

tuetatik alde eta iges egin zazu oso uŕuti.

Etxeratu zaite egun argiz, edo iluntzerako beintzat, edo goiztar. Igande ta jaietan Luistaŕak Meza berezirik badute, jun Meza ortara.

## Ileoro

Zure Laguntaldeko eguna gogoan izan zazu; egun ortan Jauna artzera etońi, baita aŕatsaldeko elizkizunera ere, elizkizunik bada.

Ilaren lenengo ostirala Jesus'en Biotzarentzat berezi bear zenduke. Beta piska bat artu zazu, nola zabiltzan edo zure asmo onak nola betetzen dituzun ikusteko; ta uŕengo ilean zer geiago egin zenezaken erabakitzeko. Onetan zuzen biderik onena Aita Zuzendari on eta jakintsu batek emango dizu: berari, ezer estali gabe, zure biotza agertu zaiozu argi argiro.

## Urteoro

Egun batzuek artu bestetan baño geldiago ta zuzenago zure gogoari begiratzeko. Zenbaitek, lau, sei, edo zortzi egunez Loyola'ko Aita Iñaki Deunaren Gogojardunak egin oi ditute; edo urteoro ezin badute, noiz edo noiz beintzat bai.

Loreiḻa Ama txit garbiari eskeintzen zaion bezela, Garagaŕiḻa Jesus'en Biotz maitagaŕiari eskeñi bear zenioke. Ondo izango litzaizuke Jesus'en Biotzaren, Jesus Bakaldunaren eta Ama txit garbiaren Bederatziuŕenak, Aita Jose Deunaren zazpi igandeak eta Gonzaga Deunaren seiak egitea.

Oso gogoan artu itzazu Jesukristo gure Jaunak Margarita Alakoke Deunaren bidez esan zizkigun itz pozgaŕi auek: «*Nere Biotz*

*onen eŕuki geiegian agintzen dizut, bederatzi il jaŕaituen lenengo ostiraletan Jauna artzen dutenai nere maitetasun guztiz altsuak emango diela eriotz orduráko beren gaizki egiñen egizko damua; ez dirala nere asaŕean Elizakoak artu gabe ilko; ta azken ordu artan beren gordeleku bene-benetakoa nere biotz au bera izango dutela».*

*Esan nai du: bederatzi iłabete jaŕaituen lenengo ostiraletan Jauna artzen dutenak zerua irabaziko dutela.* Ondasun ain aundia, alegia, betiko zoriona irabazi dezazun, urteoro edo urteren baten beñepein bederatzi il jaŕaituen lenengo ostiraletan Jauna artu zazu.

Jesukristo gure Jaun Eŕege edo Bakaldunaren eguna zure eguntzat artu zazu.

## Beti

Gogoan izan eta zuzen egin Jaungoikoren eta Elizaren Aginduak, eta bete itzazu zure bizibideko egin bearak.

Irakuŕi eta bete geroxeago arkituko dituzun asmo erabakiak.

Oroi zaite Garbitokian daudenen alde otoitz egitez.

Utsegite aundiren bat izango bazenu, esan lenbailen biotz biotzez *Jesukristo Nere Jauna* ta alik laisteŕen zoaz aitortzera.

Egia zuzen eta garbi esango dizun Aita Zuzendari jakintsu ta Jaungoikozko bat izan zazu: bere erakutsi eta aginduak, Jaungoikoarenak balira bezela, begirapenik aundienaz artu eta beteko dituzu.

Izan zaite bizitz garbidun; ta itz bide gaiztorik ez iñori eman.

Gaitzetik aldegin zazu: ona dana egizu.

Artu zazu bertatik, eta egin beti, Luistar onari dagokion *bizibide* au. Bizibide onek zuzen zuzen betiko atsegiñetara eramango zaitu.




# Luistaŕen asmo erabakiak

*Luis Gonzaga'taŕa ta Kostka' tar Estanis Deun aitortuak izan ziranetik bereungaŕen urtea zala, ta 1928'gaŕen urtean Pius XI'gaŕenak gazte Deun oyenganako leya beroagotu nai izan zuan; eta begira emen alderdi guzietako Andre Mari'taŕak artu eta izenpeturik Eŕoma'ra bidali zituten asmo erabakiak.*

*Luistar euskaldunak Iñaki Deunaren babesean Loyola'ko Basili-*

*ka'n ontzat eman eta artuak dira emen irakurtzen dituzunak.*

Gure Aita maite Pius XI'gaŕenak nai duana egiñaz, Luis Gonzaga Deunaren ikasbideak begiratuta, asmo oek artu eta azaltzen ditugu:

1. Katoliko gerala aitortzeko ta azaltzeko beste asko bezela bildurti eta lotsati izan gabe, sinistuko ditugu sinistu bear diranak eta siniste oni agiri agirian eta gogor eutsiko diogu.

2. Biotz biotzez Kristoren Emazte Eliza Deuna maite izango degu: bere etsaiak oñazpiratzeko noiz nai gertu egongo gera ta bere alde beti burua aterako degu.

3. Katoliko zintzo garbiari dagokiona ikasten eta uzkurtz egiak argi ta baŕendik jakiten gogoz eta pozik jardungo degu.

4. Benetako aunditasuna ta indartsu izatea gure okeŕerako

makurkeria menderatzen eta zuzentzen dagola jakiñik, egite ta oitura guzietan Luis Deunaren antzera garbi izan nai degu.

Garbitasun au saŕi Jaunartu eta gure Ama guziz garbia maite izanaz irixteko asmoa eta naia daukagu.

5. Azkenez, katoliko onaren ezaugaŕiak gugan erabiḻiko ditugu beti: zintzo, egizale, guraso eta ongiḻe guzienganako esker oneko, gure idekoentzat lagun on, beeragokoentzat esku zabal eta biotz bigun izango gera.

Jesus'en biotzari eskatzen diogu, Ama guziz garbiaren eta gure zaindari Gonzaga Deunaren bitartez, asmo oek ontzat artu ditzala.

Eta berak betetzeko eskeŕak ugari emanaz, Bere aldeko langiḻe bizkor egin gaitzala, *Kristoren mendean, Kristoren pakea zabaldu dezagun.*




# Bizibidea aukera zazu

## Zerurako bideak

Guziok egin gaitu Jaungoikoak zerurako ta guziok daukagu betiko zoriona irabazi beaŕa.

Baña zorion oŕetarako bide bat baño geiego daude: *a)* ezkontzabidea; *g)* ezkondu gabe, baña nor bere buruaren jabe gelditzea, eta *k)* erlijioan edo menpetasunean bizitzea.

Gutako bakoitzarentzat aukeratuta dauka Jaunak bide oyetakoen bat.

Neretzat ze bide aukeratu du? Nik nundik daukat zerura jun beaŕa, Jaunak nai duana egingo badet?

## Bizibidea aukeratzeko jakin beaŕak...

Bizibidea ez du nor berak aukeratu bear. Jaungoikoak aukeratu edo deitu du gutako bakoitza bizibide edo estadu ontarako edo artarako. Ta nola edo ala adiraziko dio Jaungoikoak bakoitzari zertarako aukeratu duan. Gugandik Jaungoikoak nai duana ikustean dago, beraz, gure egitekoa. Zuretzat bizibiderik onena da, zuretzat Jaungoikoak aukeratu duana. Zu eskontzarako aukeratu bazaitu, zure-

tzat eskontza bidea da zerurako biderik onena.

Eřlijiorako edo apaiztzarako aukeratu bazaitu, bide ori da zuretzat onik onena, ta beste bide bat artzen badezu, ez dituzu bide artan Jaunak zuretzako zeuzkan laguntasunak arkituko. Zuretzat zegon bidea galtzen badezu, ¡bildur izan! Jaungoikoaren naia egin gabe, ez dago zerurako bide zuzenik eta!

Eřlijioko bidea, menpetasun bidea, berez bide obea da. Ezkontza bidea geiagok nai izaten dute, eřezagoa ta atsegiñogoa dala uste dutelako edo...

Baña zuk ez dezu begiratu bear zein dan berez obea ala eřezago dirudiena; zuk ikusi bear dezu ze bide dan zuretzat Jaunak aukeratu duana. Ori da zuretzat onen onena.

## Nola aukera egin, edo nola ikusi Jaungoikoak zertarako naukan

Zertarako dira zure gogorik beroenak?

Zertarako daukazu egokitasunik aundiena?

Eriotzako ordua gogora zazu, ta ikusi orduan zer nai izango dezun.

Kontu egin zuri gertatzen zaizuna beste bati gertatzen zaiola; zuri galdetzen dizula zer egin bear duan; eta ari esango zeniokena egin.

Jakin zer esan nai duan erlijioan sartzeak, zer esan nai duan ezkonduta bizitzeak, zer esan nai duan ezkondu gabe ta erlijioan sartu gabe bizitzeak. Zertara geiago jotzen du zure biotzak, bide oyetako batetik zerura juan beaŕa

daukazula gogoratzean? Nundik obeto juango zerala uste dezu?

Zure gogoa ondo ezagutu eta zuzenduko duan zuzentzale on eta jakintsu bat artu, ta etzera galduko.

Ortarako dauden etxeren baten Gogo-jardun aldi bat egin zazu.

Batez ere, otoitz egin eta eskatu Jaunari argitu zaitzala ikusi dezazun zure zerurako bizibidea.

## Bizi lagun gaia

Bizi-laguna aukeratu bear badezu, ez zaitez jun lagun bila batzar nastuetara, zine txar eta dantzalotu tokietara; or arkituko zenuken laguna jolas txaŕetarako bere bizikoa izan diteke; baña zure bizi lagun izateko, etxekoandre izateko, etxeko burubidea eramateko txoro, buruarin, ezer gutxirako gauza dana izango zaizu; as-

pergaŕi izango zaizu oŕelako batekin beti bizi beaŕa.

Zure bizilaguna izan bedi: 1) etxe ezagunekoa; 2) oso ezaguna edo eŕez ezagun ditekena; 3) benetan elizkoia eta etxokoia; 4) etxeko lanetan yayoa ta 5) nunnai agertezeko burutsua, 6) ez beŕiketa eta jolas nastu zalea. Izan bedi, batez ere, gogoz, biotzez, soin eta soñekoz eta eskuetan darabiltzan guzietan *garbi garbia*. Bere biotzeko garbitasuna ta garbizaletasuna alde guzietan ageri dedila.

Jaungoikoari oŕetarako bear dan argia eskatu, zintzo ibili, ta onelako laguna arkitu badezu, zeroŕek maite izan eta zaitu bear dezu on izaten iraun dezan. Burugabekeri ta zatarkeri aundia izango litzake zeroŕek ezer gaizki egiten erakustea ain on eta garbi izan danari, ta betiko zure lagun izango danari.

Garai ortan batez ere, zuzen bete bear dituzu Luistaŕen araudi laburtuan ikusten dituzun aginduak. Irakuŕi ondo 5'gaŕen agindua.

Iñoiz baño beaŕago zaizu garai ontan Apaiz jaun on eta argi bat zure gogo-zuzendaritzat.

---

***Andre Mari'ren Laguntalde gaietan geyago jakin nai duan Zuzendariarentzako liburu egokiak:***

***Manual de las Congregaciones Marianas*** (fin y utilidad de las CC. MM. parroquiales. Cómo se funda una Congregación). 1 pta.

***La Congregación Mariana*** (estudiada en los Documentos). Estudio jurídico. Müllan S. J.—13 pesetas, rústica.

***Boletín de Directores de CC. MM.***— Publicación bimensual. Suscripción anual 3 pesetas.

***Irurak Lluria, 15, pral.***
***BARCELONA***

# JAKINGAIAK
ETA
# EGITEKOAK



# JAKINGAIAK

## Kristaua

*Kristaua al zera?*

Bai jauna, kristaua naiz. Jaungoikoari eskeŕak.

*Kristau izatea zer da?*

Jesukristoren erakutsiak sinistu ta bere mirabetzarako beartua egotea da kristau izatea.

*Nola egiten gera kristau?*

Bataio Donearen bitartez egiten gera kristau.

## Gurutze...

*Zer da «Gurutze Santuaren» egitea?*

«Gurutze Santuaren» egitea, eskuiko beatz aundiaz iru gurutze egitea da: le-

hengoa bekokian, aoan bigafena, bulafetan irugafena, Jaungoikoarekin itz egiñaz.

*Ea nola «Gurutze» egiten dezun?*

«Gurutze» olaxe egiten da: Gurutze Santuaren † señaleagatik * gure † etsaiengandik * zaitu gaitzazu † gure Jaun eta Jaungoikoa. Amen.

*Zertarako egiten dezu gurutzea bekokian?*

Jaungoikoak gogorapen txafetatik zaitu nazan egiten det gurutzea bekokian.

*Zertarako egiten dezu gurutzea aoan?*

Jaungoikoak itz gaiztoak esatetik zaitu nazan egiten det gurutzea aoan.

*Zertarako egiten dezu gurutzea bulafetan?*

Jaungoikoak egintza ta gurari gaiztoetatik zaitu nazan egiten det gurutzea bulafetan.

## Aitaren

*«Aitaren» egitea zer da?*

«Aitaren» egitea, eskuiko beatzez gurutze bat egitea da: bekokitik bulafetaraño, ta ezkefeko sorbaldatik eskuikoraño, Irutasun guztiz Santua aitortuaz.

*Ea «Aitaren» nola egiten dezun?*

«Aitaren» olaxe egiten da: Aitaren eta Semearen ✝ eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

*Zer adierazten degu «Aitaren» egiteko itzen bitartez?*

Jaungoikoaren Batasun eta Irutasuna adirazten degu «Aitaren» egiteko itzen bitartez.

*Zer adierazten degu «Aitaren» egiteko gurutzearen bitartez?*

Jesukristo gure Jaunaren Nekaldi ta Eriotza adirazten degu «Aitaren» egiteko gurutzearen bitartez.

*«Aitaren» noiz egin bear da?*

Egintza onen bat asterakoan: bear, tentaketa naiz galbideetan arkitzean; oetik jaikitzean, etxetik irtetzean, Elizan sartzean, jaterakoan ta lotarakoan egin bear da «Aitaren».

*On al da askotan «Aitaren» egitea?*

Gure animaren etsaiak nunai ta beti gu galdu ta ondatu naiez dabiltza ta on da askotan «Aitaren» egitea.

## Aitagurea

*Ea esazu «Aitagurea».*

Aita gurea, zeruetan zaudena: santifikatua izan bedi zure izena: betor guganа zure eŕeinua: egin bedi zure borondatea zeruan bezela luŕean ere. Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia: barka zaizkiguzu gure zoŕak, guk geren zordunai barkatzen diegun bezela: ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen, baizikan libra gaitzazu gaitzetik. Amen.

*«Aitagurea» nork esan zuan?*

«Aitagurea», Jesukristo'k esan zuan.

*Zertarako esan zuan?*

Guri eskaria edo otoitza egiten erakusteko, esan zuan Jesukristo'k «Aitagurea».

## Otoitz egitea

*Otoitza egitea zer da?*

Jaungoikoagana biotza jaso ta mesedeak eskatzea da otoitz-egitea.

*Zeinbat eratakoak dira otoitzak?*

Bi eratakoak dira otoitzak: gogo utsezkoak eta aozkoak.

*Gogo utsezko otoitza zer da?*

Itzik gabe, oroimenez, adimenez eta biotzez egiten dana da gogo utsezko otoitza.

*Aozko otoitza zer da?*

Itzez, «Aitagurea» esaten danean bezela, egiten dana da aozko otoitza.

*Otoitza nola egin bear da?*

Ar̃etaz, apal, uste osoz eta iraunkiro, egin bear da otoitza.

*Otoitza sar̃itan egin bear al da?*

Jaungoikoak ala agintzen dualako, ta naiz goi-ondasunak, naiz lur̃ekoak iristeko bear̃ezkoa dalako, otoitza sar̃itan egin bear da.

## Otoitz guzietan onena

*Zein da otoitz guztietan onena?*

Otoitz guztietan onena, « Aitagurea » da.

*Zergatik da «Aitagurea» otoitz guztietan onena?*

Apostoluak eskatuta Jesukristok berak esan zualako da «Aitagurea» otoitz guztietan onena.

*Zeinbat zati ditu «Aitagureak»?*

Dei bat eta goimaitasunari dagozkion zazpi eskabide ditu «Aitagureak».

*Zertarako asten dezu otoitz au «Aita gurea zeruetan zaudena» esanaz?*

Biotza Jaungoikoagana jaso ta Berari apal eta uste osoz eskatzeko, asten degu otoitz au «Aita gurea zeruetan zaudena» esanaz.

*«Aitagurea» esatean norekin itz-egiten dezu?*

«Aitagurea» esatean, Jaungoiko gure Jaunarekin itz-egiten det.

*Zergatik deitzen diogu Jaungoikoari «gure Aita»?*

Guztiok bere semeak geralako deitzen diogu Jaungoikoari «gure Aita».

*Zergatik esaten degu «zeruetan zaudena»?*

Jaungoikoa toki guztietan egon aŕen, zeruan, batez ere, dagolako esaten degu «zeruetan zaudena».

*Zer eskatzen degu «santifikatua izan bedi zure izena» esatean?*

Jaungoikoaren izena ezagutua ta goratua izan dediḻa, eskatzen degu, «santifikatua izan bedi zure izena» esatean.

*Zer eskatzen degu «betor gugana zure eŕeinua» esatean?*

Agindu dezala Jaungoikoak gure animetan orain bere graziaren bitartez eta gero zoriona eman dizaigula, eskatzen degu «betor gugana zure eŕeinua» esatean.

*Zer eskatzen degu, «egin dedi zure borondatea zeruan bezela luŕean ere» esatean?*

Zorionekoak zeruan egiten duten bezela, guk ere emen bean Jaungoikoak nai duana egin dezagula, eskatzen degu, «egin bedi zure borondatea zeruan bezela luŕean ere» esatean.

*Zer eskatzen degu, «emaiguzu gaur gure eguneroko ogia» esatean?*

Gorputzarentzat berari dagokion janaria ta animarentzat grazia ta Sakramentuak eman dizazkigula, eskatzen degu, «emaiguzu gaur gure eguneroko ogia» esatean.

*Zer eskatzen degu, «barka zazkiguzu gure zoŕak guk geren zordunai barkatzen diegun bezela» esatean?*

Samindu gaiztuztenai edo gaizkiren bat egin digutenai guk barkatzen diegun be-

zela, Jaungoikoak ere gure obenak barka dizaizkigula, ezkatzen degu «barka zazkiguzu gure zoŕak guk geren zordunai barkatzen diegun bezela» esatean.

*Zer eskatzen degu «ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen» esatean.*

Obena egiñazten diguten gogorapen gaizto ta zirikaldiai leku ematen Jaungoikoak utzi ez gaitzala, eskatzen degu, «ez gaitzazu utzi tentazioan erortzen» esatean.

*Zer eskatzen degu «libra gaitzazu gaitzetik» esatean?*

Gorputz eta animaren gaitz eta galbide guztietatik onez atera gaitzala, eskatzen diogu Jaungoikoari, «libra gaitzazu gaitzetik» esatean.

*Zer esan nai du «Aitagureko» «Amen» itzak?*

Aitagureko «Amen» itzak, «Olaxe izan dedila» esan nai du.

## Andre Maria'ri otoitzak

*Zein otoitz egiten diozu Andre Maria'ri?*

«Agur Maria» ta «Salve»'a, batez ere, esaten dizkiogu Andre Maria'ri.

*Ea esazu «Agur Maria»?*

## Agur Maria

Agur, Maria, graziaz betea: Jauna da zurekin: bedeinkatua zera zu andre guztien artean, eta bedeinkatua da zure sabeleko frutu Jesus.

Santa Maria, Jaungoikoaren Ama eŕegutu ezazu gu pekatarioen alde orain eta gure eriotzeko orduan. Amen.

## Salbea

*Ea esazu «Salve»'a?*

Agur, Eŕegiña, Ama eŕukioŕa: gure bizi, gozo ta itxaropena, agur! Zure deiez gaude Ebaren ume erbestetuok: zuri aiezka, antsiz ta negaŕez negar-eŕi onetan. Ea, bada, itzuli itzazu gure bitarteko on oŕek, itzuli gugana zure begi eŕukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedinkatu ori. O Biozpera! O Eŕukior! O Maria Birjin gozoa! Otoitz egizu gure alde, Jaungoikoaren Ama Done oŕek Jesukristo gu-

re Jaunaren aginduak irabazi ditzagun. Amen.

*Noren itzak dira «Agur Maria» osotzen dutenak?*

Gabriel Goi-aingeruak eta Isabel Doneak Andre Maria'ri esandako itzak, eta, gañera, Ama Eliza Doneak geroago erantsitako batzuek dira «Agur Maria» osotzen duten itzak.

*Nork esan zuan Salbea?*

Ama Eliza Doneak dauka beretzat arturik Salbea.

*Agur Maria, ta Salbea zertarako esaten ditugu?*

Andre Maria Ama Birjiñari laguntza eskatzeko esaten ditugu «Agur Maria» ta Salbea.

## Aingeruai ta Doneai

*Aingeruai ta zeruko Doneai ere otoitz egin bear al zaie?*

Bai jauna, Aingeruai ta zeruko Doneai ere, gure bitartekoak dira-ta, otoitz egin bear zaie.

*¿Zein aingeruri, batez ere, izan bear diogu berarizko jaiera?*

Bakoitzak bere Aingeru Zaitzaleari izan bear dio berarizko jaiera ta egunero laguntza eskatu.

*Noren izenean eign bear ditugu gure otoitz guztiak?*

Jesukristoren izenean egin bear ditugu gure otoitz guztiak.

*Zergatik bukatzen ditugu gure otoitzak «Gloria» esanaz?*

Irutasun guztiz Donea goratzeko, bukatzen ditugu gure otoitzak «Gloria» esanaz.

## Gloria

*Ea, esazu «Gloria»?*

Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto. Sicut erat in principio et nunc et semper et in sæcula sæculorum. Amen.

*Ea esazu «Glo.ia» euskeraz?*

Aintza Aitari ta Semeari ta Espiritu Santuari. Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, gizaldi ta gizaldietan. Amen.

## Kredoa

*«Kredoa» edo Apostoluen agiria zer da?*

Jesukristok erakutsi ta Apostoluak za-

baldu zuten siniskai-xorta da «Kredoa» edo Apostoluen agiria.

*¿Ea esazu «Kredoa».*

Sinisten det Jaungoiko Aita alguztidun, zeru luŕen egiĺea, ta bere Seme bakar Jesukristo gure Jauna; Espiritu Santuaren egitez sortu ta Andre Maria Birjiñagandik jaio zana; Pontzio Pilato'ren mendean nekaldua, gurutzean iltzatua, iĺa ta obiratua izan zana; inpernuetara jetxi ta irugaŕen egunean iĺen artetik piztu zana; zeruetara igo ta Aita Jaungoiko alguztidunaren eskui-aldetik eseririk dagona; andik biziak eta iĺak apaitzera etoŕiko dana. Sinisten det Espiritu Santua: Eliza Santu, Katolikua: Santuen alkartasuna: pekatuen barkamena: aragiaren piztuera: betiko bizitza. Amen.

*Zertarako esaten dezu «Kredoa»?*

Kristauok sinisten deguna aitortzeko esaten det «Kredoa».

## Goiz, eguerdi ta aŕatsean esateko «Agur-Mariak»

℣. Angelus Dómini nuntiavit Maríae;

℟. Et concepit de Spíritu Sancto. *Agur Maria*, etc.

℣. Ecce ancilla Dómini;

℟. Fíat mihi secundum verbum túum. *Agur Maria*, etc.

℣. Et Verbum caro factum est;

℟. Et habitavit in nobis. *Agur Maria*, etc.

℣. Ora pro nobis, sancta Dei génitrix.

℟. Ut digni efficiamur promissiónibus Cristi.

## OREMUS

Grátiam túam quaésumus, Dómine, mentibus nostris infunde; ut qui Angelo nuntiante, Christi Fílii túi Incarnationem cognóvimus, per Passionem eius et Crucem ad Resurrectionis glóriam perducámur. Per eúmdem Christum Dóminum nostrum. Amen.

## Ori bera euskeraz

Jaunaren Aingeruak Maria'ri adirazi zion: — Eta Maria'k Espiritu Santuaren egitez sortu zuan. *Agur Maria...*

Ona emen Jaunaren mirabea: — Egin bekit zuk diozun bezela. *Agur Maria...*

Eta Jaungoiko Semea gizon egin zan: — Eta gure artean bizi izan zan. *Agur Maria...*

— Otoitz egizu gure alde Jaungoikoaren Ama Done ořek;

— Jesukristo gure Jaunaren aginduak irabazi ditzagun..

**Otoitza**

Ixuri ezazu, ařen, Jauna, gure biotzetan zure grazia, Jesukristo zure Semearen Gizakundea Aingeruaren esanaz ezagutu genduanok, bere Nekaldi ta Eriotzaren bitartez, aintzazko piztuerara eldu gaitezen: gure Jaun Jesukristo berořengatik. Amen.





# EGITEKOAK

## Goizeko Otoitzak

Oetik jaikitzen zeranean, artu ur-onetsia oi-buruan daukazun ur-onetsi ontzitik, eta egin *Aitaren*.

Gero oi-buruan bertan euki bear dezun Jesus gurutziltzatuaren irudi auŕean esan:

V. Jauna, entzun nere otoitza.

R. Ta nerc naia zureganatu bedi.

**Otoitza**

Egun beŕi onen asiera nik ikustea nai izan dezun Jainko Jauna!

Zure almena gaur gure alde izan bedi, egun ontan okeŕera erori gabe gure itz, gogo ta egipide guztietan zure aginduak bete ditzagun Zure Seme ta gure Jaun Jesukristo'gatik. Alaxen.

*Aita gurea... Agur Maria... Aintza edo Gloria...*

## Siñiste, itxaropen eta maitasun egintzak

Zugan siñisten det, Jauna, egi utsa zeralako.

Zugan daukat, Jauna, itxaropena, Egi utsa ta esana betetzen zintzoa zeralako.

Maite zaitut, Jauna, On ona zeralako.

## Jesus'en Biotz maitagaŕiari

Jesus'en Biotz Jaungoikozkoa! Maria'ren Biotz garbi garbiaren bitartez eskeintzen dizkizut gaurko nere otoitz lan eta nekeak egi-

ten zaizkizun txarkerien ordez eta zeori eskeñiz Aldarean dauzkazun asmoetarako. Batez ere il ontan Otoitz Bidalguntza lagunak dauzkagun asmoetarako.

## Zeruko gure Amari

Nere Ama ta nere Jabea! Osoro eskeintzen natzaizu, ta dizudan maitasuna agertu nairik ematen dizkizut gaur nere begiak, nere entzukiak, nere mingaña, nere biotza; itz batean, ni naizen guzia. Zurea naizen ezkero ¡Ama guziz ona! Zure bezela artu, zaitu ta zuzendu nazazu.

## Aita Jose Deunari

¡Nere Aita gozo Jose Deuna! Jesus eta Maria'rekin, Jaungoikoaren auŕean nere Bitartekorik onen eta altsuena. Lagundu neri bizitzan, eta eriotzako orduan.

## Nere Aingeru zaitzaleari

¡Sortu nintzanetik Jaunak laguntzat emandako nere Aingerua! argitu, zaitu ta zuzendu nazazu, gaur eta nere bizitzako egun guztietan. Amen.



# Jatorduko otoitzak

## Jan auŕeko otoitzak

Etxeko buruak edo bestela, toki askotan egiten duten bezela, seme edo alaba txikiren batek esan beza onela otordu auŕean:

Onetsi gaitzazu, Jauna, ta onetsi jaten eta edaten deguna. Alaxe.

*Aita gurea... Agur Maria.. Gloria...*

Goiko Jaunak zeruko maira eraman gaitzala. Alaxe.



## Jan ondorengo otoitzak

Jan ondoren eskeŕak eman Jaunari onela;

Zure eskutik etoŕi zaizkigun ondasun guzien eskeŕak ematen dizkizugu Jauna, menderen mendetan bizi zeran oŕi. Alaxe.

*Aita gurea... Agur Maria... Gloria...*

MONDRAGOE'KO · LVIS TAP · LAGVNTZA



# Egun bitarterako otoitz labuŕak

Burura loikeri eta itxuskeriak eta gogora asmo txaŕak ekaŕita, *etsayak okeŕera* zirikatzen bazaitu, zuzendu itzazu Jaunagana zure biotza ta asmoa, eta eskatu laguntza zure Ama Maria'ri *Agur Maria* esanaz.

*Ordu-otsa* entzuten dezunean esan: *Agur Maria* eta eskatu laguntza gaitzik egiñ ez dezazun.

Zeregiñen baten asieran esazu otoitz au:

Gure eginkizunak, Jauna, asi auŕetik eta asi ta gero ere zuzen-

du itzazu, gure ekiñaldi ta lan bakoitza Zugandik asi, ta Zugatik asia Zugan bukatu dedin.

Noizik beiñ erabiltzeko esaera egoki batzuek:

Jesus Maria ta Jose (300 eguneko barkapena).

Jesus'en biotz gozo-gozoa izan zaite nere maitetasuna (300 eguneko barkapena).

Jesus'en Biotza Zugan nere uste osoa.

Jesus'en biotz bigun eta apala, zure oŕen antzeko egidazu biotza. (300 egun bakoitzean).

Nere Jesus, eŕuki. (300 egun bakoitzean).

Maria'ren biotz gozoa, izan zaite nere osasungaŕi. (300 egun).

Agur Maria, Guziz garbia. (50 egun barkapen).




# Aŕatseko otoitzak

Oeratu baño len, egoki izango da, igaro dan egunean zer egin dan begiratzea; okeŕik egin bada, damutu; Jaunari barkapena eskatu, uŕengo egunerako asmo onak artu.

Auzpeztu zaite, ba, oi-buruan daukazun Jesus gurutziltzatuaren irudi auŕean eta aztertu zure baŕenak.

Eman biotz-biotzez Jaunari eskeŕak egin dizkizun ondasun guziengatik; eskatu, anima edo gogoko bazter izkutuak aztertuta, uts-egite ta okerbide guziak argiro ikusteko laguntza;

*Azterketa.* Nundik nora ibili naiz? Begien auŕean ipiñi Jaunaren aginduak eta nere egin-beaŕak.

Bete al dituzu guziak? Ogen edo pekatu laŕiren bat egin ote det? Begiratu ondo ta zintzo, ta gogor egin emen zure buruari, Jainko gure Jaunak eriotzako orduan gogor egin ez dakion.

Zure utsegite guziak ikusi ditu Jaunak; baita etsayak ere.

*Damutu okeŕik egin badezu,* betiko su gaŕetara erortzeko zorian zure burua ipiñi dezulako. Baña batez ere, damutu Jaungoiko gure Jauna, Aita maite-maitea, naigabez bete dezulako.

Artu geiago utsik ez egiteko, oker bidetik alde egin eta Jaunagana zure ibilerak biurtzeko asmo sendoa.

Esan belauniko itz bakoitzak zer esan nai duan begiratuta:

Jesukristo nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazko, nere egile ta salbatzale ori, zerana zeralako, ta gauz guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz biotzez, damu det Zu naigabetua, asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guziak utzi, aitortu ta obennekea betetzeko. Amen.

(Goizean bezela beste otoitzak).

Ur onetsi ontzitik ur-onetsia artu, ta *Gurutze... ta Aitaren...* egin da oeratu.

*Loak artu bitartean* esateko esaera egokiak dira auek:

Jesus, Maria eta Jose, lagundu neri nere eriotz-aldian. (100 eguneko barkapena).

Jesus, Maria eta Jose, eman neri eriotz ona zerutaren lagunarte zoriontsuan. (100 egun).

Jesus, Maria eta Jose, zuentzat nere biotza, nere gogoa ta nere bizitza. (100).

[illegible]




# Ildakoen alde

Gabeko bederatzietan, oraindik alde askotan joaleak iḷen aldez otoitxo bat egiteko adierazten digu. Oso oitura ona da. Gure tarteko batzu gu baño len eraman ditu Jaunak beregana. Ayek suleizean ez ba-daude ere, oraindik utsegite ariñen autsak eta ogen kutsuak garbitzen, garbitokian edo purgatorioan egotea, baḷiteke. Guk aiei laguntza eman genezayeke gure otoi ta on-egite bitartez. Eman dezaiegun.

Oŕetarako gabeko bederatzietan jo oi da joalea edo kanpaia Euskaleŕiko toki askotan. Etzazu galdu iñolaz ere gogo gaxoai laguntzeko egokiera au.

Ořetarako otoitzik egokiena Eliza-Amak esaten duan: «*De Profundis*» salmoa. Ona emen euskeraz:

«Bařendik oyu egin nizun, Jauna; Jauna, entzun nere oyua;

Zure belařiak erne bitez nere eskari otsera.

Okeřak aztertzen badituzu, Jauna, zeñek burutu?

Zugan dago eřukia, ta zure legeak eman dit itxaropena.

Aren itzean ditxaro nere gogoak; nere gogoak Jaunagan dauka ustea.

Goiz goizetik ařatserano itxadon beza Isřael'ek Jaungoikoagan.

Jaungoikoarengan dago bada eřukia; ta erosi-bide ugari Arengan;

Eta ark aterako du Israel bere gaiztakeri guzietatik».

*Aita gurea...*

V. *Betiko atsedena emayezu Jauna.*

R. *Eta betiko argiak-argi be-zaye.*

*Pake atsedenean beude.*

*Alaxe.*

# AITORTZA



# JAKINGAIAK

## Gizona

*Gizona zer da?*

Anima ta gorputzaz osotutako izaki adimenduna da gizona.

*Zer da gure anima?*

Jaungoikoak bere iduri ta antzekoa egin zuan gogo-izaki il̃ezkor̃a da gure anima.

*Nola da gure anima Jaungoikoaren antz-irudia?*

Ezaguera ta aukeramena dituan gogo edo espiritu il̃eziña dalako da gure anima Jaungoikoaren antz-irudia.

*Zergatik deritzaio il̃ezkor̃a gure animari?*

Iñoiz ilko ez dalako deritzaio ilezkoŕa gure animari.

*Egia al da anima ba'degula?*

Bai jauna egia da anima ba'degula, ez genduke, bestela ez gogorapenik ez naiizaterik, ez aukerapen eta ez erantzukirik izango.

*Ikusi ta ikutu al diteke gure anima?*

Gure anima gogo edo espiritua da: ez diteke ez ikusi, ez ikutu.

*Zeinbait dira animaren almenak?*

Animaren almenak iru dira: oroimena, adimena ta naimena.

*Zertarako eman zigun Jaungoikoak oroimena?*

Bera ta bere onegiñak oroitu ta gogoan izateko, eman zigun Jaungoikoak oroimena.

*Zertarako eman zigun Jaungoikoak adimena?*

Bera ezagutu ta gogoan erabiltzeko, eman zigun Janngoikoak adimena.

*Zertarako eman zigun Jaungoikoak naimena?*

Jaungoikoa, ontasun utsa danez Bera, ta gure lagun urkoak Beragatik maita di-

tzagun, eman zigun Jaungoikoak naimena.

*Zertarako eman zizkigun Jaungoikoak gorputza ta gorputzaren zentzunak?*

Gauza guztietan bere alde lan egin dezagun, eman zizkigun Jaungoikoak gorputza ta gorputzaren zentzunak.

*Jaungoikoa danaren jabea al-da?*

Jaungoikoa danaren Jaun eta Jabea da: Berak egin zuan dana ta ez da, bere baimenikan gabe, munduan ezertxo ere gertatzen.

*Bai al-du Jaungoikoak izaki guztien ardura?*

Ba'du Jaungoikoak izaki guztien ardura, gizonarena, batez ere.

*Zertarako egin zuan Jaungoikoak gizona?*

Bizitza onetan bere mirabe izan eta gero Bera ikusi ta maite izanaz betiko atsegiñetan bizi izateko egin zuan Jaungoikoak gizona.

## Jaungoikoarekiko eginkizunak

*Zeintzuk eginkizun ditugu Jaungoikoarekiko?*

Beste ezer baño Bera maiteago izateko eginkizuna degu Jaungoikoarekiko.

*Zer da Jaungoikoa beste ezer baño maiteago izatea?*

Jaungoikoari naigaberik eman baño gauza guztiak galdu naiago izatea, da Jaungoikoa beste ezer baño maiteago izatea.

## Lagun urkoarekiko eginkizunak

*Zeintzuk eginkizun ditugu lagun urkoarekiko?*

Jaungoikoagatik geren buruak bezelaxe bera maite izateko eginkizuna degu lagun urkoarekiko.

*Zein da gure lagun urkoa?*

Gizon guztiak dira gure lagun urko: baita gure etsaiak ere.

*Nola maite izango ditugu gure lagun urkoak geren buruak bezelaxe?*

Aiek guri egitea nai genduken on guztia guk berai egiñaz, maite izango ditugu lagun urkoak geren buruak bezelaxe.

*Nola maite izango ditugu gure lagun urkoak Jaungoikoagatik?*

Gerok bezelaxe, guztiak Jaungoikoaren semeak, Jesukristo gure Jaunaren odolaz erosiak, eta guztiak zeru baterako jaioak diralako maite izanaz, maite izango ditugu lagun urkoak Jaungoikoagatik.

*Nork maite du Jaungoikoa?*

Aren aginduak betetzen dituanak maite du Jaungoikoa.

*Jaungoikoaren Legeko aginduak bete al ditzakegu?*

Bai jauna, Jaungoikoaren Legea betetzeko bear dan laguntza ez dio Berak, egoki eskatuzkero, iñori ukatzen, eta oŕegatik Jaungoikoaren legeko aginduak bete ditzakegu.

## Gure etsaiak

*Jaungoikoaren legeko aginduak betetzeko, eragozpenik garaitu bear al da?*

Jaungoikoaren aginduak betetzeko, diabruaren zirikaldiak garaitu bear dira.

*Zirikaldiak zer dira?*

Animaren etsaiak pekaturako ematen dizkiguten eraginkadak dira zirikaldiak.

*Zein dira gure animaren etsaiak?*

Iru dira gure animaren etsaiak: diabrua, mundua ta aragia.

*Nola azpiratzen da diabrua?*

Otoitzaren eta apaltasunaren bitartez garaitzen da diabrua.

*Nola azpiratzen da mundua?*

Munduzale gaizto ta biuŕiakandik alde egiñaz, eta aien aŕokeri ta aundiusteak oinperatuaz, garaitzen da mundua.

*Nola azpiratzen da aragia?*

Gure griña txaŕak ildurat u ta eziaz, garaitzen da aragia.

## Aginduak bete beaŕa

*Jaungoikoaren Legeko aginduak betetzeko beartuak al gaude?*

Bai jauna, Jaungoikoaren Legeko agindu guztiak eta bakoitza betetzeko beartuak gaude, ta ez betetzea pekatua da.

## Obena

*Obena edo pekatua zer da?*

Jaungoikoaren Legean debekaturik dagon zerbait nork bere gogoz esan, egin,

gogoratu, nai izan, edo agindurik dagona ez egitea da obena edo pekatua.

*Zeinbat eratakoak dira obenak?*

Obenak bi eratakoak dira: astunak eta ariñak.

## Oben astuna

*Zer da oben astuna?*

Jaungoikoaren Legean debekatutako zerbait, ezaguera argiz ta gogo osoz, ajolazko gaietan, esan, egin, gogoratu, nai izan, edo agindurik dagona ez egitea da oben astuna.

*Zergatik deritzaio eriozkiña aben astunari?*

Graziazko bizia animari kentzen diolako, deritzaio eriozkiña oben astunari.

## Oben ariña

*Oben ariña zer da?*

Jaungoikoaren legean debekatutako zerbait, ajola gutxiko gaietan, edo ta bestela ajolazkoetan ezaguera argi ta gogo osorikan gabe, esan, egin, gogoratu, nai

izan edo, agindurik dagona ez egitea da oben ariña.

*Eta zergatik deritzaio barka-eŕeza oben ariñari?*

Eŕez egin eta eŕez barkatzen dalako, deritzaio barka-eŕeza oben ariñari.

*Zer da gaitzoimena edo griña txaŕa?*

Bein eta beŕiz gaizki egiñaz sortzen dan, eta obenetara makurtzen gaituan oitura gaiztoa da gaitzoimen edo griña txaŕa.

**Griña txar nagusiak** *zeinbat dira?*

Griña txar nagusiak zazpi dira: Aŕokeria, zekenkeria, aragikeria, asaŕekeria, janedankeria, bekaitza ta nagikeria.

*Zergatik deritzaie nagusiak zazpi griña txar oiei.*

Gañerako griña txar ta oben guztien sustraiak bezela diralako, deritzaie nagusiak zazpi griña txar oiei.

*Zer onoimen edo birtute daude zazpi griña txar oiek azpiratzeko?*

Zazpi onoimen edo birtute daude, zazpi griña txar oiek azpiratzeko: aŕokeriarentzat apaltasuna, zekenkeriarentzat eskuzabaltasuna, aragikeriarentzat garbita-

suna, asaŕekeriarentzat eramana, janedankeriarentzat neuŕiztasuna, bekaitzarentzat maitasuna, ta nagikeriarentzat bizkortasuna.

## Aitortza

*Zertarako da Aitortza edo «Confesioa» deritzan Sacramentua?*

Bataiatuzkero egindako pekatuak barkatzeko, da Aitortza edo «Confesioa» deritzan Sakramentua.

*Zer oben barkatzen dira Aitortzaren bitartez?*

Oben astunak eta ariñak barkatzen dira Aitortzaren bitartez.

*Noiz artzen degu Aitortza deritzan Sakramentu au?*

Pekatuak ondo aitortu ta azkespena ematen zaigunean, artzen degu Aitortza deritzan Sakramentu au.

*Aitortza ondo egiteko zenbat gauza bear dira?*

Aitortza ondo egiteko bost gauza bear dira: azterketa, biotz-damua, ontzeko asmoa, aozko aitorketa ta gaizki egiñen ordaña.

## Azterketa

*Azterketa edo examiña zer da?*

Jaungoikoari artatako laguntza eskatuta oraindik aitortu ez diran obenak gogora ekartzen saiatzea, da azterketa edo esamiña.

*Azterketa nola egiten da?*

Jaungoikoaren eta Elizaren aginduak eta norbera ibiĺi dan tokiak eta izan dituan eginkizunak gogora ekaŕiaz egiten da azterketa.

## Damua ta asmoa

*Damua zer da?*

Egindako obenen goŕotoa ta geiago ez egiteko asmoa aŕerazten digun biotz-samintasuna da damua.

*¿Zenbat eratakoa da garbai edo damua?*

Garbai edo damua bi eratakoa da: maite-damua ta bildur-damua.

*Zer da maite-damu edo Kontrizioa?*

On utsa ta osoro maitagaŕia dan Jaungoikoa naigabetu degulako biotz-samintasuna, aitortu, ondu ta oben-nekea betetzeko asmoz: orixe da maite-damua.

*Ea esazu maite-damua egiteko otoitza?*

Jesukristo nere Jaun, Jaungoiko ta gizon egiazko, nere egile ta salbatzale ori zerana zeralako ta gauza guztiak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz-biotzez, damu det zu naigabetua: asmo sendoa artzen det ez geiago pekaturik egiteko, pekaturako bide guztiak utzi, aitortu ta oben-nekea betetzeko. Amen.

*Zer da bildur-damua edo atrizioa?*

Jaungoikoa naigabetu degulako biotz-samintasuna, pekatuen itsuskeriagatik edo inpernu-bildufez edo zerua galdu degulako, aitortu, ondu ta oben nekea betetzeko asmoz: orixe da bildur-damua.

*Eta zein da bitan onena, maite ala bildur-damua?*

Damurik onena maite-damua da.

*Zergatik da maite-damua damurik onena?*

Beraren bitartez, aitortu baño lenago pekatu astunak ere barkatu ta Jaungoikoaren grazian jartzen geralako, da maite damua damurik onena.

*Eta ondo aitortzeko bildur-damua naikoa da ala maite-damua bear da?*

Ondo aitortzeko naikoa da bildur-da-

mua, obea da, oŕatik, maite damua, eta au izateko alegiñak egin bitza aitortzera dijoanak.

*¿Noiz izan bear da pekatuen damua?*

Apaizak azkespena eman auŕetik izan bear da pekatuen damua.

*Asmoa zer da?*

Obenik geiago beñere ez egin eta obenerako bideetatik alde egiteko erabaki sendoa da asmoa.

*Eta zeñek uste dezake bere aitorketan damu ta asmorik izan ez duala?*

Gaizkirako bideetatik alde egiten ez dutenak, eta bein eta beŕiz aitortuaŕen, ostera len bezela bizi diranak uste dezakete beren aitorketan damu ta asmorik izan ez dutela.

## Aozko aitorketa

*¿Zer da aozko aitorketa?*

Oben astun guztiak, beren oben-nekea betetzeko asmoz, gezuŕik gabe ta norberak dakizkian bezela apaizari aitortzea, da aozko aitorketa.

*Oben aŕiñak aitortzera beartuak al gaude?*

Ez jauna, ez gaude oben ariñak aitortzera beartuak; ona da ordea, ariñak ere aitortzea.

Eta ariñak beste obenik ez duanak zer egin dezake eŕezago damutzeko?

Oben ariñak besterik ez duanak, oraingo ariñaz gañera, lenagoko astunen bat aitortu dezake, eŕezago damu izateko.

*Eta oben astuna egiten dan bakoitzean. beaŕezkoa al da bereala aitortzea?*

On izango litzake oben astuna egiten dan bakoitzean bereala aitortzea, bañan ez da beaŕezkoa.

*Zer egin bear da, beraz, oben astuna egiten danean, bere barkapena iristeko?*

Oben astuna egiten danean, bere barkapena iristeko, benetako maite-garbaiz damu izan bear da, ta Ama Eliza Doneak agindua daukanean aitortzeko asmoa artu.

*Nork ez du bear bezela egiten aitorketa?*

Oben astunen bat lotsaz naiz bilduŕez aitortu gabe uzten duanak eta damurik, edo ontzeko ta oben-nekea betetzeko asmorikan gabe aitortzen danak, ez du bear bezela egiten aitorketa.

*Zergatik ez degu oben astunik lotsaz naiz bilduŕez aitortu gabe utzi bear?*

Apaizari aitortzean, Jesukristori aitortzen dizkiogulako, ta apaizak, aitorketan entzundako obenik, ilko balute ere azaldu ezin dezakelako, ez degu oben astunik lotsaz naiz bilduŕez aitortu gabe utzi bear.

*Aitorketa bear bezela egiten ez duanak pekaturik egiten al du?*

Bai jauna, aitorketa bear bezela egiten ez duanak, done-austea deritzan pekatu ikaragaŕia egiten du.

*Zer egin beaŕean gelditzen da aitorketa gaizki egiten duana?*

Gaizki egindako aitorketan esan dituan pekatu astunak, eta esan gabeak, eta ortan egin duan done-austea aitortu beaŕean gelditzen da aitorketa gaizki egin duana.

*Ea esazu «Confiteor» euskeraz?*

Nik, pekatari onek aitortzen diot alguztidun Jaungoikoari, Andre Maria beti Birjiñari, zoriundun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiai eta zuri, ene Aita, pekaturik asko egin deda-

la, gogapen, itz eta egiteetan, nere eŕuz nere eŕuz, nere eŕu aundiz. Oŕegatik eskatzen diot Andre Maria beti-Birjiñari, zoriondun Migel Goiaingeruari, zoriondun Juan Bautistari, Pedro ta Paulo Apostolu Doneai, beste Done guztiai ta zuri, ene Aita, otoitz egiozutela nere alde Jaungoiko gure Jaunari.

## Ordaña

*Zer da ordaña?*

Apaizak ezartzen digun oben-neke edo penitentzia da ordaña.

*Oben-neke edo penitentzia zertarako da?*

Gure obenakgatik Jaungoikoari zor diogun aldiko nekea ordaintzeko da oben-neke edo penitentzia.

*Eta nolako pekatua egiten du oben nekea bete gabe utzi edo betetzea asko luzatzen duanak?*

Oben-nekea bete gabe utzi edo betetzea asko luzatzen duanak, pekatu astuna egiten du, oben-nekea astuna baldin bada, ta ariña, oben-nekea ariña danean.

*Eta oben-nekeaz gañera beste iñola aldiko neke-zoŕa ordaindu al-genezake?*

Oben nekeaz gañera beste edozein egite onen bitartez, barkapenak irabaziaz, batez ere, pekatuen aldiko neke-zoŕa ordaindu genezake.

## Barkapenak

*Eta zer dira barkapenak edo indulgentziak?*

Bizitza onetan naiz garbitokian pekatuengatik ordaindu bear dan neke-zoŕa garbitzeko, Elizak egokitzen dizkigun emaitzak dira barkapen edo indulgentziak.

*Eta nola irabazten dira barkapenak?*

Artarako agindurik dagona Jaungoikoaren grazian egiñaz, irabazten dira barkapenak.

MONDRAGOE'KO · LUIS · TAR · LAGUNTALDA



# Jaungoikoaren Legeko Aginduak

## I

*Zein da Jaungoikoaren Legeko lenengo agindua?*

Jaungoikoaren Legeko lenengo agindua auxe da: «Jaungoikoa maiteen izatea».

*Zer agintzen digu Jaungoikoak bere legeko lenengo aginduan?*

Egiazko Jaungoikotzat Bera Bakaŕik ezagutu ta maitatzeko ta beragan benebenetan sinistu ta uste guztia izateko, agintzen digu Jaungoikoak bere lenengo aginduan

*Zertara beartzen gaitu oŕezaz gañera Jaungoikoak bere lenengo aginduan?*

Berari bakaŕik gorputz eta animako lots-itzalik aundienaz agur egitera ta bere mirabe izatera, beartzen gaitu Jaungoikoak bere lenengo aginduan.

*Zer debekatzen digu lenengo aginduak?*

Jainkoaizunkeria, siniskeria, doneaustea, ta eŕelijioaren kaltezko beste oben guztiak debekatzen dizkigu lenengo aginduak.

*Jainkoaizunkeria zer da?*

Gezuŕezko jainkoak gurtu ta sinistea da jainkoaizunkeria.

*Siniskeria zer da?*

Edozein gauza naiz egintzak goi-kemenen bat baduala uste izatea da siniskeria.

*Doneauste edo sakrilejioa zer da?*

Jaungoikoari eskeñitako zerbait edo norbait bear bezela ez erabiltzea, esate baterako, Sakramenturen bat gaizki artzea da doneaustea edo sakrilejioa.

*Zer geiago debekatzen digu lenengo aginduak?*

Sinisgogorkeria, siniste austea, Jaungoikoaganako etsaikeria, kristau-ikasbi-

dea ez jakitea ta irakurtze gaiztoak eta sinismenaren kaltegaŕi diran beste obenak ere debekatzen dizkigu lenengo aginduak.

*Sinisgogorkeriaren sustrairik ezagunenak zein dira?*

Aragikeria, aŕokeria ta gure Kredoko egiak ondo ez jakitea dira sinisgogorkeriaren sustrairik ezagunenak.

## Liburu ta eguneroko oŕi gaiztoak

*Eta pekatu al-da liburu ta eguneroko oŕi gaiztoak irakurtzea?*

Bai jauna, pekatu da liburu ta eguneroko oŕi gaiztoak irakurteza, ta saltzea, erostea ta gordetzea.

*Itxaromenean eta goimaitasunean utsen bat egiten dutenak nolako obena egiten dute?*

Itxaromenean eta goimaitasunean uts egiten dutenak ere lenengo aginduaren kaltezko obena egiten dute.

## Andre Mari, Aingeru ta Santuei agur

*Agur egin al dizaiekegu Andre Mariari, Aingeruai ta Santuai?*

Bai jauna, agur egin dizaiekegu ta egin bear diegu, Jaungoikoaganako ditugun bitartekoak diranez, Andre Mariari, Aingeruai ta Santuai.

*Zer dira aldarean dauden irudiak?*

Jesukristo gure Jaunaren, Andre Mariaren, eta zeruetan dauden Doneen antz batzuek dira aldarean dauden irudiak.

*Zertarako daude aldarean irudiak?*

Aien bitartez Jesukristo gure Jauna, Andre Maria ta zeruetan dauden Doneak gogora ditzagun, eta aien antz-irudiak diranezkero, agur egin dizaiegun, daude aldarean irudiak.

## Gorputzkin eta irudiai agur

*Agur egin bear al diegu Santuen gorpuzkiñai ere?*

Bai jauna, Santuen gorpuzkiñai ere agur egin bear diegu.

*Baña egin al dezaiekegu agur gorpuzkin ta irudiai?*

Bai jauna, gorpuzkin ta irudi utsai ere agur egin dezaiekegu ta egin bear diegu: gorpuzkin ta irudiai egindako agura, Je-

sukristori, berari, Andre Mariari ta doneai egiten zaie.

## II

*Zein da Jaungoikoaren Legeko bigaŕen agindua?*

Jaungoikoaren Legeko bigaŕen agindua auxe da: «Jaungoikoaren izena alpeŕik ez aotan artzea».

*Zer debekatzen du bigaŕen aginduak?*

Jaungoikoaren izena begirune-lotsarik gabe aitatzea, biraoak esatea, ta alpeŕik zin egitea, debekatzen du bigaŕen aginduak.

*Biraoa zer da?*

Jaungoikoarentzat, Andra Mariarentzat eta Santuentzat itsuskeriren bat esatea da biraoa, ta, berez oben izugaŕia.

*Zin egitea zer da?*

Esaten degunaren eta iñori agintzen diogunaren testigutzat Jaungoikoa jartzea, da zin egitea.

*Alpeŕik zin egitea zer da?*

Egi, bear edo zuzentasun gabe Jaungoikoa testigutzat artzea da alpeŕik zin egitea.

*Zer da egi gabe zin egitea?*

Gezurtzat daukagunari, zin egiñaz eustea, da egi gabe zin egitea.

*Zer da bear gabe zin egitea?*

Ezerezkeriz edo ojala gutxiko zerbaitegatik Jaungoikoa testigutzat ekartzea, da beaŕik gabe zin egitea.

*Zer da zuzentasun gabe zin egitea?*

Gauza oker edo txaŕen bat, esate baterako, norbaiti kalteren bat egiteko asmoari zin egiñaz eustea, da zuzentasun gabe, zin egitea.

*Alpeŕik zin egitea obena al da?*

Alpeŕik zin egitea obena da ta gezuŕetan ba-da, oben astuna beti.

*Zer da on, alpeŕik ez zin egiteko?*

Kristok erakusten digun bezela, «bai» edo «ez» esatea da on alpeŕik ez zin egiteko.

*Zertara beartzen gaitu bigaŕen aginduak?*

Jaungoikoaren izena aintzakotzak eukitzera ta Berari egindako eskeintzak eta, zin egiñaz, iñori aginduak betetzera, beartzen gaitu bigaŕen aginduak.

# III

*Zein da Jaungoikoaren Legeko irugaŕen agindua?*

Jaungoikoaren Legeko irugaŕen agindua auxe da: «Jai egunak jai egitea».

*Zer agintzen digu irugaŕen aginduak?*

Elizkizunen bitartez Jaungoikoa goratzeko, ta igande ta jaiero Meza Donea entzuteko, agintzen digu irugaŕen aginduak.

*Zer debekatzen digu irugaŕen aginduak?*

Igande ta jai-egunetan bear gabe lanean jardutea debekatzen digu irugaŕen aginduak.

*Zertarako eragotzi du Jaungoikoak Igande ta Jai-egunetan lan egitea.*

Bera Elizkizunetan agurtu, gure anima onoimenez apaindu ta gorpotzari atsedena emateko ardura obeto artu dezagun, debekatu du Jaungoikoak Igande ta Jaiegunetan lan egitea.

*Nola beteko du ondoen kristauak Jaungoikoa agurtutzeko ta bere anima onoimenez apaintzeko duan eginkizuna?*

Bere eŕiko Elizara joanaz, ta Jaungoi-

koareriko ta lagun urkoarekiko egintza onak egiñaz beteko du kristauak ondoen, Jaungoikoa agurtzeko ta bere anima onoimenez apaintzeko duan eginkizuna.

*Debekatuak al daude Igande ta Jai-egunetan joku ta jostatzeak?*

Ez jauna, gaiztoak ez badira, ez daude debekatuak Igande ta Jai-egunetan joku ta jostatzeak.

## IV

*Zein da Jaungoikoaren Legeko laugaŕén agindua?*

Jaungoikoaren Legeko laugaŕen agindua auxe da: «Gurasoak aintzat eukitzea».

*Nork dauzka gurasoak aintzat?*

Gurasoen esanak egiten dituztenak eta berai laguntzen eta begirune lotsa izaten dietenak, dauzkate gurasoak aintzat.

*Gurasoez beste zeintzuk dira aintzat euki bear ditugunak?*

Gurasoez gañera zaŕago ta nagusiagoak eta agintariak dira aintzat euki bear ditugunak.

*Zer debekatzen digu laugaŕen aginduak?*

Gure gurasoak, Elizgizonak eta gañerako agintariak aintzat ez artzea ta beren esanak ez egitea, debekatzen digu laugaŕen aginduak.

*Eta laugaŕen agindu onetan ez al-da beste eginkizunik sartzen?*

Bai jauna, laugaŕen agindu onetan sartzen dira, baita, gurasoak beren seme-alabakin, senar emazteak elkaŕekin, agintariak mendekoekin, nagusi-langileak bata-bestearekin eta eŕitaŕak eŕiarekin dituzten eginkizunak ere.

## Gurasoen seme-alabakiko eginkizunak

*Zein da, gurasoen seme-alabakiko eginkizuna?*

Seme-alabak arduraz azi ta ezi, eta beren garaian bizi-bidea egokitzea da gurasoen seme-alabakiko eginkizuna.

*Zer da, seme-alabak ondo azitzeko gurasoak egin bear dutena?*

Berak zuzen ibili, ta seme-alabai erakutsi onak eman, eta okertzen ba-dira zuzendu, da seme-alabak ondo azitzeko gurasoak egin bear dutena.

*Zer erakutsi bear diete batez ere, gurasoak beren umeai?*

Kristau-ikasbidea, batez ere, erakutsi bear diete gurasoak beren umeai.

## Senar-emazteen alkaŕekiko eginkizunak

*Zein dira senar-emazteen alkaŕekiko eginkizunak?*

Alkar maite izañ, alkaŕi lagundu, ta alkaŕenganako zintzotasunean bizi izatea dira senar-emazteen alkaŕekiko eginkizunak.

*Eta zer eginkizun du bereziki emazteak senaŕarekiko?*

Aren esanetara egoteko eginkizuna du bereziki emazteak senaŕarekiko.

## Mendekoak legezko beren agintariekin

*Zer eginkizun dute mendekoak, legezko beren agintariekin?*

Legezko agintariai maitetasun eta itzala izateko ta aien esanetara egoteko eginkizuna dute mendekoak beren agintariekin.

## Nagusien langiĩeekiko eginkizunak

*Zer dira nagusien langiĩeekiko eginkizunak?*

Zor zaien, lanaren saria garaiz ematea; lan geiegirik iñori ezaŕi ez, eta ez dagokienik ere umeai, zaŕai edo emakumeai ez eragitea; elizkizunak betetzeko era guztioi eŕextutzea; eta iñori lan-aldian pekaturako biderik ez ematea dira nagusiak langiĩeekiko dituzten eginkizunak.

## Langiĩeen nagusiekiko eginkizunak

*Zer dira langiĩeen nagusiekiko eginkizunak?*

Alkaŕi emandako itzetan zintzo lanean saiatzea, eta nagusiari ez kalterik egitea eta legezko beren eskubideari eusteko okerbidetik ez ibiltzea, dira langiĩeen nagusiekiko eginkizunak.

## Nagusi-langiĩeen arteko asaŕeen iturburuak

*Zein dira nagusi-langiĩeen arteko asaŕeen iturburuak?*

Sinismeneko egiak azturik eukitzea, oitura txaŕetan sartu-ta bizitzea ta luŕeko ondasunak bakaŕik edo bear baño geiago maite izatea, dira nagusi-langiĩeen arteko asaŕeen iturburuak.

## Nagusi-langiĩeen arteko asaŕeentzat adiskide-bidea

*¿Zer adiskide-bide dago nagusi-langiĩeen arteko asaŕeentzat?*

Elizaren erakutsiak eta aginduak ikasi ta ondo betetzea da nagusi langiĩeen arteko asaŕeen adiskide-bidea.

## Katolikuok geren eŕiarentzat ditugun eginkizunak

*Zein dira katolikuok geren eŕiarentzat ditugun eginkizunak?*

Geren eŕia maite izatea, bere lege zu-

zenak agintzen dutena egitea, ta auteskundeetan eŕi-gizon zintzoak aukeratzea, dira katolikuok goren eŕiarentzat ditugun eginkizunak.

## Geren izenak auteskunde-izendegian ezaŕi

*Geren izenak auteskunde-izendegian ezartzeko ta auteskunde-egunean autarki edo (botoa) emateko beartuak al-gaude katolikuok?*

Bai jauna, geren izenak auteskunde-izendegian ezartzeko ta auteskunde-egunean autarki edo (botoa) emateko bearturik gaude katoliku guztiok.

## Katolikuok aukeratu bear ditugun eŕi-gizonak

*Nolako eŕi-gizonak aukeratu bear ditugu katolikuok auteskundeetan?*

Elizarentzat eta eŕiarentzat gauza onak egingo dituztela ziñetan diruditen eŕi-gizonak bakaŕik aukeratu bear ditugu katolikuok auteskundeetan.

## Elizaren kontrakorik ezin aukeratu

*Aukeratu al dezakegu katolikuok auteskundeetan iñor Elizaren kontrako iritzirik duanik?*

Ez jauna, ez dezakegu katolikuok auteskundeetan aukeratu iñor Elizaren kontrako iritzirik duanik.

## V

*Zein da Jaungoikoaren Legeko boskaŕen agindua?*

Jaungoikoaren Legeko boskaŕen agindua «Iñor ez iltzea» da.

*Zer agintzen digu boskaŕen aginduak?*

Iñoren kaltean ezer ez egin, ez esan, eta ez nai izateko, agintzen digu boskaŕen aginduak.

*Zer besterik agintzen digu boskaŕen aginduak?*

Lagun urko guztiak, naiz etsaiak izan, maite izan, ta iñori egindako kalteak ordaintzeko, agintzen digu boskaŕen aginduak.

*Zeŕ debekatzen digu boskaŕen aginduak?*

Nork bere burua edo beste iñor iltzea, (duelo) deritzan buŕuka egitea, iñor zauritu edo jotzea, moskortzea, madarikatzea, ta iñori gaizpidea ematea, debekatzen digu boskaŕen aginduak.

*Zer da madarikatzea.*

Nork bere buruari edo beste iñori gaitzen bat opa izatea da madarikatzea, «Bertan ilko al aiz» esatea bezela.

## Gaizpidea

*Zer da gaizpidea?*

Obenera garamatzian edozein itz edo egite txar da gazpidea.

*Zein da gaizpide guztietan, Jesukristok gaien gaitzesten duana?*

Umeai emandako gaizpidea da gaizpide guztietan Jesukristo'k geien gaitzesten duana.

*Bai al-dega, iñori eman diogun gaizpidea kendu beaŕik.*

Bai jauna, ba'degu iñori eman diogun gaizpidea kendu beaŕa, eta bear aundia gañera, gaizpidea aundia bada.

## V I

*Zein da Jaungoikoaren Legeko seigaŕen agindua?*

Jaungoikoaren Legeko seigaŕen agindua «Aragikeririk ez egitea» da.

*Zer agintzen digu seigaŕen aginduak?*

Ditugun gogapen, itz eta egiteetan garbiak eta kutsu gabeak izateko, agintzen digu seigaŕen aginduak.

*Zer debekatzen digu seigaŕen aginduak?*

Gogapen, itz-egite, begiratze, irakurtze ta jolasketa lizun eta itsusiak debekatzen dizkigu seigaŕen aginduak.

*Zer bear da aragikerietatik iges egiteko?*

Erorbideetatik uŕuti ibiĺi, otoitzean jardun, Sakramentuak maiz artu ta Andre Maria Birjiñari jaiera aundia izan bear da aragikerietatik iges egiteko.

## V I I

*Zein da Jaungoikoaren Legeko zazpigaŕen agindua?*

Jaungoikoaren Legeko zazpigaŕen agindua, «Ez ostutzea» da.

*Zer agintzen digu zazpigaŕen aginduak?*

Iñori bere gauzarik ez kentzeko, ta bere jabeak nai ez duala besterenik ez eukitzeko, agintzen digu zazpigaŕen aginduak.

*Zer debekatzen digu zazpigaŕen aginduak?*

Iñori bere ondasunetan kalte egitea debekatzen digu zazpigaŕen aginduak.

*Eta iñori bere gauzen bat kendu, naiz ondasunetan kalte egiten diotenak, zertara daude beartuak?*

Kendutakoak beŕiz jabeari biurtzera ta egindako kalte guztiak lenbailen ordaintzera daude beartuak, iñori bere ondasunetan kalte egiten diotenak.

## VIII

*Zein da Jaungoikoaren Legeko zortzigaŕen agindua?*

Jaungoikoaren Legeko zortzigaŕen agindua auxe da: «Gezuŕezko testigutza ez egin eta gezuŕik ez esatea».

*Zer agintzen digu zortzigaŕen aginduak?*

Bear dan garaian eta tokian egia esateko, ta lagun urkoaren egiteak, al dan guz-

tian ontzat artzeko agintzen digu zortzigaŕen aginduak.

*Zer debekatzen digu zortzigaŕen aginduak?*

Gezuŕezko testigutza egitea, iñor gezuŕetan salatzea, maxeatzea, ixilkaiak zabaltzea, eŕezegi iñor gaizto egitea ta gezuŕa esatea, debekatzen digu zortzigaŕen aginduak.

*Zer da gezuŕa esatea?*

Sinistarazi naiaz, ala ez dana, jakiñaren gañean iñori esatea, da gezuŕa esatea.

*—Zeri deritzaio gezuŕezko testigutza?*

Auzitegian testigu batek esandako gezuŕari deritzaio gezuŕezko testigutza.

*Zer da gezuŕetan salatzea?*

Ez daukan akatz edo egin ez duan gaizkiren bat norbaiti ezartzea, da gezuŕetan salatzea.

*Zer da maxeatzea?*

Lagun urkoaren utsune ta utsegiteak beaŕikan gabe zabaltzea da maxeatzea.

*Zer da, eŕezegi iñor gaizto egitea?*

Artarako biderik eman gabe, lagun urkoaren egiteak gaiztotzat artzea, da eŕezegi iñor gaizto egitea.

*Besteri kendutako izen ona beřiz biurtzera beartuak al gaude?*

Besteri kendutako izen ona beřiz biurtzera beartuak gaude, bai gezuřetan salatu degunean, baita ixilikako bere gaizkiren bat, naiz egia izan, zabaldu degunean ere.

## IX

*Zein da Jaungoikoaren Legeko bederatzigařen agindua?*

Jaungoikoaren Legeko bederatzigařen agindua auxe da: «Besteren senar edo emazterik ez nai izatea».

*Zer debekatzen digu bederatzigařen aginduak?*

Gurari itsusi guztiak debebatzen dizkigu bederatzigařen aginduak.

## X

*Zein da Jaungoikoaren Legeko amargařen agindua?*

Jaungoikoaren Legeko amargařen agindua auxe da: «Oker-bidez besteren ondasunik ez nai izatea».

*Zer debekatzen digu amargaŕen aginduak?*

Bidegabezko aberastu-naia debekatzen digu amargaŕen aginduak.



# Ama Eliza Donearen Aginduak

*Nundik du Elizak bere aginduak jaŕi ta aldatzeko eskua.*

Jesukristogandik du Elizak bere aginduak jaŕi ta aldatzeko eskua.

*Zertarako dira Ama Eliza Donearen aginduak?*

Jaungoikoaren Legekoak obeto betetzeko dira Ama Eliza Donearen Aginduak.

## I

*Zein da Elizaren lenengo agindua?*

Elizaren lenengo agindua auxe da: «Igande ta Jai-egunetan meza osoa entzutea».

*Nor daude Meza entzutera beartuak?*

Ezaguera duten kristau guztiak, zazpi urte betezkero, daude Meza entzutera beartuak.

*Nola entzun bear da Meza?*

Meza ari dan tokian, gauza onen bati adi ta arduraz egonaz, esate baterako naiz gogoz, naiz aoz otoitz egiñaz, entzun bear da Meza.

*Igande ta jai-egunetan Mezarik entzuten ez duanak, oben astuna egiten al du?*

Al dezakela, Igande ta Jai egunetan Mezarik entzuten ez duanak, oben astuna egiten du.

*Igandeaz beste zein jaietan degu Meza entzun beaŕa?*

Igandeaz beste, Urtebeŕi, Iru Eŕege, Zeruetara Igotze, «Corpus Christi», ta Egueŕi-egunean; eta Abuztuko Andre Mari ta Sortze Garbi-egunean; eta San Jose, San Pedro, Santiago ta Santu guztien egunean; eta oietaz gañera, Araba'n Prudentzio Donearen egunean eta Bizkaia'n ta Gipuzkoa'n Iñazio Donearenean degu Meza entzun beaŕa.

## II

*Zein da Elizaren bigaŕen agindua?*

Elizaren bigaŕen agindua auxe da. «Aitorketa, urtean bein gutxienez egitea eta oŕezaz gañera iltzeko aŕiskuan gaudenean, eta Jaunartu baño len, baldin oben astunean ḃa-gaude.

## III

*Zein da Elizaren irugaŕen agindua?*

Elizaren irugaŕen agindua auxe da: «Pazko-aldian gutxienez Jaunartzea».

*Eta noŕtzuk daude Jaunartzea ta Aitorketa egitera beartuak?*

Ezaguera duten kristau guztiak daude Jaunartzea ta Aitorketa egitera beartuak.

*Eta Jaunartzea, ta Aitorketa bear bezela egiten ez dituanak betetzen al ditu Elizaren bi ta irugaŕen aginduak?*

Jaunartzea ta Aitorketa bear bezela egiten ez dituanak ez du Elizaren bi ta irugaŕen agindurik betetzen; eta bi gauza oiek gaizki egiñaz donauste bi egiten ditu.

*Zer egin bear du iltzeko ar̃iskuan dagon kristauak?*

Iltzeko ar̃iskuan dagon kristauak aitortu ta Jaunartu egin bear du.

## IV

*Zein da Elizaren laugar̃en agindua?*

Elizaren laugar̃en agindua auxe da: Ama Eliza Doneak agintzen duanetan aragiuzte ta barau egitea.

*Barau, nola egiten da?*

Egunean bein bakar̃ik janaz, egiten da barau.

*Barau-eguneko goiz-ar̃atsetan, ezer artu al diteke?*

Barau-eguneko goiz-ar̃atsetan, kristau zintzoak oi dutena artu diteke, zalantz eta ezjakiñaldietan apaizari galde egiñ-eta.

*Nastu al diteke aragia ta ar̃aia barau-egunetan?*

Bai jauna, nastu diteke aragia ta ar̃aia barau utsa dan egunetan.

*Nortzuk daude barau-egiteko beartuak?*

Ogei ta bat urte bete ta irurogeitan sar-

tu ez diranak, daude barau-egiteko beartuak.

*Eta nolanaiko aitzakiagatik barautzen ez dutenak nolako obena egiten dute?*

Nolanaiko aitzakiagatik barautzen ez dutenak, egun bakoitzeko oben astun bat egiten dute.

*Zer debekatzen du aragi-uzteko aginduak?*

Aragi-uzteko aginduak, aragia ta aragisalda artzea debekatzen du; ez ordea ařaultzak, esnekiak eta koipetan egindako jakiak.

*Nortzuk daude aragia uzteko beartuak?*

Zazpi urtetatik gorako ezagueradun kristauak, daude aragia uzteko beartuak.

*Nolako obena egiten dute aragia uzt ko agindua austen dutenak?*

Aragi-uzteko agindua austen dutenak, oben astuna egiten dute agindu ori egunaren buruan austen duten bakoitzean.

## Bulda Santua

*Bai al da Españian, egun batzuetan, aragi-uzte ta barau egin beařa kentzen duan lege berezirik?*

Bada Españian, aragi-uzte ta barau egin beaŕa egun jakiñetan kentzen duan lege berezi bat: Gurutze eta Aragi-bulda.

*Zein egun dira buldadunentzat aragia uztekoak?*

Garizumako ta Tenporetako ostiralak; Pentekoste-ta Abuztuko Andre Maria'ren auŕeko eguna, eta Gabon-auŕeko larunbata dira buldadunentzat aragia uzteko egunak.

*Eta zein egun dira buldarik ez dutenentzat aragia uztekoak?*

Urte guztiko ostiralak; Austeŕe-eguna; Garizumako larunbatak; Tenporetako asteazken eta larunbatak; eta Pentekoste, Abuztuko Andre Maria, Santu guzti-ta Eguaŕietako auŕeko eguna, dira buldarik ez dutenentzat aragia uztekoak.

*Zein egun dira buldadunentzat barau-egitekoak?*

Garizumako asteazken, ostiral eta larunbatak; Penteskote ta Abuztuko Andre Maria'ren auŕeko egunak, eta Gabon-auŕeko larunbata, dira buldadunentzat berau egiteko egunak.

*Eta zein egun dira buldarik ez dutenentzat barau egitekoak?*

Igandeak ez beste, Garizumako egun guztiak: Tenporetako asteazken, ostiral eta larunbatak; eta Pentekoste, Abuztuko Andre Maria, Santu guzti-ta Eguaŕietako auŕeko eguna dira buldarik ez dutenentzat barau egitekoak.

*Igande ta jaiegunetan aragi-uzte ta barau egin beaŕik bai-alda?*

Igande ta jaiegunetan ez da aragi-uzte ta barau egin beaŕik, ez eta Larunbat-Santu egunean ere eguerdiazkero.

*Zer artu dezakete barau-eguneko gosari ta apari-ariñean Bulda oiek dituztenak?*

Aragi, eta aragi-salda ez beste edozein janari artu dezakete barau-eguneko gosari ta apari-ariñean Bulda oiek dituztenak.

*Zer egin bear da berarizko eskubide oien jabe izateko?*

Gurutze eta Aragi bulda artu, eta oŕetarako oi dan limosna eman bear da berarizko eskubide oien jabe izateko.

*Beartsuak artu bear al dituzte Buldak, eskubide oiek iristeko?*

Beartsuak ez dute aitatutako Bulda oiek artu beaŕik, aragi-uzte ta barauai dagozkien eskubideak iristeko.

*Zertarako da Buldadunak uzten duten ugitxo edo limosna?*

Beaŕean dauden Eliza, Seminario, Gaxotegi ta Beartsutegiai laguntzeko izaten da buldadunak uzten duten ugitxo edo limosna.

**Amaŕenak eta asikiñak: Eliz-dirua**

*Zein da Elizaren boskaŕen agindua?*

Elizaren boskaŕen agindua, auxe da: Oi danez amaŕenak eta asikiñak Elizari ematea.

*Zer agintzen digu Elizaren boskaŕen aginduak?*

Elizkizunetarako ta elizgizonen bizibiderako bear dan laguntza emateko, agintzen digu Elizaren boskaŕen aginduak.

*Nundik dakigu elizkizunetarako ta elizgizonen bizibiderako laguntza eman beaŕa deguna?*

Liburu Doneetatik eta Elizaren Araudi-tik eta gizabide jatoŕak berak dionetik da-

kigu elizkizunetarako ta elizgizonen bizibiderako laguntza eman beaŕa deguna.

*Beti izan al-degu katolikuok elizkizunetarako ta elizgizonentzako laguntza eman bear au?*

Bai jauna, katolikuok beti izan degu elizkizunetarako ta elizgizonentzako laguntza eman bear au, bañan ematea bera ez da beti berdin egin izan.

*Nola eman bear degu orain elizkizunetarako ta elizgizonentzako zor degun laguntza?*

«Eliz-dirua» izena duan Eliz-lantegiaren bitartez eman bear degu orain elizkizunetarako ta elizgizonentzako zor degun laguntza.

*Zenbat eman bear degu bakoitzak «Eliz-diru»'tarako?*

Degun eta dezakegunaren neuŕiz dagokiguna, eman bear degu bakoitzak «Eleiz-diru»'tarako.

## Eŕuki-egintzak

*Zertarako dira eŕuki-egintzak?*

Gure lagun urkoai anima ta gorputza-

rekiko bearetan laguntzeko, dira eruki-egintzak.

*Zein dira animarekiko eruki-egintzak?*

Animarekiko eruki-egintzak oek dira:

Lenengoa, ez dakianari erakustea;

Bigarena, bearean dagonari burubide onak ematea;

Irugarena, oker dagonari ondo erakustea;

Laugarena, gaizki egiñak barkatzea;

Boskarena, naigabetuak poztea;

Seigarena, lagun urkoaren utsegiteak asare gabe eramatea;

Zazpigarena bizi ta ilen alde Jaungoikoari otoitz egitea.

*Zein dira gorputzarekiko eruki-egintzak?*

Gorputzarekiko eruki egintzak oiek dira:

Lenengoa, eri daudenak ikustera joatea;

Bigarena, gose diranai jaten ematea;

Irugarena, egari diranai edaten ematea;

Laugarena, giltzapean daudenak ikustera joatea;

Boskarena, jantzirik ez duana jaztea;

Seigarena, bidezti ai ostatua ematea;

Zazpigaŕena, il̄ai luŕa ematea.

*Eta Eŕuki-egintza oiek, noiz dira beaŕezkoak?*

Geide edo lagun urkoaren estualdi aundietan, dira beaŕezkoak eŕuki egintzak.

tokiko beserean [illegible] egiteak.

*Zein dira animarekiko erruki-egintzak?*

Lenengoa, [illegible]

Bigarrena, beartuan dagoenari [illegible] onak ematea;

Irugarrena, akar dagonari [illegible]tea;

Laugarrena, gaizki eginak barkatzea;

Bostgarrena, naigabetuak poztea;

Seigarrena, lagun urkoaren utsegiteak [illegible] gabe eramatea;

Zazpigarrena, bizi ta ilen aide [illegible] otoitz egitea.

*Zein dira [illegible] egintzak?*

Gorputzarekiko [illegible] egintzak oiek dira:

Lenengoa, eri daudenak ikustera joatea;

Bigarrena, gose diranai jaten ematea;

Irugarrena, egarri diranai edaten ematea;

Laugarrena, [illegible] daudenak ikustera joatea;

Bosgarrena, jantziak ez duenai jaztea;

Seigarrena, bidezkoai ostatua ematea;

# EGITEKOAK

## Barkapena Jaungoikoagandik

«Bataiatu ezkero egindako obenak barkatzeko da Aitortza edo Konpesioa deritzan Sakramentua», Kristau-Ikasbideak dion bezela.

Bere ikasle eta bidaliei ta ayen bidez Eliz Amaren apaiz guziei eman zien Jesukristok obenak barkatzeko almena edo eskubide aŕigaŕia: *Ogenak asketsiko dizkizuetenei, asketsiak izango zaizkie; ta lotuko dizkizuetenei loturik gelditatuko zaizkie.* (Jo, 20, 22.)

*Zuek luŕean lotua, zeruan ere lotua izango da; ta zuek luŕean askatua zeruan ere askatua izango da.* (Mat. 18, 18.)

Kristauak lotutzen gaituten lokaŕi oiek, askotarikoak dira; baña batez ere *ogen laŕi* edo *pekatu mortalaren* lokaŕi gogor itxusiak; ta *konpesore* edo *aitor-entzuleak* aitortza ondoren ematen duan *askespena* edo *absoluzioa* lokaŕi oyek askatzea da; baldin aitortza bear bezelakoa izan bada.

*Gure betiko osasunerako, gaizkietan erori ondoren Aitortza Sakramentu au, batayatu ez diranentzat batayoa bezin beaŕezkoa zaigu.* Ala erakusten digu *Trentoko Eliz-Batzaŕak.* (Ses. VI, 2.)

## Aitortzaren gaya

Ez da lanbide zaila aitortza ondo egitea. Zuk egingo dezuna on-

do egiña izan dedin, irakuŕi, ta egin esatera noakizuna.

*Pekatu mortala (ogen astuna edo ogen laŕia)* da gaitzik aundiena, Jainkoari egiten zayon txarkeria dalako; Jaungoikoaren etsai biurtzen gaitu; animaren goi-esker ta zuritasuna kendu egiten dizkigu: betiko zoriona galdu-eragin, ta gaiztokira edo inpernura garama. Gañera kezka ta samintasunez betetzen gaitu ta iñoiz, batez ere oitu ezkero, oben astunak bizitza ontan bertan zorigaitz asko ekaŕi oi dute.

*Pekatu benialak (oben ariñak)* ez du oŕenbesteko kalterik egiten; baña txar-txaŕa ta itxusia da, Jainkoari egiten zayon txarkeria (naiz txikia izan) dalako, eta gaiztakeri laŕirako bidean ipintzen gaituelako. *Oben laŕia* animaren eriotza da, *oben ariña* gogoaren eria, gaitza. *Astuna* aitortza ona egiñaz

barkatzen da; baita maite-damuz ere; baña maite damuak, aitortzeko asmoa beregan bear du, gaiztakeria barkatuko badu.

*Oben ariña* era askotan barkatzen da; aitortza, Jaunartze, ur onetsiaren bidez eta abar.

*Pekatuak astuna* edo lařia izateko iru auek bear ditu: 1'go. pekatu gaya edo egiten dan okeřa astuna izan edo beintzat astuntzat euki 2'en, argiro jakin, egitera goazena txar-txařa, oben astuna dala; 3'en, jabetasun osoa euki; au da, egiten dana egin edo ez egiteko nork bere jabe izan bear du. Iru baldintz oetatik batek uts egin ezkero, ogena ez da lařia. Ořegatik ez jakiñean, nai ez-ta, ez da ogenik egiten; ez da lo edo ametsetan, erdi lotan edo erdi ametsetan ere.

Baña bein edo beste ez jakitea bera ogen izan diteke.



# Aitortzarako egin beaŕak

## Aitortza auŕean

Oarpen auek begien auŕean dituzula, gertu zaite aitortza on-on bat egiteko. Belauniko edo beñepein, gure Jaunaren iduri baten auŕean eskatu Berari aitortza ona egiteko laguntza; edozertarako auŕen auŕenetik Jainkoaren eskeŕa bear degu ta.

## OTOITZA

Jainko guztialdun ta betiraunkoŕa! Barkatu damutu ta gauden guzioi.

Zure auŕean eske gaudenentzat biotz-bera izan zaite; eta zure izen deunari apal apal agur egiten diogunoi sendagai osasungaŕi izango zaigun goi-eskeŕa emaiguzu. Gure gaiztakeriak ikusten dituzun bezela aitortu nai ditugu; auspez negar egin nai degu zu naigabetu zaitugulako; ta gogoz eta apalki eskatzen dizugu Zure eŕukia. Zure izenagatik iguzu Jauna, aitortzako sakramentu bidez gure ogenen barkamen eske gatozen guziok, animako osasuna iritxi dezagula; Kristo gure Jaunagatik. Alaxe. (Nai badezu esan Jesukristo nere Jaun).

## Aitortza egitean

Aitortza ondo egiteko bost gauza: *azterketa*, *biotz-damua*, *ontzeko asmoa*, *aitorketa ta gaizki egiñen ordaña*, bear dira.




# Azterketa edo esamiña

Jainkoari artarako laguntza eskatuta, «oraindik aitortu ez diran obenak, gogora eskartzen saiatzea da azterketa edo esamiña». (Kristau-Ikasbidea).

Lanbide au ez da nekeza, egiz aitortza on bat egin nai duanarentzako. Arazo ontan, egin ezazu beste arazoetan, esate baterako, galdu zaitzun gauza bat arkitu nai dezunean, egiten dezuna. Zure ibilerak burura ekartzen dituzu, nora joan, ze lanetan ari ta

norekin egon zeran; egikizun eta ibilerak gogoratu-ta bazter guztiak aztertu egin dituzu txanpon edo dirutxoaren bila. Bear bada argiak ere piztu egiten dituzu. Egin ba, orixe bera, zure gogo eta biotz bar̃enak aztertzeko, ta Jaunak aitortzarako egitea nai duan azterpena ondo egingo dezu.

Or̃etarako laguntza nai badezu, irakur̃i azterpena ondo eta er̃ez egiteko galderak, Jaunaren agindu arauz.

## Galderak

Lenagoko aitortzan pekatu lar̃iren bat lotsaz ala aaztuta utzi al dezu esan gabe?

Zenbat egun ilabete, urte igaro dira orain ur̃en aitortza egin zenduanetik?

Loyolako Argi Izpiak

# Jaungoikoaren lege-ko aginduak

## I

### Jainkoa maiteen izatea

Zeruratzeko ta zure egin-beaŕak betetzeko jakin bear dezuna ba-al dakizu?

Eliz Ama Katolikoak erakusten ditun egi guztiak siñisten al dituzu?

Kristau Ikasbide edo Dotriña bai al dakizu?

Luzaro egon al zera otoitzik

egin gabe, *Aita gurea...* ta *Kredoa* esan gabe?

Otoitz auek zer esaten duten ondo begiratuz, esan bear dira. Onela esan al dituzu?

Iñoiz esan al dezu Jainkoak zure ardurarik ez daukala edo zutaz ez dala oroitzen?

Jainkoagan euki bear degun itxaropena edo uste ona galdu al dezu?

Jainkoaren ordez dauden eliz gizonai lotsa galdu al diezu? Kalterik egin? Gaizki esaka jardun?

Aztikeri eta sorginkerietan siñistu al dezu?

Idazti, liburu edo paper txaŕik irakuŕi? Erosi, saldu, euki al dezu?

Katoliko ez diran izpeŕingi (periodikoei) laguntzen al diezu? Txanponik eman? Irakuŕi?

Ze esango dutenaren bilduŕez, Elizara, Jaunartzera eta beste eginkizun onetara joan gabe gelditu al zera?

## II

## Jainkoaren izena alperik aotan ez artzea

Biraurik esan al dezu? Zeñi ezari diezu? Santuen bati?

Birau antzeko itz zikiñik esan al dezu?

Jainkoari egindako eskeintzaren bat, al izan da, bete gabe utzi al dezu?

Ziñ edo juramentu egin al dezu? Nola?

## III

## Jai egunak jai egitea

Mezarik uts egin al dezu? Edo mezetara apaizak Kredoa esan da gero iritxi al zera?

Meza-garayan beste gauzetan

burua dezula egon al zera zure gogoz?

Ordu bitik gora lan egin edo eragin al dezu beařikan gabe?

Elizkizunetara joateko, edo Elizan egiten diran erakusaldiak entzun eta aditzeko zabar izan al zera?

Elizan beřiketan egon al zera?

Jai egunak etsaiari eman al dizkiozu?

IV

## Gurasoak aintzat eukitzea

Gurasoen aginduak zuzen egin al dituzu?

Gurasoai lotsagabekeririk esan ala egin al diezu? Arpegi iluna ipiñi?

Gurasoen azken naia zearo egin al dezu?

Bear izan dutenean lagundu al diezu?

Zure irabaziak eman al dizkiezu zure gurasoai?

Agindutakoan eta agindutako eran lan egin al dezu?

Senideak alkaŕekin asaŕe aundirik izan al dezute?

Alkaŕen gaiztakeriak gurasoai estali al dizkiezute?

*Nagusi eta Agintari bazera:* Lege zuzenak bete eta bete eragin al dituzu?

Oker edo gaiztoai dagozkien zigorkadak eman al dizkiezu?

Beartsuai lagundu?

Birau zaleak ixilduerazi, lapuŕeta, loikeri ta beste gañeretako oker bideak etxetik edo eŕitik aldendu al dituzu?

Gogoŕak edo astunak dira gai auetan nagusi eta agintarien egin beaŕak.

*Mirabe eta menpekoak:* Ardura gabea izan al zera etxeko lanetan?

Lanik egin gake egon al zera?

*Guztientzat:* Bakoitzat bere egin-beařak ondo begira bitza len irakuři ditun **Jakingaietan** eta ikusi nola betetzen dituan.

*Auteskunde edo botoetan:* Aita Santuak nai duan bezela Eliza eta Eřiaren alde geyen lan egingo dutenai eman al diezu zure botoa?

Katoliko on batek nori botoa eman bear dion ez badakizu, galdetu Gogo-zuzendari on eta argi bati.

V

## Iñor ez iltzea

Iñori gaitzik egin al diozu zauritu eta joaz?

Itzez kalte egin al diozu norbaiti?

Naigabe batzuk etoři zaizkizula-ta, zure buruari edo norbaiti eriotza edo gaitz aundirik opa izan al diozu?

Gaitz egiterano jan ala edan al dezu?

Zure buruaren kaltetan beranduegi etxeratu izan al zera?

Ezaguera galdu eragin al diozu iñori?

Iñori gaitzik egin al diozu pekaturako bidea erakutsita, itzez, idazti txaŕez eta abar?

Goŕotorik euki izan al diozu iñori?

Iñori ukatu al diozu barkapena?

## VI

## Aragikeririk ez egitea

Lizunkeririk egin al dezu? Atsegin txaŕik artu al dezu? Bakaŕik? Lagunarekin? Kristau ez danarekin?

Izenik esan gabe argi ta garbi aitortu apaizari, Jainkoari bezela-

xe gai ontan daukazun guzi guzia.

Egunean, astean, ilean zenbat aldiz egin dituzu onelako loikeriak?

Aitortu, gertatu zaizkizun argalkeri ta erori guztiak.

Esatez, ikustez, egitez, ukitzez erori al zera loikerietan?

Dantza lotu nastuetan ibili al zera? Erorpide eŕez eta nazkagaŕiak daude jolas eta ibilera oyetan. Gogora ekaŕi Luistar izateak zer ezkatzen dizun. Berdin Maria'ren alaba izateak Maria'ren alabai. Eta kristau on izan beaŕak edozeñi.

Oŕelako pekatu itsusietan erortzeko toki, bide edo zorian al zaude?

Biñaka eta izkutuko ibilerarik izan al dezute?

Berandu etxeratzeko oitura al daukazu?

# VII

## Ez ostutzea

Ezer kendu al diozu iñori, berak nai ez duala? Gauza aundirik?

Kalterik egin al diozu iñori bere ondasunetan?

Saldu-erosietan bidegabekeriak egin al dituzu? Gauza onakin txaŕak nastu eta ona bezela saldu? Emateko neuŕi txikiak erabili?

Jokuetan tranpaz irabazi?

Zoŕai, bear bezela, erantzun al diezu?

Egindako kalteak ordaindu al dituzu?

Artu-emanetan eskuak garbi erabili?

## VIII

### Gezuŕez azko testigutzarik ez egin eta gezuŕik ez esatea

Iñori kalterik egin al diozu gezuŕak esanaz?

Gezuŕezko gaizki astunik ezaŕi al diozu iñori?

Iñoren uts-egite ezkuturik, bear gabe, agertu al dezu?

Iñoren ezkutitza iriki ala irakuŕi al dezu, jabeak nai ez dula?

Esa-mesak erabili al dituzu?

Iñoren utsegiteak geitu? Edo atsegiñez entzun?

Gezuŕezko teztigutzarik egin?

## IX

### Besteren senar edo emazterik ez nai izatea

Asmo zikiñik izan al dezu bete ez aŕen?

Gogapen txaŕak erabiĺi al ditu-
zu, jakiñaren gañean?

X

## Oker bidez besteren ondasunik ez nai izatea

Iñori bere ondasunik ostu edo kentzeko asmorik euki al dezu?

Lapuŕetako gogoai lekurik eman?

Bide txaŕez aberastu nai izan?



VIII

**Gezuŕez azko testigutzarik ez egin eta gezuŕik ez esatea**

Iñori kalterik [illegible] gezuŕak esanaz.

Gezuŕezko gaizki esatenik [illegible] al diozu iñori?

Iñoren [illegible] ezkuturik, bear gabe, agertu al dezu?

Iñoren [illegible] iraki eta [illegible] al dezu jabeak nai ez dualarik?

Esa-mesak erabili al dituzu?

Iñoren [illegible] gezuŕ? Edo [illegible]?

Gezuŕezko testigutzarik egin?

**Besteren senar edo emazterik ez nai izatea**

Asmo zikiñik izan al dezu bete [illegible] aren?



# Elizaren aginduetatik

Igande eta Jai-egunetan meza osoa entzun al dezu? Jakin oŕetarako, ze egunetan daukazun meza entzun beaŕa.

Urtean bein gutxienez aitortu al dituzu zure gaiztakeriak? Ondo ala gaizki?

Ogenean zaudela, aitortu gabe, Sakramenturen bat artu al dezu?

Gaizki dauden gaxoai. iltzeko zorira baño len adierazi bear zaye aitortza egiteko daukaten beaŕa.

Pazko-garayan Jauna artu al dezu? Ondo?

Barau egin al dezu al dezularik? Aragi-uzteko egunetan aragirik jan al dezu? Jakiñaren gañean?

Eŕiko Elizari, eleiz-gizon eta beste eleizako gauz onetarako ematen al dezu zerbait? (Ikusi Jaungoikoaren auŕean zenbat dezakezun, eta eman).

Gauza on oiek elizkoyen laguntza beste laguntzik ez daukate, eta laguntzera beartuta gaude.



# Biotz damua

Zure baŕena aztertuta arkitu dituzun uts-egite, txarkeri, oker eta ogenak begien auŕean dituzula sayatu zaite egiazko damutasuna zure biotzean sortzen.

*Damu edo garbaia* «egindako obenen goŕotoa, ta geyago ez egiteko asmoa aŕerazten digun biotz samintasuna da».

Bi eratakoa da biotz damu ori, edo argiro esateko: Bi aldetik etoŕi litzaiguke damu ori: *Jaunaren maitetasunetik* eta pekatu egiñarekin irabazi degun zigorkadaren belduŕetik. Lenengoa *maite-da-*

*mua da;* bigaŕena beŕiz *beldurdamua;* lenengoaren sustraya maitetasuna da; bigaŕenarena izua edo bilduŕa.

Bildur izateko da ogen laŕia egin duanaren egoera; zerurako eskubidea galduta, su-leizeko su-gar eta oñazeak irabazi bait ditu; gañera bere burua, lotsagaŕi biurturik, etsayaren menpean ipiñi du. Beldur onek dakaŕen biotz-samintasunak ogenak goŕotatu eta besterik ez egiteko asmoa artu eragin badio, damu ori *beldureezko* edo *beldur-damua* da.

Baño baŕurago sartu nai izan ezkero, gure gaiztakerietan beste zer edo zer badago. Zer egin degu pekatu egitean? Jainko gure Jauna naigabetu; berak nai zuena egiñ ez. Zitalkeri aundia! Gure Jaun eta Jabea, gure Egilea, gure Eros-le eta gure Aita atsekabez bete! Onela Jainkoa naigabetu izanak

dakaŕen biotz-samintasunak, Jaungoikoari miñ emanaren miñak pekatua goŕotatu, eta geyago Jauna ez naigabetzeko asmoa artu eragiten badigu, damutasun oneri maite-damua, deituko diogu, Jainkoaren maitetasunetik datorkigulako,

*Maite-damuak* aitortu baño len (aitortzeko asmoa berekin bait darama) kentzen ditu gugandik ogen eta pekatuak eta Jaunaren adiskidetasunera biurtzen gaitu.

*Beldur-damuak* ez digu, aitortu baño len, onelako ondasunik ekartzen; baña bai aitortzarekin. Naikoa da beraz bıldur-damua aitoıtzarako.

Dana dala, aıtortza auŕeko biotz damua ez bedi nolabaitekoa izan.

Damu au baŕukoa izan bedi, alegia: gure gogo baŕuan sortua edo esker utsez Jainkoagandik datorkiguna, eta nolabait Jainkoari dagokion ziyoagatik etoŕia,

Gañera damua beste edozein okeŕarena baño aundiago izango da gogoz, ez gorputzeko miñez.

Azkenez biotz-damua guziena izan bedi, au da; bat ere utzi gabe ogen guziak ikutzen dituen damua; guztiak bait dira Jainkoari egindako lotsagabekeriak.




# Asmoa

Egiz damutzen danak samintasuna eta damua besterik ekaŕiko ez dionik ez egiteko asmo sendoa dauka, edo euki bear du beñipein.

Eta auxe da *asmoa*: «Ogenik geyago ez egin eta ogenerako bideetatik alde egiteko erabaki sendoa».

Ona emen esanik asmo onek lenengo eskatzen duana: sendoa izatea, egizkoa, ez gezuŕezkoa.

Ogen guzietara zabaldu beaŕa dauka asmo onek, egizkoa izango

bada. Esan nai degu; ogen bat bakaŕik ere ez egitea, erabaki bear dula asmo sendoa euki nai duanak. Alegia, Jaungoikoa aseŕeraziko duanik ez egiteko gogoa.

Asmoa sendoa izan ezkero baita egikoŕa ere izango da; ez da mingañean geldituko biotz baŕuan sartuko da.

Auek ikusi ta asi gaitezen ikasi deguna egiten.

*Oŕetarako egoki egokia da gure Kristau-Ikasbidean daukagun Maite damua egiteko otoitza.*

*Jesukristo nere Jaun Jaungoiko ta gizon egiazko, nere egiḹe eta salbatzaḹe ori; zerana zeralako eta gauza guziak baño maiteago zaitudalako, damu det biotz biotzez, damu det Zu naigabetua; asmo sendoa artzen det ez geyago pekaturik egiteko, pekaturako bide guziak utzi, aitortu eta oben nekea betetzeko. Amen.*



# Ao Aitorketa

Otoitz au belauniko Jaunaren auŕean, edo etxe baŕuan, Jesus gurutziltzatuaren irudi auŕean egin da, joan zaiteke aitorketa egitera.

Aitortu apaiz jaunari ogen astun guziak, beren ogen-nekea betetzeko asmoz, gezuŕik gabe, eta gogoan dauzkazun bezela. Damuturik, baña beldur gabe, esan eta aitortu dana, dan bezela. Jaunak apaizaren bidez ogenen lokaŕi gogor eta itsusiak askatuko dizkizu ta.

Ezer ez utzi lotsaz. Iñork lotsaz pekatu lar̃iren bat esan gabe utzi badu, ezaizkio esandakoak ere barkatuko, eta ondorengo aitortzak, lotsaz utzitako pekatu ura bear bezela aitortu arte, gaizki egiñak dira Zorakeri aundia da, lotsaz pekatuak esan gabe uztea. Aitor entzuleak ondo artuko zaitu; naiz aundi eta itxusiak izan, zure iritziz, zure ogenak. Aundi eta itxusiagoak ere entzun bearko ditu! Orain zure bar̃uan, ixilik ezkutatzen badituzu, irtengo dira gero, guzti guztien aur̃era. Ez ar̃en, zure burua beti betiko ondamendira amildu, lotsaz pekatuak ixiltzearekin.

Zure aur̃etik dagona aitortzen ari dan bitartean, esan:

## Ni pekataria...

Aitortzeko aldia eldu eta apaizarenganatzean esan:

*Agur Maria* ta erantzungo dizu *Guziz garbia*.

Aitortza ondoren belauniko gelditu «Jesukristo nere Jauna» esanaz, askespena artu arte.

## ORDAÑA

Jaiki gero, ta bete ogen nekea edo ordaña, orduan bete baliteke; bestela garaya danean; baña len bait len; ez gerorako utzi.





# Aitortza ondorean

Aundi aundia, guk esan eta asmatu al dezakegun baño aundiago da aitortzan Jaunak egin digun ondasuna. Esan bada eskeŕak emateko:

## OTOITZA

*Gaiztakeriakin asaŕetu eta damutasunarekin adiskidetzen zeran Jaun eta Jaungoikoa: neŕe biotz damutuaren otoitzak eŕukiz entzun itzazu, eta aldendu ezazu nigandik orain arte nik irabazitako zure asaŕearen zigoŕa, Jesukristo nere Jaunagatik. Alaxe.*

## OTOITZA

*Maite zaitutenen onerako gauza guziak biurtzen dakizun Jaun eta Jaungoikoa; iñoiz itzaltzen ez dan zure maitasun-gaŕa, nere biotzean piztu zazu. Zuk eman da artu ditudan nere asmo ta gurariak, iñungo zirikaldiengatik utzi ez ditzadan.*

*Kiskaldu itzazu Espiritu Santuaren maitasunaz gure eŕai eta biotzak gorputz garbi eta biotz zuzendunak izan gaitezen zure mirabetzan.*

*Iñori ere Zugandik alderagin gabe, damuturik dauden guzti-guztietzaz, naiz gaizkil̃eak izan, eŕuki utsez eŕukitzen zeran Jaun eta Jaungoikoa! begi onez begiratu zazu gure eskari apal au, eta argitu gure gogoak zure aginduak bete ditzagun.*

*Gaiztoa ondutzen dakizun, eta pekatarien eriotzarik nai ez dezun nere Jaun eta Jaungoikoa! zure Jaungoikozko jauntasunari, aŕen eskatzen diogu, guk, zure mirabe geran guziok, Zugan gure uste osoa ipintzen degun bezela, zure laguntzak indartu, ta zure babes iraunkoŕak zaitu gaitzala, zure mirabe izan gaitezen eta iñungo zirikaldiak Zugandik aldendu ez gaitzan. Jesukristo gure Jaunagatik. Alaxe.*

*«Aita Gurea».. «Agur Maria».. «Gloria»...*

[illegible]

*tuaren maitasunez gu-* [illegible] *zandunak* [illegible] *betzan.*

*Inori eta* [illegible] *alderaren gabe,* [illegible] *guzi-guztietzaz,* [illegible] *izan, eriki ilesz* [illegible] *Jaun eta Jaungoikoa* [illegible] *begiratu-ta-zu gure eskari apal au, eta orgien gure gogoak zure aginduak bete ditzagun.*

# JAUNARTZEA






*«Nerau nauzute bizitzarako Ogia».*

*(Jo. 6, 35.)*




# Jaungoikoa

*Nor da Jaungoikoa?*

Izan diteken izakirik bikañena, zeru luŕen Egiḻe ta Jabea, onai betiko zoriona ta gaiztoai betiko zoritxaŕa emango dien Jauna da Jaungoikoa.

*Nundik dakigu Jaungoikoa ba'dala?*

Gure ezaguerak erakutsi ta sinismenak baieztendigulako dakigu Jaungoikoa badala.

*Nola erakusten digu gure ezaguerak Jaungoikoa ba'dala?*

Zeru luŕak, beren ibiḻi aŕigaŕi, edertasun eta zati guztien egokitasuna Jaungoiko egiḻerikan gabe ezin izan ditezkela

agertuaz, erakusten digu gure ezaguerak, Jaungoikoa ba'dala.

*Zergatik deritzaio «izakirik bikañena» Jaungoikoari?*

Iñungo bikaintasun guztiak, neuřigabe ditualako, deritzaio «izakirik bikañena» Jaungoikoari.

*Jaungoikoak nola saritzen ditu onak?*

Jaungoikoak zeruetara eramanaz, saritzen ditu onak.

*Jaungoikoak nola zigorkatzen ditu gaiztoak?*

Jaungoikoak inpernura amilduaz zigorkatzen ditu gaiztoak.

*Nun dago Jaungoikoa?*

Toki guztietan dago Jaungoikoa.

*Jaungoikoak dan guztia ikusten al du?*

Bai jauna, Jaungoikoak dan guztia ikusten du, baita gure gogorapenak ere.

*Jaungoikoa beti izan al da?*

Jaungoikoa betikoa da, beti izan da ta baita izango ere.

*Zergatik deritzaio «alguztiduna» Jaungoikoari?*

Bere al utsez nai duan guztia egiten

dualako, deritzaio «alguztiduna» Jaungoikoari.

*Bai al du Jaungoikoak gorputzik guk bezela?*

Jaungoikoa, Jaungoikoa danez, espiritu edo gogo uts-utsa da; ez du gorputzik guk bezela.

*Zeinbat Jaungoiko dira?*

Ez da Jaungoiko bat besterik.

## Irutasuna

*Irutasun edo Trinidade guztiz Santua, nor da?*

Irutasun edo Trinidade guztiz Santua, Jaungoikoa bera da, iru persona banak baña Jaungoiko bakar bat.

*Nola dute izena iru notin edo persona Jaungoikozko oiek?*

Iru notin edo persona Jaungoikozko oiek, Aita, Semea ta Espiritu Santua dute izena.

*Aita Jaungoikoa al da?*

Bai jauna, Aita Jaungoikoa da.

*Semea Jaungoikoa al da?*

Bai jauna, Semea Jaungoikoa da.

*Espiritu Santua Jaungoikoa al da?*

Bai jauna, Espiritu Santua ere Jaungoikoa da.

*Aita ta Semea ta Espiritu San'ua iru Jaungoiko al dira?*

Aita ta Semea ta Espiritu Santua eż dira iru Jaungoiko, irurak egiazko Jaungoiko bakar bat baizik.

*Aita Semea al da?*

Ez jauna, Aita ez da Semea.

*Espiritu Santua Aita edo Semea al da?*

Eż jauna, Espiritu Santua ez da Aita ta ez Semea.

*Zergatik ori?*

Iru persona banak diralako.

*Zer da, beraz, Irutasuna deritzan ezkutukia?*

Jaungoikotasun bakar batean iru notin edo persona izatea da Irutasuna deritzan ezkutukia.



# Jesukristo

*Zein da Jaungoikoak gizonari agindu-dutako Sabaltzal̄ea?*

Jaungoikoak gizonari agindutako Salbatzal̄ea, Jesukristo gure Jauna da.

*Irutasun guztiz Donearen iru persone-tatik zein egin zan gizon?*

Irutasun guztiz Donearen iru persone-tatik bigaŕena, Semea egin zan gizon.

*Aita egin al zan gizon?*

Aita ez zan egin gizon.

*Espiritu Santua egin al zan gizon?*

Espiritu Santua ez zan egin gizon.

*Jaungoikoaren Seme gizon egiñak nola du izena?*

Jaungoikoaren Seme gizon egiñak, Je-sukristo du izena.

*Eta nor da Jesukristo?*

Gu erosi ta guri nola bizi erakustearen gizon egindako, Jaungoikoaren Semea da Jesukristo.

*Zeinbat izakitasun ditu Jesukristok?*

Jesukristok, bi izakitasun ditu: bata Jaungoikozkoa ta gizonezkoa bestea.

*Zeinbat notin edo persona dira Jesukristogan?*

Jesukristogan ez da notin edo persona bakar bat besterik: Irutasun guztiz Donearen bigarena.

*Jesus izenak zer esan nai du?*

Jesus izenak «askatzalea», salbatzalea esan nai du.

*Nola askatu ginduzen Jesusek?*

Gure obenetatik eta inpernuko etsaiaren mendetik aterata askatu ginduzen Jesusek.

*Kristo izenak zer esan nai du?*

Kristo izenak, «igortzia» esan nai du.

*Nola izan zan igortzia Kristo?*

Espiritu Santuaren graziaz ta emaiez izan zan igortzia Kristo.

## Jesukristo'ren sorera ta jaiotza

*Nola egin zan gizon Janngoikoaren Semea?*

Andre Maria'ren sabel garbi-garbian Espiritu Santuaren egitez, gurea bezelako gorputza ta gurea bezelako anima artuaz, egin zan gizon Jaungoikoaren Semea.

*Jaungoikoaren Semeak, gizon egitean, galdu al zuan Jaungoikotasuna?*

Jaungoikoaren Semeak gizon egitean ez zuan galdu Jaungoikotasuna; Jaungoiko izatea galdu gabe egin zan gizon.

*Eta nola jaio zan Jesukristo Andre Maria'gandik?*

Eguzki-argia kristalean batetik bestera, ezer autsi ta zikindu gabe igarotzen dan bezelaxe, jaio zan Jesukristo Andre Maria'gandik: Amaren garbitasuna batere lausotu gabe.

*Jesukristoren Amak beti Birjin iraun al zuan?*

Bai jauna, Jesukristoren Amak bere bizi guztian Birjin iraun zuan.

*Nor da Andre Maria Ama Birjiña?*

Jaungoikoaren Ama dan eta zeruan dagon gure Ama graziaz ta onimenez betea da Andre Maria Ama Birjiña.

*Zergatik deritzaio Jaungoikoaren Ama Andre Maria Birjiñari?*

Bere Seme Jesukristo egiazko Jaungoikoa dalako, deritzaio Jaungoikoaren Ama, Andre Maria Ama Birjiñari.

*Eta Jesukristo gure Jaunak, gizona danez aitarik bai al du?*

Jesukristo gure Jaunak, gizona danez, ez du aitarik; Jaungoikoaren egintza ařigařiz, Ama Birjin garbiagandik jaio zan.

## Jesukristoren bizitza ta erakutsiak

*Nun jaio zan Jesukristo?*

Belen'go estalpe xar batean jaio zan Jesukristo.

*Zer egin zuan Jesukristok ogeitamar urteak arte?*

Nazaret'en, Andre Maria Birjiña ta San Joseren etxean, ixil, beartsu ta lanean bizi izan zan Jesukristo ogeitamar urteak bete arte guztian.

*Zer egin zuan Jesukristok bere azkeneko iru urteetan?*

Ikuskaŕi ta aŕigaŕi asko egiñaz bere erakutsiak zabaldu egin zituan Jesukristok bere azkeneko iru urteetan.

*Jesukristo bera Jaungoikoa, ta bere erakutsiak Jaungoikozkoak dirala siñesterazteko bere egintza aŕigaŕiez gañera, bai al da beste ageririk?*

Bai jauna. Jesukristo bera Jaungoikoa, ta bere erakutsiak Jaungoikozkoak dirala siñesterazteko, Jesukristoren egintza aŕigaŕiez gañera, ba'dira beste ageriak ere.

Lenengoa, Jesukristo gure Jaunagan betetako igarkari ta aldez auŕetiko esanak.

Bigaŕen bere bizitza zuzena.

Irugaŕen, bere erakutsi bikañak.

Laugaŕen, Kristaudiaren zabaltze aŕigaŕia.

Boskaŕen, Martirien eraman aundi ta ausartasuna; ta

Seigaŕen, Santuen onoimen edo birtuteak.

### Jesukristoren Nekaldi, Eriotz eta Obiratzea

*Zer da Erospen-ezkutuki edo misterioa?*

Jesukristoren Nekaldi ta Gurutzeko eri-

otza, da Erospena deritzan ezkutuki edo misterioa.

*Zergatik nai izan zuan Jesukristok Nekaldia igaro ta Gurutzean il?*

Gure pekatuen zoŕak ordaindu ta gu betiko eriotzatik ateratzeaŕen, nai izan zuan Jesukristok, Nekaldia igaro ta Gurutzean il.

*Jesukristoren neke-oñaze guztiak, gu erosteko beaŕezkoak al ziran?*

Ez jauna. Jesukristoren neke-oñaze guztiak ez ziran, gu erosteko beaŕezkoak; aietan txikienak ere ordain-indar mugarik gabea zuan Jaungoikoarentzat.

*Zergatik artu nai izan zituan Jesukristok oŕenbeste neke-oñaze?*

Bere guganako maitasuna ta gure obenen itsuskeria guri obeki erakusteaŕen, artu nai izan zituan Jesukristok ainbeste neke-oñaze.

*Nun ta noiz il zan Jesukristo?*

Jerusalen'en Golgota-mendian, Ostiraldeun aŕatsaldean il zan Jesukristo.

## Jesukristoren Inpernuetara Jeixtea ta Piztutzea

*Zein inpernutara jetxi zan Jesukristo il ondorean?*

Jesukristo il ondorean jetxi zan inpernua zintzoen linboa da, ez gaizto galduen tokia.

*Zertara jetxi zan Jesukristo linbora?*

Bere etoŕeraren zai zeuden Guraso Doneen animak ateratzera, jetxi zan Jesukristo zintzoen linbora.

*Nola jetxi zan Jesukristo zintzoen linbora?*

Bere anima Jaungoikotasunaz batua zuala, jetxi zan Jesukristo zintzoen linbora.

*Nola gelditu zan il ta gero Jesukristoren gorputza?*

Obian, Jaungoikotasunaz batua gelditu zan il ta gero Jesukristoren gorputza.

*Nola piztu zan Jesukristo irugaŕen egunean?*

Bere gorputz eta anima, beŕiz ez iltzeko alkarganatuaz, piztu zan Jesukristo irugaŕen egunean.

*Nola dakigu Jesukristo piztu zala?*

Jesukristo pizturik ikusi ta egi au ukatu baño il naigo izan zuten Apostolu ta gañerako Ikasleak esan da, dakigu Jesukristo piztu zala.

## Jesukristoren zeruetara igotzea ta epaitzerako etoŕera

*Nola igo zan Jesukristo zeruetara?*

Bere al utsez, apostolu ta Ikasle-talde aundi baten auŕean igo zan Jesukristo zeruetara.

*Jesukristo zeruan beste iñon ez al dago?*

Jesukristo gure Jauna Jaungoikoa danez, toki guztietan dago: ta gizona danez, zeruan eta aldareko Sakramentu guztiz Donean.

*Zer esan nai du Aita Jaungoikoaren eskui-aldetik eseririk egoteak?*

Jesukristok, Jaungoikoa danez, Aitak ainbat aintza edo gloria, ta gizona danez beste iñork baño geiago duala esan nai du Aita Jaungoikoaren eskui-aldetik eseririk egoteak.

*Noiz etoŕiko da Jesukristo biziak eta ilak epaitzera?*

Munduaren bukaeran etoriko da Jesukristo biziak eta ilak epaitzera.

*Nola du izena, Jesukristok, munduaren bukaeran gizon guztiak epaituko dituan auzitaldiak?*

Jesukristok, munduaren bukaeran gizon guztiak epaituko dituan auzitaldiak, azken-auzia du izena.

*Eta auzitaldi bat baño geiago izango al da?*

Bi auzitaldi izango dira: bata bakoitzarentzat il ondoren, eta guztientzat munduaren bukaeran bestea.

*Zertarako izango da azken-auzia?*

Guztien aurean gaiztoak lotsatan uzteko, onak txaloz goratzeko ta Jaungoikoaren zuzentasuna guztien gañetik garaitzale agertzeko, izango da azken-auzia.





# Eukaristia

*Zertarako jaŕia da Eukaristia deritzan Sakramentua?*

Bear bezela artuta gure animen janari ta Jaungoikoaren graziaren geigaŕi izan dakigun, jaŕia da Eukaristia deritzan Sakramentua.

*Zer artzen da Eukaristia deritzan Sakramentu guztiz Donean?*

Aldareko Sakramentuan egiaz ta benetan dagon Jesukristo, Jaungoiko ta gizon egiazkoa artzen degu Eukaristia deritzan Sakramentu guztiz Donean.

*Zer dago ostian Mezerdiko itzak esan baño len?*

Ogi pixka bat dago ostian, Mezerdiko itzak esan baño len.

*Zer dago ostian Mezerdiko itzak esan ezkero?*

Jesukristoren gorputza, bere odol, anima, Jaungoitasun ta guzti dago Osti Donean, Mezerdiko itzak esanezkero.

*Zer dago kalizan, Mezerdiko itzak esan baño len?*

Ardo pixka bat ur-tanto batzuekin dago kalizan Mezerdiko itzak esan baño len.

*Zer dago kalizan, Mezerdiko itzak esan ezkero?*

Jesukristoren odola, bere gorputz, anima, Jaungoikotasun ta guzti dago kalizan, Mezerdiko itzak esanezkero.

*Beraz, Mezerdiko itzak esanezkero Jesukristo osorik dago Ostian eta Kalizan?*

Mezerdiko itzak esanezkero, Jesukristo osorik dago osti osoan eta osorik ostipuxka bakoitzean, eta berdin kalizan.

*Orgia ta ardoa, noiz biurtzen dira Jesukristoren gorputz eta odol?*

Apaizak Mezerdiko itzak esanaz batean, biurtzen dira ogia ta ardoa Jesukristoren gorputz eta odol.

*Eta Mezerdiazkero bai al da ostian ogirik eta kalizan ardorik?*

Ez jauna, Mezerdiazkero ez da, ez ostian ogirik, ez kalizan ardorik; ogi ta ardo usaia, gozoa ta gañerako eraskiak baizik.

*Eta Mezerdiazkero kalizan dagona edo ostia, puskatzen bada, puskatzen al da Jesukristo?*

Ez jauna, Mezerdiazkero kalizan dagona edo ostia puskatu aŕen, Jesukristo bera ez da puskatzen; puska guztietan eta bakoitzean osorik gelditzen da.

*Munduko Osti Done guztietan bai al dago Jesukristo?*

Bai jauna, Munduko Osti Done guztietan, antxe dago Jesukristo.




# Jaunartzea

*Nola egon bear du animak bear bezela Eukaristian Jauna artzeko?*

Jaungoikoaren grazian egon bear du animak bear bezela Eukaristian Jauna artzeko.

*Jakiñaren gañean, pekatu astunean Jaunartzea egiten duanak ere, artzen al du Jesukristo?*

Bai jauna, jakiñaren gañean pekatu astunean Jaunartzea egiten duanak ere artzen du Jesukristo; bere kaltean, ordea, oben ikaragaŕi bat egiten bait-du.

*Eta oben astunen bat egiten duanak, bear bezela jaunartzeko, zer egin bear du?*

Oben astunen bat egin duanak, bear

bezela jaunartzeko, aitorketa on bat egin bear du.

*Eta aitorketa egin-ta gero, aztutako oben astunen bat oroitzen zaionak zer egingo du?*

Aitorketa egin-ta gero, aztutako oben astunen bat oroitzen zaionak, oben ura aitortu egin bear du, Jaunartzea baño len edo uŕengo aitorketan, bestela.

*Eta bear bezela Jauna artzeko, nola egon bear du gorputzak?*

Bear bezela Jauna artzeko, pekatu astuna egin nai ez ba-da, gorputzak baraurik egon bear du, gaberditik eta Jaunartze arte ezertxo ere jan eta edan gabe.

*Elizakoak egitean, baraurik egon ez aŕen, Jauna artu al diteke?*

Bai jauna, Elizakoak egitean, baraurik egon ez aŕen, Jauna artu diteke.

*On al da maiz Jauna artzea?*

Bai jauna, oso on da saŕitan Jauna artzea.

*Zer bear da maiz ta egunero jaunartzeko?*

Maiz ta egunero jaunartzeko bi gauza bear dira; Jaungoikoaren grazian egon eta asmo zuzenez jaunartu.



# EGITEKOAK

## Zeruko ogia gure biotzetan artzeko gogaiak

### Jesus'en adiskidetasuna

(Kristo'ren Antz-bidetik)

Jesus gurekin dagoanean, eŕez da guzia, ta exertxo ere ez da zail; baña Jesus gurekin ez badago, dana da zail.

Jesus gabe ludi guziak zer ekaŕi al dizaizuke?

Jesus gabe egotea zorigaitzik gogoŕena da, Jesus'ekin egotea eztai gozoak.

Jesus beti zurekin balego, etsai batek ere ez lizuke kalterik egingo.

Jesus bereganatu duanak, sari ona bereganatu du, ta ludi osoa baño geiago.

Beartsu beartsua da Jesus gabe bizi dana; ta aberats aberatsa Jesus'ekin adiskide dabil̄ena.

Adiskiderik gabe ezin bizi zaiteke; ta adiskiderik kutunena Jesus ez badezu, beti il̄un eta zorigaiztokoa izango zera.

Guziak Jesus'gatik maite bitez; Jesus ostera beraxe danagatik.

Jesukristo bakaŕik bereziki maite beaŕa da, Beraxe bezelako adiskide on eta zintzorik ez da iñon arkitzen eta.

Aregatik (Jesus'gatik) eta Aregantxe bai adiskideak baita etsa-

yak ere maite bear dituzu; eta guzien alde otoi egin bear diozu, guziak Bera ezagutu ta maite izan dezaten.

## Nor dator Eukaristian

Jaungoiko Seme ber bera...: Aita betikoak Beronen bitartez gauza guziak egin zituan. Jakintza..., gugatik luŕera jetxi eta Andre Mari'ren eŕai garbietan gure aragiz jantzi zana..., gizon egin eta gure pekatuak beregan artu, eta gu betiko zeruratzeaŕen neke oñaze askoren ondoren gurutzean il zana..., gu ezin eta geiago maite gaitualako, guk Bera jan, gu Beregan bizi, ta Beragan biurtzeaŕen Osti Done ontan egiz ta benetan gelditu zitzaiguna.

## Norengana dator?

Berak egindako izaki batengana... Jaungoikoaren onegiñentzat esker txaŕa besterik ez dedan izaki zirtzil onengana...; auts eta uts ezerez onengana...

## Nola dator?

Zeru luŕen Jaun eta Jabea bere aunditasun aŕigaŕia izkutatuta dator..., gure txikitasuna ez atzeratzeaŕen, ogi puxka zuriaren irudipean ostenduta dator...

## Zertara dator?

Bere maiteen artean goi-esker doaiak eskuak betean zabaltzera dator..., osasuna, aberastasuna, edertasuna, gorapen, agintea, dana emango digu zeruratzeko ongi

baldin badatorkigu..., gaitz, eri, gose, lotsa, iñork ez aintzat artzea, besteren mendean egotea, abek guziak ekaŕiko dizkigu eta eramateko indaŕa emango digu zeruratzeko ongi baldin baditugu... Maitasunak, neuŕi gabeko maitasunak, aita-maitasunak, adiskide-maitasunak... oŕexek darakar gure biotzetara.

Gure jasotzale maitearenganako siñiste, itxaropen eta maitasuna piztu ditzagun gure biotzetan: eta pekatuen damu bizi-biziaz biotzak urtu ta, esan dezaiogun belauniko:

## Akino'tar Tomas Deunaren

## OTOITZA

Nere Jaun eta Jaungoiko alguztiduna!

Biotz gosez eta begirapen aundiz goaz zure Seme eta Jaun Je-

sukristoren gorputza artzera. Basauntza ituři garbira, itsua argi bila, eřukařia eřuki eske bezela gatoz, Jauna, Zuregana; eskeko beartsu egiñik Zeru lułen Jaun aberats esku-zabal ořengana.

Gure Jaungoiko aberats eřukitsu emale oři, ařen baño ařen eskatzen dizugu, bada, gure gogorapen gaitzak sendatu ditzazula, gure zauriak osatu, gure loiak garbitu, gure bařu ilunak argitu, gure biotz beartsua aberastu, bilotsik dagon gogo au jantzi eta gure almen eta zentzun guziak zuzendu ditzazula.

Iguzu, ařen, Jauna, aingeruen ogi ori, Eřegeen Eřege ta Agintarien Agintari ori, gauz guzien egile eta guzien poz eta atsegin zeran ori, artu zaitzagula bear bezela.

Gure gogoaren betiko osasun eta onerako artu zaitzagula, begirapen aundiz, gaizki egiñen damu biziz,

asmo zuzenez eta biotz beroz, siñiste sendo, itxaropen aundi ta maitasun gartsuz artu zaitzagula gure Jaun oi.

Artu dezagula, aŕen, Jauna, Jesus'en Gorputz eta Odolaren Sakramentua ez ezik, baita bere indar, doai eta goiesker guzia ere.

O Jaungoiko on eŕukioŕa! Emaiguzu zure Seme eta gure Jaun Jesukristoren Gorputz, Anima, Jaungoiko eta gizatasuna; Beragan, Berarekin eta Beragatik emaiguzu laguntza ta zerurako eskubidea.

Emaiguzu Ama txit garbiaren eŕai garbietatik etoŕitako Jesus maite ber-berarekin beti betiko estutu, lotu eta gorputz bat egiñik bizitzea.

Zure Semearekin bat egiñik gaudenoi emaiguzu azkeneraño onean iraun eta gaitzetik beti alde egiteko zure laguntza.

Iguzu, aŕen, Jauna, orain ogi-

iduripean siñistez bakaŕik ikusita artzera goazen zure Seme maite ori, argi eta garbi ikusi dezagula zeruan goratua ta donetsia Zurekin eta Espiritu Santuarekin beti eta beti. Alaxe.



# Esker Otoitzak Jaunartu ondorenerako

## Bonabentura Donearen

### OTOITZA

Jesus nere Jaun maite gozo ořek josi gure biotz gogoak Zureganako maitasun samur atsegiñaren gezi osasungařiaz, ta goimaitasun indar gartsu bero batean sutu itzazu, beti Zureganako gogo bizian maitez kiskaltzen eta urtutzen egon ditezen. Zure zale izan ditezela gure biotzak, Zuregan atseden, Zuregatik il eta beti Zu-

rekin bat eginda egoteko nai bizia izan dezatela.

Iguzu aren, Jauna, Zure gose, aingeruen Ogia zeran oren gose izan gaiteala. Zu zera gogo garbien janari, zeruko jaki, ezti atsegin, gozo guziak beragan dituan gure eguneroko ogia.

Aingeruak ez dira iñoiz zuri begira aspertzen. Zure gose izan bitez beti gure biotzak ere; Zuk dariozun ezti gozoak ase bitza gure gogo barenak.

Zu zera bizitzaren ituria, atsegin ituria, Jaungoikoaren etxeko ondasun osoa; beti zure egariz izan bitez bada gure biotzak. Zure bila ibili ta Zu arkitu zaitzagula, Zuregana jo dezagula beti, eta Zuregana eldu gaitezela; Zu beti gure buruan, Zu gure biotzean, Zu beti gure aoan erabili zaitzagula, egiten degun guzia zuzen, guzia maitez, atsegiñez, guzia eraz

eta gogoz, azkenerano zintzo iraunez, guzia Zure izen dontsuaren gorapenik aundienerako egin dezagun.

Izan zaite Zu gure itxaropen bakaŕa, gure uste osoa, gure ondasun, atsegin, poz, alaitasun, eta atseden eta lasai tokia, gure pake, ezti, usai gozo, janari eta sendotasuna, gure igesleku, gure laguntza, nere jakintza ta nere gauza, nere ondasundegi eta zoriona; Zuregan sustraiak egin da gure biotz gogoak beti eta beti sendo, aldaezinki ta gogor Zuregan iraun dezaten. Alaxe.

## Andre Mari txit garbiari

## OTOITZA

Itzuli guregana zure begiok, Ama txit garbi maite oŕek! Oraintxe gaude bada zure begientzako

atsegingaŕi. Zure Seme maite-maite onek bere Gorputz-Odola oraintxe eman bait digu jaten; gure baŕuan daukagun Zure Seme Jesus'i itz egiozu gure alde eta eskeñi zure irabazi aundiak, guk guretik ez daukagu zer eskeñirik uskeriak besterik eta. Gure ordez zeroŕek eskeŕak egin ezaizkiozu ta iritxi guri, artu degun Sakramentu onek guregandik alde egin baño len eman dezaigula gure gorputz gogoentzako onespen ugaria.

## Loyola'tar Iñaki Donearen

## OTOITZA

Tori Jauna, ta artu nere aukeramen osoa, nere oroimena, nere adimena ta nere naimen osoa; dedan eta daukadan guzia. Zeoŕek eman zenidan. Zeroŕi Jauna,

itzultzen dizut. Guzi au zurea da. Nai dezun bezela erabilzu. Zure maitasuna ta adiskidetasuna inzkidazu: ez det beste ezer nai eta. (Barkapenak).



# Jesus Gurutzatuaren auŕean

Emen naukazu, Jesus on eta guziz gozoa!, Zure auŕean belaunak luŕeratuta. Biotz biotzez otoi egin eta eskatzen dizut: biziagotu ditzadazula nere biotz ontan siniste, itxaropen eta maitasunezko su gar biziak eta idazula nere gaizki egin guzien damua, ta gaur gero besterik ez egiteko asmo sendoa. Bitartean nik, gogo bizi ta samintasun gaŕatzez, zure



bost zauriak gogoratu ta buruan erabiliko ditut, iñoiz aztu gabe zutaz, nere Jesus ona!, Dabid igarleak esun oi zuana: «Nere esku oñak zulatu ta nere ezur guziak zenbatu egin dituzte».

«Aita gurea...» (Barkapen osoa oi dan eran).

## Loyola'tar Iñaki Deunak maiz esan oi zuan

## OTOITZA

Kristo'ren gogoa donetu nazazu;
Kristo'ren gorputza zoriondu nazazu;
Kristo'ren odola, txoratu nazazu;
Kristo'ren alboko ura, garbitu nazazu;
Kristo'ren nekaldia, indartu nazazu;
O Jesus ona! entzun idazu;
Zure zaurietan izkutatu nazazu;
Zugandik alde egiten ez neri utzi,
Etsai gaiztoengandik zaitu nazazu,
Eriotz aldian deitu nazazu,
Eta Zugana joateko agindu,
Zure deun guztiekin goratu zaitzadan
Menderen mendetan. Alaxe.

## Danik maiteena Jesus izan bear da

(Kristoren Antz-bidetik)

Kutuna kutunagatik utzi bear da; Jesus'ek nai du bada danik maiteena Bera izan.

Beste gauza guziak alde egin da ere, utziko ez zaituana, eta azkenean galtzen utziko ez dizuna, maite ta adiskidetzat euki zazu...

Berak bakarik zure biotzaren jabe izan nai du, ta antxe exeri agintaria bere aginte-aulkian bezela.

Beti Jesus'ekin edo Jesus'en bila ez ba-zabiltza, zure buruarentzat kaltegilegoa zera gizadi osoa ta zure etsai guziak baño.

## Danik maiteena Jesus izan bear da

(Kristoren Antz-bidetik)

Kutuna kutunagatik utzi bear da; Jesus'ek nai du bada danik maiteena Bera izan.

Beste gauza guziak alde egin da ere, utziko ez zaituna, eta azkenean galtzen utziko ez dizuna, maite ta adiskidetzat euki zazu...

Berak bakarrik zure biotzaren jabe izan nai du, ta antxe exerita agintaria bere aginte-aulkian bezela.

Beti Jesus'ekin edo Jesus'en bila ez ba zabiltza, zure buruarentzat kaltegillagoa zera gizadi osoa ta zure etsai guziak baño.




# Gogozko Jaunartzea

Meza-garayan apaizak Jaunartzen duanean, zuk ere Jauna zure biotzean artzen ez badezu, egin gogozko Jaunartzea.

Elizara Jauna ikustera joaten zeranean ere ori bera egin dezakezu onela:

«Siñisten det Jauna, emen zaudela. Zugan daukat Jesus, nere itxaropena ta al detan maitasunik aundi eta irazekienaz maite zaitut; Zorionekoa ni oraintxe nere biotzera etoŕiko baziña! Atoz, nere Jesus maitea, nere biotz baŕuan sartu eta euki nai zaitut beti betidaño ta.

Exeri Jauna, nere biotzean, agintaria bere exer-lekuan bezelaxe, ta agindu, Zuk nai dezuna egitea beste nairik ez daukat eta».

Jauna zugana etoŕi balitz bezela, pixka batean ixil̃ik egon da esan dezayokezu: «*Kristoren gogoa donetu nazazu!*... len ikusi dezun bezela; eta nai badezu beste otoi ura ere bai». *Tori Jauna, ta artu*... lenago esan bezela.

# MEZA




*Lenbiziko Apaiza Meza ematen*



# JAKINGAIAK

## Eukaristia

*Zertarako jaŕia da Eukaristia deritzan Sakramentua?*

Bear bezela artuta gure animen janari ta Jaungoikoaren graziaren geigaŕi izan dakigun, jaŕia da Eukaristia deritzan Sakramentua.

*Zer artzen da Eukaristia deritzan Sakramentu guztiz Donean?*

Aldareko Sakramentuan egiaz ta benetan dagon Jesukristo, Jaungoiko ta gizon egiazkoa artzen degu Eukaristia deritzan Sakramentu guztiz Donean.

## Ostian eta kalizan mezerdiko itzak esan baño len, eta esanezkero

*Zer dago ostian Mezerdiko itzak esan baño len?*

Ogi pixka bat dago ostian, Mezerdiko itzak esan baño len.

*Zer dago ostian Mezerdiko itzak esanezkero?*

Jesukristoren gorputza, bere odol, anima, Jaungoikotasun ta guzti dago Osti Donean, Mezerdiko itzak esanezkero.

*Zer dago kalizan, Mezerdiko itzak esan baño len?*

Ardo pixka bat ur-tanto batzuekin dago kalizan Mezerdiko itzak esan baño len.

*Zer dago kalizan, Mezerdiko itzak esanezkero?*

Jesukristoren odola, bere gorputz, anima, Jaungoikotasun ta guzti dago kalizan, Mezerdiko itzak esanezkero.

*Beraz, Mezerdiko itzak esanezkero Jesukristo osorik dago Ostian eta Kalizan?*

Mezerdiko itzak esanezkero, Jesukristo

osorik dago osti osoan eta osorik osti-puxka bakoitzean, eta berdin kalizan.

## Ogia ta ardoa Jesukristoren gorputz eta odol biurturik

*Ogia ta ardoa, noiz biurtzen dira Jesukristoren gorputz eta odol?*

Apaizak Mezerdiko itzak esanaz batean, biurtzen dira ogia ta ardoa Jesukristoren gorputz eta odol.

*Eta Mezerdiazkero bai al da ostian ogirik eta kalizan ardorik?*

Ez jauna, Mezerdiazkero ez da, ez ostian ogirik, ez kalizan ardorik; ogi ta ardo usaia, gozoa ta gañerako eraskiak baizik.

*Eta Mezerdiazkero kalizan dagona edo ostia, puskatzen bada, puskatzen al da Jesukristo?*

Ez jauna, Mezerdiazkero kalizan dagona edo ostia puskatu aŕen, Jesukristo bera ez da puskatzen; puska guztietan eta bakoitzean osorik gelditzen da.

*Munduko Osti Done guztietan bai al dago Jesukristo?*

Bai Jauna, Munduko Osti Done guztietan, antxe dago Jesukristo.



# Meza deritzan Opari Donea

*Eukaristia, Sakramentua baizik ez al da?*

Eukaristia, Sakramentuaz gañera, lege Beŕian degun betiko Oparia da ta Oparia danez, Meza Donea deritza.

*Zer da, beraz, Meza Donea?*

Gure aldareetan, ogi ta ardoaren eraskipean, Gurutzeko opariaren gogoangaŕi egiten dan Jesukristoren gorputz eta odoloparia da Meza Donea.

*Meza nork eta zertarako jaŕia da?*

Jaungoikoa goratu ta Berari eskeŕak emateko, eta Gurutzeko opariaren irabazkiak eta ordañak guganatzeko, Jesukristok berak jaŕia da Meza Donea.

*Norentzat eta zertarako atera diteke Meza Donea?*

Naiz ilentzat naiz bizientzat, eta animaren ondasunak naiz gorputzarenak iristeko, atera diteke Meza Donea.

## Noiz eta nola Meza entzun bear dana

*On izango da, beraz, egunero Meza entzutea?*

Agindua ez dago baña oso ona da egunero Meza entzutea.

*Nor daude Meza entzutera beartuak?*

Ezaguera duten kristau guztiak, zazpi urte betezkero, daude Meza entzutera beartuak.

*Nola entzun bear da Meza?*

Meza ari dan tokian, gauza onen bati adi ta arduraz egonaz, esate baterako, naiz gogoz, naiz aoz otoitz egiñaz, entzun bear da Meza.

*Igande ta jai-egunetan Mezarik entzuten ez duanak, oben astuna egiten al du?*

Al dezakela, Igande ta Jai egunetan Mezarik entzuten ez duanak, oben astuna egiten du.

## Igandeaz gañera noiz meza entzun bear dan

*Igandeaz beste zein jaietan degu Meza entzun beaŕa?*

Igandeaz beste, Urtebeŕi, Iru Eŕege, Zeruetara Igotze, «Corpus Christi», ta Egueŕi-egunean; eta Abuztuko Andre Mari ta Sortze Garbi-egunean; eta San Jose, San Pedro, Santiago ta Santu guztien egunean; eta oietaz gañera, Araba'n Prudentzio Donearen egunean eta Bizkaia'n ta Gipuzkoa'n Iñazio Donearenean degu Meza entzun beaŕa.




# Meza donearen asiera

*Apaizak aldare auŕean zutik «Gurutze-Santua» egiten du lenengoz, guztioi gogoratuazirik, aldarean eskeintzera dijoan oparia eta Jesukristok gurutzean Aitari eskeñi ziona gauza berbera di ala. Gero aldarera igotzeko daukan leia agertzen du, eta bere pekatuen barkapena eskatzen du* «Confiteor» *esanaz.*

## Meza entzuten daudenak belauniko

Aitaren eta Semearen eta Goteunaren izenean. Alaxe.

## Apaizak eta entzule edo mezalaguntzal̄eak egiten duten alkarizketa

A. *Jaungoikoaren opamaira igoko naiz.*

E. Nere gaztaroa poztutzen dun Jaungoikoarengana.

A. *Epaitu nazazu, Jaungoiko, ta nere auzia giza-gaiztoengandik berezi zazu; gizon zital maltzur artetik atera nazazu.*

E. Zu, Jauna, nere indaŕa zera ta zergatik uŕundu nazu? zergatik nabil ilun etsaiak atsekabetzen naunean?

A. *Zure argia ta egia nigana itzazu; oiek eragin eta oiek zuzendu bait ninduten zure mendi deunera ta zure aterpera.*

E. Ta Jaungoikoaren opamaira igoko naiz. Nere gaztaroa poztutzen dun Jaungoikoarengana

A. *Aitortuko zaitut eresiz, Jaungoiko, nere Jaungoikoa! Zergatik ilun nere gogo au? Zergatik kezkatzen nazu?*

E. Jaungoikoagan itxoin, oraindik nere buruaren Osagile ta nere Jaungoikoari aitortu bear diot eta.

A. *Aintza Aitari, Semeari eta Goteunari.*

E. Asieran zan bezelaxe, orain eta beti, menderen mendetan. Alaxe.

A. *Jaungoikoaren Opamaira igoko naiz.*

E. Nere gaztaroa poztutzen dun Jaungoikoarengana.

A. *Gure laguntza Jaungoikoaren izenean.*

E. Zeru lurren egilearenean.



«*Confiteor*»
«*Ni pekataria...*»

*Meza entzuleak belauniko.*

*Apaizak «Confiteor» esaten du.*

E. Jaungoiko guziz altsua zutzaz eŕuki bedi, ta zure ogenak asketsirik, betiko bizitzara baŕuratu zaitzala.

A. *Alaxe.*

E. Nik obenlari onek, aitortzen diot Jaungoiko alguztidunari, Andre Mari beti garbi zoriontsuari, Mikel goiaingeru zoriontsuari, Yon Ukuzle zoriontsuari, Kepa ta Paul bidali deunei, beste deun guziei, eta zuri ene Aita oŕi, ogen laŕi egin dedala, gogapen, itz eta egitez, nere eŕuz, nere eŕu aundiz. Oŕegatik eskatzen diet Andre Mari beti garbi zoriontsuari, Mikel goiaingeru zoriontsuari, Yon Ukuzle zoriontsuari, Kepa ta Paul bidali deunei, beste deun guziei eta zuri, ene Aita oŕi, otoi

nere alde egiteko Jaungoiko gure Jaunari.

A. *Jaungoiko guziz altsua zuetzaz eŕuki bedi, ta zuen ogenak asketsirik betiko bizitzara baŕuratu zaitzatela.*

E. Alaxe.

A. *Jaun guzialtsu eta eŕukitsuak agenetatik garbi, azke eta gaizke egin gaitzala.*

E. Alaxe.

A. *Jaungoiko, guganaturik, pizkortuko gaituzu.*

E. Ta zure eŕia, Zugan poztuko da.

A. *Zure eŕukia Jauna, erakutsi iguzu.*

E. Ta zure osabidea emaiguzu.

A. *Nere otoia entzun, Jauna.*

E. Ta nere deia zuregana bedi.

A. *Jauna zuekin.*

E. Baita zure gogoarekin ere.

## OREMUS

*Apaiza aldarera igotzen da, ta ixilik esaten du:*

Gure gaiztakeriak kendu gugandik, Jauna; gogo garbiz Guren-Gurenera sar gaitezen. Jesukristo gure Jaunaren bidez. Alaxe.

*Aldareari muñ egiten dio esanaz:*

Jauna, beren gorputzkiñak emen dauzkaten zure deunen eta beste deun guzien irabaziengatik nere ogen guziak asketsi, aŕen. Alaxe.

*Cero Apaiza eskubi-aldera joaten da,* **Gurutze Santu** *egin, eta Mezaren* **Saŕera** *irakurtzen du:*

### Introitus

*(Mezaren zati aldakoŕak Soŕtzez Garbiarenetik):*

(Is 61, 10). Pozaren pozez Jaunagan nagoke, ta nere gogoa nere Jaungoikoagan atsegiñez yausika: osasun yazkiz yantzi, ta zindo yazkiz inguratu nindulako, uŕezko pitxiz apaindutako emaztegaia bezela. Ps. 29, 2. Goratuko zaitut, Jauna, yaso ninduzulako; ta etzenitulako nere etsaiak nere kaltez pozerazi. Aintza Aitari... Pozaren pozez...

*Ta ondoren, aldare erdira itzulita:* **Jauna, gutzaz eŕuki** *otoitz edeŕa esaten du:*

A. *Jauna, eŕuki.*
E. Jauna, eŕuki.
A. *Jauna, eŕuki.*
E. Kristo, eŕuki.
A. *Kristo, eŕuki.*
E. Kristo, eŕuki.
A. *Jauna, eŕuki.*
E. Jauna, eŕuki.
A. *Jauna, eŕuki.*

*Aldare aurera biurtuta «Gloria» esaten du.*

*(Entzuleak meza ixila bada belaunik»; abestua bada zutitu apaizakin eta oek esertzean eseri).*

A. Aintza goialdetan Jaungoikoari.

Ta luŕean gentza gizon gogo onei.

Aintzatzen zaitugu.

Onesten zaitugu.

Gurtzen zaitugu.

Eskeŕak damazkizugu zure aintzaldi bikañagatik.

Jaungoiko, Jaun, Goiko Eŕege, Jaungoiko Aita guzialtsu.

Jesu Kristo Seme bakar, Jauna.

Jaungoiko Jaun, Jaungoikoaren Bildotsa, Aitaren Seme.

Ludiko ogenak kentzen dituzun ori, gutzaz eŕuki.

Ludiko ogenak kentzen dituzun oŕek gure otoitza jaso.

Aitaren eskubian eseririk zauden ori, gutzaz eŕuki.

Zu Deun bakaŕa, Zu Jaun bakaŕa, Zu goitsu bakaŕa, Jesu Kristo.

Goteunarekin Jaungoiko Aitaren aintzakide. Alaxe.

*Apaizak eŕiruntz biurtu ta esaten du. (Meza ixilean belauniko; abestuan zutik):*

A. *Jauna zuekin.*
E. Baita zure gogoarekin ere.

## OTOITZA

Sortzez garbi zuk egindakoagan Zure Semearentzat bizitokia egin zenun Jaungoikoa! Seme oŕen eriotza begiratuta, Garbia loi gabe gorde zenuanak, egizu, gu ere, bere bitartez garbi Zuregana eldu gaitezela. Zurekin eta Goteunarekin bat egiñik bizi ta agintari dan Zure Seme Jesukristo gure Jaunagatik. Alaxe.



*«Epistola»*

*«Idazkia»*

*Entzuleak Meza nagusian eserita; ixilean belauniko.*

## Epistola

*(Meza ixilean belauniko; abestuan eserita):*

*Jakintza idazkiaren irakurgaia* (Prov. 8, 22-35)

Ba-nindukan Jaunak bere bide asieratik,
ezertxo ere egin aurretik.
Betidanik eratua naiz,
ta antziñatik, lurra egin baño lendik.
Etzan oraindio lezerik, ta ni banegon sor-
[turik;
etziran oraindik ur-iturriak bizi
ezta mendi astun-astunak yarri,
mendixkak baño len, argitara ni:
Ez lurrik, ez ibairik, ez lurbiraren orporik
[etzun oraindik egiñik
Ortziak gertutzean, arekin nengon;
lezeak lege bereziz ta irauli aldiz esi or-
[duan,
goialdean eguratsa tinkatzean
ta ur-iturriak yariotzean,
Itxasoa bere mugaz inguratu
ta mugatik ara ez zezaten urak egin, le-
[gea ezarri zienean:
lurraren oñarriak esegitzean.

Berarekin nengon oro atontzen;
ta atsegin artzen nun egunero, bere au-
[řean yostatuz,
beti, lurbira guzian yostatuz,
Ta nere atsegiñak, gizasemeen artean
[izatea.
Orain, bada, entzun zaidazute, semeok:
«Nere bide zaitzalien zoriona
Entzun yakintza, zur izan,
ta ez aldera utzi nai.
Zoriontsu nere entzulea,
ta nere atarian egunero ernai dagona,
ta nere ate auřeko zaitzalea.
Arkituko naunak, Bizitza arkituko du,
ta Jaungoikoagandik osasuna aterako du.

E. Jaunari eskeřak.

## Graduale

(Iudith 13, 23) Jaunak, goiko Jaungoikoak onetsia zera zu Maria guziz garbia, lurgañeko emakume guzien gañez.

(Ibid. 15, 10) Jerusalem'go aintza, Israel'go poza, gure eřiko ospea zera zu. Alleluia, alleluia.

(Cant. 4. 7.) Guziz edeřa zera

Mari, ta sortzez eŕurik Zugan ez dezu. Alleluia.

*Aldare erdira beŕiz juan da, makur-makurturik esaten du:*

Garbitu Jaungoiko guzialtsu, nere biotz eta ezpañak, Isai igarlearen ezpañak txingaŕez garbi zenitun bezela; garbi nazazu, bai, zure eŕuki goxoz zure Beŕion deuna egoki azaldu dezakedan.

## Evangelium – Beŕi ona

*(Zutik eta «Gurutze» egin):*

A. *Jauna zuekin.*

E. Baita zure gogoarekin ere.

A. *Luka Deunaren Beŕi-on jaŕaipena*

E. Aintza zuri Jauna.

A. *Jesukristo'ren Beŕi-ona, Luka'k dakeŕenez:* (I, 26-28).

Garai artan: Jainkoak Gabirel



*Evangelium*

*Beŕi-ona*

*Entzuleak zutik.*

aingerua Nazaret deritzan Galilai'ko irira bidali zuan neskatx batengana. Neskatxa Yose zeritzan Dabid'en belauneko baten emaztegaia zan, ta neskatxaren izena Mari. Onengana orduko, ba, aingeruak esan zion: Agur, eskertsu; Jauna zurekin; onetsia Zu emakumeetan.

E. Aintza zuri, Jesukristo.

*Gero apaizak mun egiten dio Ebangeli-idaztiari esanaz:*

A. *Ebaingeriko itzen bidez, gure ogenak asketsiak izan bitez.*

## Kredoa

*(Meza ixilean zutik; abestuan zutik eta eserita).*

Sinisten det, Jaungoiko bakaŕa, Aita alguztiduna, zeru luŕen, ikus-gai eta ikusezin guzien egile.

Eta Jesukristo Jaun bakaŕa, Jaungoikoaren Seme bakaŕa. Gizaldi guzien auŕetik, Aitagandik jaioa. Jaungoikoagandiko Jaungoikoa, argiagandiko argia, Jaungoiko egizkoagandik Jaungoiko egizkoa. Sortua, ez egindakoa. Aitaren izakidea; onen bidez egin oro egiña da. Gizonengatik ta gure osasunagatik bere goitik jetxia da. (belauniko). *Maria gurbiagan Goteunaren bidez, aragitu zan: ta gizon egin zan.* Ta gugatik gurutzatua; Pontius Pilatus'pean nekaldua, ta obiratua izan zana. Ta irugaŕen egunean piztu zana, Idaztien arauz. Ta gora igo zan. Aitaren eskubian exeririk dago. Ta beŕiro biziak eta il̄ak epaitzara nausikiro etoŕiko da. Bere agintzaldiak azkenik ez. Sinisten det Goteuna, Jauna, pizkorgil̄ea. Aita Semeagandik datoŕena. Aita ta Semearekin gurtu ta aintzaltzen

dana. Igarle aoz mintzatu zana. Baita Eliz bakar deuna, orokar, bidaliena. Aitortzen det obenak askesteko ugutz bakar bat. Eta itxaro det ildakoen berpizkundea, eta etoŕiko dan geroko biztaldia. Alaxe.

## Offertorium-Eskeintza

*(Entzuleak eseri):*

A. *Jauna zuekin.*
E. Baita zure gogoarekin ere.
(Luc. I, 28) Agur Mari, eskertsu; onetsia zu emakumeetan. Aleluya.

*Apaizak eskuetan artzen du uŕezko platertxoa Ostiarekin ta begiak zerurontz jaso ta gero Osti gañera biurtzen ditu esanaz:*

Aita Deun, Betiko Jainko guzialduna, ar zazu nik, zure men-



*Offertorium*
*Eskeintza*

*Entzuleak eserita.*

peko izateko lain ez naizen onek zuri nere Jainko bizi egitsuari eskeintzen dizudan kutsugabeko opari au; ar zazu nere neuŕiz gañeko ogen, irain eta utsegiteen ordañez, emen gauden guzion aldez, naiz bizi, naiz ildako kristau guzien aldez; neretzat eta aientzat osasungaŕi izan zatzakigun menderen mendetan. Alaxe.

*Mez-ontziko ardoari bota bear dion ura bedeinkatu egiten du, esanaz:*

Gizaki ospetsuaren garaitasuna aŕigaŕiro egin eta aŕigaŕiroago zuzendu zendun Jaungoikoa! Ur ardo onen izkutukiagatik emaiguzu, Zure Seme Jesukristo gure Jaunak gure gizakera Beretu zuan bezela, guk ere bere Jaungoikotasuna gureganatu dezagula; Zurekin eta Goteunarekin bizi ta Jauna da bera, menderen mendetan. Alaxe.

*Mez-ontzia jasotzen du esanaz:*

Zuri Jauna, edontzi osasuntsu au eskeintzen dizugu. Zure eŕukiaren bidez, gure eta ludi osoaren osasunerako, zure Jaungoikozko aulki auŕeraño, gozo ta uŕintsu igo dediñ. Alaxe.

*Gero eskuak aldare gañean jaŕirik makurtuta esaten du.*

Gogo apal eta biotz garbaidun ar gaitzazu, Jauna, ta zure auŕean gaurko opari au atsegintsu izango al zaizu, Jaungoiko Jauna!

*Begiak zerurontz jasota, esaten du:*

Atoz Jainko betiko deungiḻe alguztidun ori! ta on ✝ etsi zazu zure izenarentzat gerturiko opaŕi au.

*Aldare ertzean beatzak garbituz esaten du:*

Eŕugabeen artean nere eskuak garbituko ditut: eta zure opamai baranoan nagoke.

Gorapen otsa entzun dezadan, ta zure aŕigaŕi oro zabaldu ditzadan.

Jauna, zure etxe apaña maite izan det, baita zure aintzaldiko bizitokia ere.

Jaungoiko, ez gaiztoekin galzorian utzi nere gogoa ezta odolzaleekin ere nere bizia.

Oyen eskuetan gaiztakeriak; oien eskuiak eskupekoz beterik daude.

Ni ordea, eŕu gabe ibilia naiz; gaizkatu nazazu ta nitzaz eŕuki.

Nere oña zuzen bidean tinkatu da. Batzaŕetan goralduko zaitut, Jauna.

Aintza Aitari...

*Aldare erdira etoṙita makurturik esaten du:*

Ar zazu Nekaldi, Berpizkunde, ta Igokunde-oroimenez eskeintzen dizugun opari au, Irutasun Deun oṙek! ta Mari beti garbi zoriontsu, ta Jon Ukuzle zoriontsu, ta Kepa ta Paul deunen, emengo ta beste deun guzien aintzarako. Auentzat aipagaṙi, guretzat osagaṙi izan dedin; ta guk luṙean darabilgun izenekoak arkitu ditzagula bitartekotzat zeruetan. Jesukristo gure Jaunaren bidez. Alaxe.

*Apaizak eṙiruntz begiratuz, otoitz egiteko eskatzen die guziei, esanaz:*

*(Zutitu)*

A. *Otoi anaiok, nere ta zuen opari au Jaungoiko Aita alguztidunarentzat begikoa izan dedin.*

E. Jaso beza Jaunak zure eskuetako oparia bere izenaren ain-

tza ta goraldirako ta gure ta Eliz Amaren onerako.

A. *Alaxe.*

*(Eseri)*

## Secreta

Mari guziz garbiaren sortze garbi jai egunean, eskeintzen dizugun opari osasungaŕia ar zazu Jauna, ta emaiguzu, bera zure esker laguntzaz orbangabekoa aitortzen degunok, beraren otoitz bidez eŕu guzietatik alderatuak izan gaitezela Jesukristo gure Jaun...

## Prefacio – Saŕera

*(Meza nagusian: zutitu)*

A. *Menderen mendetan.*

E. Alaxe.

A. *Jauna zuekin.*

E. Baita zure gogoarekin ere.

A. *Gora biotzak.*

E. Jaunagan dauzkagu.

A. *Eskeŕak egin dezaizkiogun gure Jaungoiko Jaunari.*

E. Egoki ta bidezko da.

A. Egiz egoki ta bidezko, zuzen eta osasuntsu da guk Zuri Jaun Deun Aita alguztidun, betidañoko Jaungoiko oŕi, beti nonnai esker egitea: Eta Zu Maria beti Birjiñaren Sortze guziz garbian goraldu, on-etsi eta aintzagaŕi aldaŕikatzea. Sortzez garbiak, bada, Zure Seme bakaŕa Goteunaren egitez sortu zun, eta garbitasunaren edeŕa galtzeke betiko argia munduari eman zion, Jesukristo gure Jauna. Onen bidez aingeruak Zure gurentasuna goraltzen dute, Agintariak yauresten dute, Aldunak itzala diote, goiak eta goiko indardunak ta Serapin zoriondunak ere, auspez aitortzen dute. Oyenakin batera gure aintz-oyuak ere, ar itzazula, aŕen eskatzen dizugu, auzpeztuta, aitortuz:

## Sanctus

*(Belauniko Jaunartu arte):*

Guren, Guren, Guren, Guda saldoen Jaungoiko Jauna, Zeru luŕak zure aintzaz beterik daude. Gora goi goienetaraño. Onetsia Jaunaren izenean datoŕena! Gora goi goienetaraño!

## Canon – Te igitur

Zuri, bada, Aita eŕukitsu ori, Jesukristo zure Seme ta gure Jaunaren bidez, otoi ta, aŕen, daizugu, ontzat artu ta onetsi itzazun eskeintz ✝ auek, emaitz ✝ auek, opari ✝ deun ta garbi auek. Batez ere, zure Eliz Deun guzienaren aldez eskeñitakoak. Bera lurbira osoan, aŕen, baretu, zaitu, batu ta zuzendu zazu. Berebat zure menpeko ta gure Doipuru (N.) gure Gotzai (N.) ta egizko kristau ta Bidalien siñiste orokarpean bizi diran guziak.



*«Memento»*

*Bizien oroitza*

*Entzuleak belauniko.*

## Memento

Oroi, Jauna, zure menpeko (N. N. esan izenak) tzaz. Oroi emengo guziaz, auen siñiste eta zuganako leia agiriak zaizkizu ta. Auen alde eskeintzen dizugu zuri opari ospetsu au. Beaiek beŕiz beren buru edo aidien aldez, beren gogoen jaŕai biderako, ta osasun eta zindokuntzarako eskeintzen dizkizute opari auek; ta eskeintz auek betiko Jaungoiko bizi egitsu oŕi egiten dizkizute.

## Communicantes

Guziok alkarturik, ta aien oroimena begirunez degularik, batez ere Jaungoikoaren ta Jesukristoren ama beti garbi Maria aintzatsuarena, Ta Zure Bidali ta martiri zoriontsu Petri ta Pauli, An-

dreae, Jacobi, Joannis, Tomae Jacobi, Filippi, Bartolomaei, Simonis ta Taddhaei; Lini, Cleti, Clementis, Xisti, Cornelii, Cipriani, Laurentii, Chrisogoni, Joannis eta Pauli, Cosmae ta Damiani, ta beste Deun guziena. Auen guzien irabazi ta otoitzengatik arkituko al degu toki guzietan zure laguntza ta babesa. Kristo gure Jaun beraren bidez. Alaxe.

### Hanc Igitur

Guk, Jauna ta gure sendi osoak eskeintzen dizugun yopu opari au ar zazu, aŕen, begi onez! Ta zure pakean eutsi, betiko gaiztokitik aldendu, ta zure maiteen artaldean saŕerazi gaitzazu. Kristo gure Jaun beraren bidez.

### Quam oblationem

Opari au, Jaungoiko oŕek, aŕen guziz on † etsi, ber † ezi, ontzat †



*«Hanc igitur...»*
*Opari au ar zazu...»*

*Entzuleak belauniko.*

artu, egoki ta zure gai egin zazu, Jesukristo zure Seme laztanaren ✝ soiñ eta odol ✝ guretzat biurtu dedin.

## Qui pridie

Jesuk bere nekaldi aurean ogi bera esku deuntsu ta agurgaŕietan artu zun, eta Zugana, Jaungoiko bere Aita alguztidun oŕengana begiak jasorik, Zuri esker eginda, on ✝ etsi ta zatitu zun, ta bere ikasliei eman zien esanaz: artu ta jan ontatik guziok:

*Au da bada, nere soña*

(Osti deuna lenbizi, ta gero kaliz deuna gora jasotzean, begiak Jesukristo gure Jaunagana jaso itzazu eta esan «Nere Jauna ta nere Jaungoikoa», ta barkapenak irabaziko dituzu).

Era berean, apaldutakoan, Edontzi agurgaŕi au bere esku



*Mezerdia*

*Osti Deunagana begiak jaso ta esan: «Nere Jauna ta nere Jaungoikoa.»*

*Entzuleak belauniko.*

deun eta gurgaŕietan arturik, Zuri beŕiro eskeŕak eginda on † etsi zun, eta bere ikasleei eman zien esanaz: Ar zazute eta edan ontatik guziok.

*Au da, bada, betiko itun ta itun beŕiko Nere Odolaren ontzia: Siniste ezkutukia, zuen alde ta beste askoen alde oben askespenerako ixuriko dana*

Auek egin bakoitzean, nere oroitzat egin itzazute.

## Unde et memores

Beraz, Jauna, zure menpeko oek eta zure eŕi on onek, zure Seme ta gure Jaun bereren Nekaldi deuna, lurpetiko berpizkundea ta zerurontzako Igokunde ospetsua gogoan arturik, zuri Jaun bikain ta ospetsu oŕi, zure emaitzetatik opari † garbi, opari † deun, opari † kutsugabe au, betiko



*Mezerdia*

*Kaliz Deunagana begiak jaso ta esan: «Nere Jauna ta nere Jaungoikoa.»*

*Entzuleak belauniko.*

bizitzarako Ogi ✝ Deuna, azken gabeko osakuntzaren ✝ Edontzia eskeintzen dizugu.

## Supra quae

Begi maitez, begi onez begira, ta ontzat artu itzazu, aŕen, Abel zure Seme zuzenaren emaitzak, ta Abraham gure arbasoaren oparia ta Melkisedek zure Apaizpuruak egindako eskeñi deun ta opari garbiak artu zenitun bezela.

## Supplices

Auspez eskatzen dizugu, Jaungoiko guzialdun ori, zure aingeru deunaren esku bidez eraman erazi itzazula opari oek goiko zure opamaira Jaungoiko ospatsuaren begietara. Zure semearen soin ✝ deun ta o ✝ dola gureganatuko ditugunok, goiko ondasun guziz

ta eskeŕez ase gaitezen, Kristo Gure Jaun bereren bidez. Alaxe.

## Memento

Oroi, berebat, Jauna, len siñispen argitan bizi ta orain pakeloan dauden N. N., Zure menpekoetzaz. Auei Jauna, Ta Kristo'gan atsedeten daudenai emaiezu, aŕen, pake argi ta atsegin osoa. Kristo Gure Jaun beraren bidez. Alaxe.

## Nobis quoque

Ta guri, zure eŕuki zabalean itxaropen osoa degun ogenlarioi, emaiguzu Joanne, Stephano, Mathia, Barnaba, Ignatio, Alexandro, Marcelino, Petro, Felicitate, Perpetua, Agata, Lucia, Agnete, Cecilia ta Anastasia zure bidali eta ziñopa ta beste Deun guzien sarialkartasuna; ar gaitzazu oien ba-

tzaŕean eskuzabal oŕek, gure irabaziak ez, baña bai zure eŕukia oarturik. Kristo gure Jaunaren bidez.

Bere bidez Jauna, on guzi oiek sor † tzen, piz † ten ones † ten ta ematen dizkiguzu

Bere bidez † ta bere † kin ta bere † gan Zuri, Jaungoiko Aita † alguztidun oŕi Goteunarekin † batean ospe ta aintza oro.

A. *Menderen mendetan.*

E. Alaxe.

A. Irakaspen osasuntsuaz ta Jaungoiko yakintzaz ornitutakuok esan dezakegu:

## Pater noster

«*Gure Aita Goikoa; guren bego zure izena; betor zure yauraldia; egin bedi zure naya, zeruan bezela, luŕean ere. Bear degun ogia gaur iguzu; ta asketsi gure zoŕak, gure*

*zordunenak gerok ere askesten baitizkiegu; ta ez gaitzazu zirikaldian utzi; gaitzera; gabe gauzkazu, ordea».*

Alaxe.

### Libera nos

Zaitu gaitzazu Jauna, lengo, oraingo ta geroko gaitz guztietatik, ta Maria zoriontsu beti garbi ta Jaungoikoaren Ama aintzatsuaren bitartez, Petro ta Paulo ta Andrea zure bidali zoriontsu ta deun guzien bitartez emaiguzu gogo onez bizitz paketsua, Zure eŕuki laguntzaz ogenetik beti uŕuti ta naspil guzietatik aske bizi gaitezen.

A. Jesukristo zure Seme ta gure Jaun beraren bidez Zurekin eta Goteunarekin bizi ta Jaun danez, *menderen-mendetan*.

E. Alaxe.

A. *Jaunaren gentza, bego* ✝ *beti* ✝ *zu* ✝ *ekin.*



*Ostia zatitzen*

*Entzuleak belauniko*

E. Baita zure gogoarekin ere. Jesukristoren soiñ eta odolaren naste ta eskeintz au izan bitez artzen ditugunen betiko bizitzarako. Alaxe.

### Agnus

Ludi-ogenak kentzen dituzun Jaungoiko-Bildotxa gutzaz eŕuki. Ludi-ogenak kentzen dituzun Jaungoiko-Bildotxa gutzaz eŕuki. Ludi-ogenak kentzen dituzun Jaungoiko-Bildotxa gentza emaiguzu.

*Auzpezturik Jaunartu auŕeko Otoitzak:*

Zure ikasleei «Nere gentza uzten dizuet; nere gentza damaizuet» esan zenien Jesukristo Jauna, ez nere ogenei begira, Elizaren siñisteari baizik ta bera, zuk ala nai ta, baretu, ta batu zazu, aŕen, menderen mendetan bizi ta

Jaun zeran Jaungoiko oŕek. Alaxe.

Jesukristo Jaun, Jaungoiko biziaren Seme, Aitak ala nai ta, Goteunaren laguntzaz, zure eriotzaz ludia piztu zendun oŕek: zure soiñ odol deun onen bidez, aldendu nazazu nere gaiztakeri ta beste gaitz guzietatik; ta zure eginduei josirik euki nazazu, ta zugandik uŕutiratzen ez iñoiz ere utzi. Jaungoiko Aita berarekin, eta Goteunarekin menderen mendetan bizi ta Jaun zeran Jaungoiko oŕek. Alaxe.

Jesukristo ori: Nik, nor ez izanik, artuko dedan soiñ au ez bezait epai ta galbiderako egotzi. Betorkit, ordea, zure eŕukiz, nere soiñ eta gogoaren osabiderako. Jaungoiko Aita berarekin ta Goteunarekin menderen mendetan bizi ta Jaun zeran Jaungoikoa. Alaxe.



*«Domine, non sun dignus...»*
*«Jauna ni ez naiz nor...»*

*Entzuleak belauniko.*

## Panem

Zeru ogia artu ta Jaun izenari dei dagioket.

## Domine

Jauna, ez naiz ni nor nere aterpera Zu etortzeko; itzez bakaŕik esazu, ordea, ta nere gogoa sendatuko da.

Jauna...;

Jauna...

## Corpus Domini

Jesukristo gure Jaunaren soñak betiko bizitzarako nere gogoa zaitu beza. Alaxe.

## Quid retribuan

Neri emandako guzien ordez, zer damaikioket nik Jaunari? Ontzi osasuntsua artu, ta Jaunaren izenari dei dagioket.



*Communio*

*Jaunartzea*

*Entzuleak belaunico*

## Laudans

Jaunari deituko diot goralduz, ta nere etsaietatik aske nagoke.

## Sanguis

Jesukristo gure Jaunaren Odolak betiko bizitzarako nere gogoa zaitu beza. Alaxe.

## Quod ore

(*Entzuleak «Sanctus»'etik orain arte belauniko; orain eseri*).

Jauna, aoz guganatu deguna, gogo biziz artu dezagula, ta biztaldiko emaitz au, betirañoko osabide biurtuko al zaigu!

## Corpus tuum

Jan dedan zure soña, ta edan dedan zure odola, nere eŕai eŕai-

etan itsasi bitez, Jauna; ta Sakramentu garbi ta deun onez alikatu naizen onengan egizu ez dedila gauŕezkero oben kutsurik gelditu, menderen mendetan bizi ta Jaun zeran oŕek. Alaxe.

## Communio

Zutaz aintzagaŕiak esanak dira, Mari, Guzi-al-dunak aundi egin zindun-ta.

(*Entzuleak zutitu*).

A. *Jauna zuekin.*
E. Baita zure gogoarekin ere.

## OTOITZA

Otoi! Gure Jaun Jaungoikoa: Mari sortzez garbia zuk bereziki gorde ta, kutsutu ez zuten gaitzaren zauriak sendatu ditzala gugan, orain artu ditugun Sakramentuen

indaŕak, Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Alaxe.

## Ite, missa est

A. *Jauna zuekin.*
E. Baita zure gogoarekin ere.
A. *Zoazte, Meza eman da.*
E. Jaungoikoari eskeŕak.

(*Entzuleak belaunikatu onespena artzeko*).

## Placeat

Atsegintsu izango al zaizu, Irutasun deun oŕi, nere otsein emaia: Ta nor ez naizen onek zure begi ospetsuen auŕean eskeñi dizudan opari au, Zuretzat yasogaŕi, ta neretzat ta nere gogoan izan ditudan aientzat ibigaŕi izan bedi zure eŕukiz, Kristo gure Jaunaren bidez. Alaxe.



*«Benedictio...»*
*Azken onespena*

*Entzuleak belauniko.*

## Benedicat

A. *Jaungoiko alguztidun: Aita Seme ta Goteunak onetsi zaitzatela.*

E. Alaxe.

## Ultimun Evangelium

(*Entzuleak zutik*)

A. *Jauna zuekin.*

E. Baita zure gogoarekin ere.

A. *Jon'ek dakaŕen Jesukristoren Beŕi-on deunaren asiera.*

E. Aintza zuri, Jauna.

Asieran Itza ba-zan,
ta itza Yainkoagan zan,
ta Itza Yainko zan,
Asieran Bera Yainkoagan zan.
Dana berak egiña da,
ta Bera gabe ez da egin
egindako ezer ere.

Beregan bizitza zan,
ta bizitza gizargia zan;
ta argia il̄untan ageri da,
ta il̄unak ez zun artu.
Gizon bat azaldu zan
Yainkoak bidalia:
Aren izena Yon.
Aitortzat au etoŕi zan,
argiaren aitortzat
aren bidez guziak siñesteko.
Ez zan ori argia,
argiaz aitor egitekoa baño.
Izan ere, bazan Argi ziña,
lur ontara datozan gizakume gu-
argitatzen dituna. [ziak
Ludian zegon,
ta ludia Berak egiña zan;
ludiak, ordea, ez zun bera ezagun.
Beretaŕetara etoŕi zan,
ta beretaŕek ez zuten artu.
Artu zuten guziei, beŕiz,
bere izena siñetsi zutenei,
Yainkoaren seme biurtzeko,
eskubidea eman zien.

Ez dira auek odoletik yayo,
ez aragi-iŕitsetik,
ez giza iŕitsetik,
Yainkoagandik baño.

*(Belauna luŕetaraturta)*

*Ta Itza aragi egin zan*,
ta gurean bizi izan zan,
ta Aren aintza ikusi degu,
Aitaren seme bakaŕari
dagokion aintza
eskeŕez ta egiz betea.
E. Jaungoikoari eskeŕak.



Beregan [illegible]
ta huntsa guargia [illegible]
ta argia ilentan ago[illegible]
ta ilunek ez zuen [illegible]
Gizon bat agaldu zan
Yainkoak bidalia:
Aren izena Yon.
Aitortzat [illegible]
argiaren aitortzat,
aren bitez guziek sinestzeko.
Ez zan ori argia,
argiaz aitor [illegible]
Itoin [illegible]
her etorrik [illegible] gizakume gu-
argitzaxen duena. [ziak
Ludian zegon,
ta ludia Berak [illegible]
ludiak, ordea, [illegible] ezagun.
Beretarretara [illegible]
ta beretarek ez zuten artu.
Artu zuten guziei, beriz,
bere izena sinesten zutenei,
Yainkoaren seme bihurtzeko,
eskubidea eman zien.



# Mez-ixilaren ondoren esateko eskariak

(300 egun bark.)

*Apaizak* Iru Agur Maria *eriarekin batera esaten ditu; ta gero:*

## Agur, Eregiña

Agur, Eregiña, Ama erukiora: gure bizi, gozo ta itxaropena, agur. Zure deiez gaude Eba'ren ume erbestetuok: zuri aiezka, antsiz ta negarez negar-eri onetan. Ea, bada, itzuli itzazu gure bitar-

teko on oŕek, itzuli gugana zure begi eŕukitsu oiek, eta erbeste onen ondoren erakus zaiguzu Jesus, zure sabeleko Seme bedeinkatu ori. ¡O Biozpera! ¡O Eŕukior! O Maria Birjin gozoa.

*g)* Otoitz egizu gure alde Jaungoikoaren Ama Done oŕek.

*e)* Jesukristo gure Jaunaren agindu ak irabazi ditzagun.

## OTOITZA

Jaungoiko gure igesleku ta indaŕa! Dei egiten dizun eŕiari ongi-naiaz begiratu: ta eŕugabeko Birjin zoriontsua, Maria Jaungoikoaren Ama, ta Jose bere senar doatsua, Kepa ta Paul zure Bidaliak eta beste deun guztiak bide ditugula, entzun zure eŕuki ta ontasunean gure eskariak, pekatariak biurtu ditezen, ta gure Eliz Ama donea askatua ta goratua izan de-

din. Jesukristo gure Jaun berberaren izenean. Alaxe.

## Eskaria

Mikel Goiangeru donea, gure buŕuketan gorde gaitzazu, ta deabruaren maltzurkeri ta ekiñaldieri iges egiteko gure gorde-lekua izan zaitez. Aŕen eskatzen diogu Jaungoikoari ondatu ditzala, eta Zuk, zeruko gudarien buruzagi oŕek, gogo indaŕez suleizera bota itzazu gure gogoak galdu nairik munduan dabiltzan deabrua ta bere lagun gaiztoak. Alaxe.

* * *

¡Jesusen Biotz guztiz doatsua, gutzaz eŕuki!

*(7 urte ta 7 beŕogeiko barkapenak mez-ondoren iru aldiz esanda; Garbitokiko animentzat izan litezke).*

[illegible]
bagi [illegible]
unen ondoren erakus zaiguzu Je-
sus, zure sabe[illegible] bedein-
katua. ¡O Bozkari[illegible]! ¡O [illegible]!

[illegible]

[illegible] zaren
[illegible] zoriontsua, Maria Jaungoikoa-
ren Ama, ta Jose bere senar don-
[illegible]
eta beste deun guztiak [illegible]

[illegible]

donea sakatua ta garbia [illegible]




# Meza laguntzeko ta kantatzeko era

A. *In nómine Patris et Filii, et Spritus Sancti. Amen. Introibo ad altare Dei.*

L. Ad Deum, qui laetíficat iuventútem meam.

A. *Iúdica me, Deus et discerne causam meam de gente non sancta, ab hómine iniquo et doloso érue me.*

L, Quia tu es, Deus, fortitudo mea; quare me repulisti, et quare tristis incedo dum afligit me inimicus?

A. *Emitte lucem túam, et veritátem túam: ipsa me deduxerunt et adduxerunt in montem sanctum túum et in tabernacula túa.*

L. Et introibo ad altare Dei; ad Deum qui laetíficat iuventutem meam.

A. *Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus; quare tristis es ánima mea, et quare conturbas me?*

L. Spera in Deo. quoniam adhuc confitebor illi, salutare vultus mei, et Deus meus.

A. *Gloria Patri et Filio et Spiritui Sancto.*

L. Sicut erat in principio, et nunc et semper, et in saecula saeculorum. Amen.

A. *Introíbo ad altare Dei.*

L. Ad Deum, qui laetíficat iuventutem meam.

A. *Adjutórium nostrum in nómine Dómini.*

L. Qui fecit caelum et terram.

A. *Confiteor Deo omnipotenti, etc. Et vos fratres, orare pro me ad Dóminum Deum nostrum.*

L. Misereatur túi omnípotens Deus, et dimissis peccatis túis, perdúcat te ad vitam aeternam.

A. *Amen.*

L. Confiteor Deo omnipotenti, beatae Mariae semper Virgini, beato Michaeli Archangelo, beato Joanni Baptistae, sanctis Apóstolis Petro et Paulo, ómnibus Sanctis et tibi, Pater; quia peccavi nimis cogitatione, verbo et ópere; mea culpa, mea culpa, mea máxima culpa. Ideo praecor beatam Mariam semper Vírginem, beatum Michaelem Archangelum, beatum Ioanem Baptistam, sanctos Apóstólos Petrum et Paulum, omnes Sanctos et te, Pater, orare pro me ad Dóminum Déum nostrum.

A. *Misereatur vestri omnípo-*

*tens Deus, et dimissis peccatis vestris perducat vos ad vitam aeternam.*

L. Amen.

A. *Indulgentiam, absolutionem et remissionem peccatorum vestrorum tribuat vobis Omnipotens et Missericors Dóminus.*

L. Amen.

A. *Deus, tu conversus vivificabis nos.*

L. Et plebs túa, laetábitur in te.

A. *Ostende nobis. Dómine, misericórdiam túam.*

L. Et salutáre túnm da nobis.

A. *Dómine, exaudi orationem meam.*

L. Et clamor meus ad te véniat.

A. *Dóminus vobiscum.*

L. Et cum spíritu túo.

## Kyrie'ra eltzean

A. *Kyrie, eléison.*
L. **Kyrie, eléison.**
A. *Kyrie eléison.*
L. **Christe eléison.**
A. *Christe eléison.*
L. **Christe eléison.**
A. *Kyrie, eléison.*
L. **Kyrie, eléison.**
A. *Kyrie, eléison.*

## Gloria in excélsis Deo

**Et in terra pax homínibus bonae voluntatis.–Laudámus te.–Benedícimus te.–Adorámus te. —Glorificamus te. – Dómine Deus, Rex coeléstis. Deus Pater omnípotens. — Dómine Fili unigénite, Jesu Christe.— Dómine Deus, Agnus Dei, Fílius Patris. –Qui tollis peccáta mundi sús-**

cipe deprecatiónem nostram.— Qui sedes ad déxteram Patris, miserére nóbis. - Quóniam tu solus sanctus. — Tu solus Dóminus.—Tu solus Altíssimus, Jesu Christe.=Cum Sancto Spíritu, in glória Dei Patris.—Amen.

## Kyrie edo Gloria ondorean:

A. *Dominus vobiscum.*
L. Et cum spíritu túo.

## Oremus bukatzean:

L. Amen.

## Epistola bukatzean:

L. Deo grátias.

## Evangelio'an:

A. *Dominus vobiscum.*
L. Et cum spíritu túo.

A. *Sequéntia (edo Initium) sancti Evangélii secundum...*

L. **Glória, tibi Dómine.**

## Credo in unum Deum,

**Patrem omnipoténtem, factorem coeli et terrae, visibílium ómnium et invisibílium.—Et in unum Dóminum Jesum Christum Fílium Dei unigénitum.—Et ex Pátre nátum ante ómnia sáecula.—Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero.-Génitum non fáctum, consubstantiálem Pátri, per quem ómnia facta sunt.—Qui propter nos hómines, et propter nostram salútem descéndit de coelis.-** ***Et incarnátus est de Spíritu Sancto ex María Vírgine: et homo factus est.*** **-Crucifíxus etiam pro nobis sub Póntio Piláto: passus et sepultus est.—Et resurré-**

**xit tértia die, secúndum Scripturas.—Et ascéndit in coelum: sedet ad dexteram Patris.—Et íterum ventúrus est cum glória judicáre vivos et mórtuos: cujus regni non erit finis.—Et in Spiritum Sanctum, Dóminum, et vivificántem: qui ex Patre Filioque prócedit.—Qui cum Patre et Fílio simul adorátur, et conglorificátur: qui locútus est per Prophétas.—Et Unam, Sanctam, Cathólicam, et Apostolicam Ecclesiam.-Confíteor unum baptísma in remissiónem peccatórum.—Et exspecto resurrectionem mortuórum.—Et vitam ventúri saéculi.—Amén.**

A. *Orate frates... omnipotentem.*

L. Suscipiat Dominus sacrificium de manibus tuis ad laudem et gloriam nominis tui, ad utilita-

tem quoque nostram totiusque Ecclesiae suae sanctae.

## Prefatio'an

A. *Per omnia saecula saeculorum.*
L. **Amen.**
A. *Dominus vobiscum.*
L, **Et cum spíritu túo.**
A. *Sursum corda.*
L. **Habemus ad Dóminum.**
A. *Gratias agamus Domino Deo nostro.*
L. **Dignum et iustum est.**

## Sanctus eta Benedictus

**Sanctus, Sanctus, Sanctus Dóminus Deus Sábaoth. Pleni sunt coeli et terra glória tua. Hosánna in excélsis.**

## Pater noster'ean

A. *Per omnia saecula saeculorum.*

L. **Amen.**

A. *Oremus... Et ne nos inducas in tentationem.*

L. **Sed líbera nos a malo.**

## Ostia puskatzean

A. *Per omnia saecula saeculorum.*

L. **Amen.**

A. *Par Domini sit semper vobiscum.*

L. **Et cum spíritu túo.**

## Agnus Dei

**Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi: miserére nobis.—Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi:**

miserére nobis. – Agnus Dei, qui tollis peccáta mundi: dona nobis pacem.

## Jaunartze ondorean

A. *Dominus vobiscum.*
L. **Et cum spíritu túo.**

## Oremus'ak bukatzean

L. **Amen.**
A. *Dominus vobiscum.*
L. **Et cum spíritu túo.**
A. *Ite, Missa est, (edo Benedicamus Domino).*
L. **Deo grátias.**

## Ilen mezatan

A. *Requiescant in pace.*
A. **Amen.**

## Onespenean

A. *Benedicat vos... Spíritus Sanctus.*

L. **Amen,**

## Azken Evangelioan

A. *Dominus vobiscum.*

L. **Et cum spíritu túo.**

A. *Initium (edo Sequentia) sancti Evangéli secundum...*

L. **Glória tibi Dómine.**

## Evangelioa bukatzean

L. **Deo grátias.**

# GURUTZ BIDEA

## Ondespenena

A. *Benedícat vos... Spíritus Sanctus.*

L. Amen.

## Azken Evangelioan

A. *Dóminus vobíscum.*

L. Et cum spíritu tuo.

A. *Initium (edo Sequentia) sancti Evangelii secundum...*

L. Glória tibi Dómine.

## Evangelioa bukatzean

L. Deo grátias.




# JAKINGAIAK

## Gurutz bidea

*Kristaua al zera?*

Bai jauna, kristaua naiz, Jaungoikoari eskeŕak.

*Zer ezaugaŕi degu kristauok?*

Kristauok, Gurutze Donea degu ezaugaŕi.

## Gurutze donea

*Gurutze Donea zer da?*

Gu erosi ta zeruratzeko, gurutzean iltzatua izan zan Kristoren irudia, da Gurutze Donea.

*Gurutzeari agur egitean zer esan bear da?*

Gurutzeari agur egitean, auxe esan bear da: Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez bírerosi zendualako.

**Jesukristo Gurutzean il̄a**

*Zergatik nai izan zuan Jesukristok, Nekaldia igaro ta Gurutzean il?*

Gure pekatuen zoŕak ordaindu ta gu betiko eriotzatik ateratzeaŕen, nai izan zuan Jesukristok, Nekaldia igaro ta Gurutzean il.

*Jesukristoren neke-oñaze guztiak, gu erosteko beaŕezkoak al ziran?*

Ez jauna, Jesukristoren neke - oñaze guztiak ez ziran, gu erosteko beaŕezkoak; aietan txikienak ere ordain-indar mugarik gabea zuan Jaungoikoarentzat.

*Zergatik artu nai izan zituan Jesukristok oŕenbeste neke oñaze?*

Bere guganako maitasuna ta gure obenen itsuskeria guri obeki erakusteaŕen, artu nai izan zituan Jesukristok ainbeste neke-oñaze.

*Nun ta noiz il zan Jesukristo?*

Jerusalen'en Golgota-mendian, Ostiraldeun aŕatsaldean il zan Jesukristo.



# Gurutz bidea

Gurutza Pilato'ŕenean artu ta Golgot mendiraño Jesus gure Jaunak egin zuan bidea da Gurutz bidea. Bide ortan geldialdiak egiñaz lagundu dezayokegu Jaunari; ta au da Gurutz bidea edo Kalbarioak egitea. Barkapenak irabazteko, iñola al dala, ibiĺiz egin bear da Gurutz bidea.

* * *

*Gurutze...*
*Jesukristo nere Jaun...*

## ESKEINTZA

Betiko Aita, Jaun guziz indartsua, begira ez guri, ezpada zure

Seme maite Kristori, ta Gurutz bide ontako ibilera guziak, zure gorapenik aundienerako izan bitez. Eta otoitz oekin irabazten diran barkapen guziak Aita Santuak nai duena egiñaz irabazi nai ditugu, eta Ama guziz garbiaren eskuetatik, zuk nayen dituzun Garbitokiko animen laguntzarako ta gure zorionerako izan bitez. Alaxe.



# Lenbiziko geldi aldia

## Eriotz epaya Jesukristori eman zioten tokia

Gogora ekarzazu kristaua, Jesus gure maiteari, ostiral santu goizean ikaragarrizko zigorkadak eman, arantzazko bureztuna ezarri ta oñaze gogorrak eramanerazi ondoren, gurutzean eta lapur biren erdian iltzeko epaia Pilatos'en aginduz eman zitzaiola.

## OTOITZA

Ain ixiĺik ta ain apalki eriotzarako epaya gure pekatuengatik artu zenun Jesus gure maitea! Zure biotzeko maitasun ta ixiltasun onegatik, aŕen Jauna, idazu egizko damuz nere pekatuen lokaŕiak uŕatuta nere aldeko epaya nik aditzeko laguntza. Alaxe

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoiko laztana.*

(*Maite damu otoi au* abestu nai badezu, ona emen eŕiagandik artutako doñu bat).




℟ *Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Bigaŕen geldi aldia

## Gurutza Jesukristori sorbaldaratu zioten lekua

Gogora ekarzazu kristaua, Jaunari par egiteagatik ipiñi zioten soñeko goŕi ura koroiarekin batera kendu, ta beste soñekoak jantziaziaz ta koroia beŕiro ipiñiaz oñaze gogoŕak eraman erazi zizkiotela, ta boŕeroak gure gaiztakerien astuntasun guzia zeraman gurutza bere bizkar gañean jaŕi ziotela

## OTOITZA

Isaka onak baño obeto, zure Aitaren agindua egiteaŕen ta guri zeniguzun maitetasunagatik, zure bizkaŕean gurutz eguŕa eraman zendun, nere Jesus bildotx guztiz ixiḻa! Zure biotzeko ontasun onegatik, aŕen egidazu nere eragabeko gogo gaiztoak zuk nai dituzun eran zuzendu ditzadala, eta iraun dezadala nere gaizkiegiñen damutasunean; gurutza, beti, zure ondoren gogoz eraman da, luŕeko nekeen bidez, zeruko atsegiña irabazi dezadan. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoiko laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Irugaŕen geldi aldia

## Jesukristo lenengo aldiz erori zan tokia

Gogoŕa ekarzazu kristaua, gure Jesus maitea auldu ta nekatua, ta oñen gañean ezin egon da gurutzearekin luŕera erori zala. Bere inguruan zijoazten gizon gaizto ta biotz gabe aiek, Jaunari lagundu beaŕean, ostikoz joka jaiki erazo zutela.

### OTOITZA

Ene Jesus Jaun guztiz altsua! gure maitasunez onela argaldua

ta luŕa jotzeraño gurutzpean eroria! Zure maitasun ta eramankizun neuŕigabe onegatik aŕen, zure laguntza emaidazu nere gaiztakeri astunen azpitik egizko damutasunaz, Zugana jaiki ta zure gurutzearen ondoren luŕeko neke ta oñazetan pozik ibili nadin, eta zure arpegi edeŕa zeruan ikusi dezadan. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoiko laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Laugaŕen geldi aldia

## Jesukristok bere Ama maite maitagaŕia arkitu zun tokia

Gogora ekarzazu, kristaua, Kalbarioko bide ontan Jesus onak bere Ama maitea negaŕez urturik arkitu zula. Begira ondo, zeiñen begi maitetsuz biak alkar ikusi zuten; nola biotzak biotzari maitasunez itz egin zion.

### OTOITZA

Oñazez betetako Amarik maiteena! Zure biotzeko Semea era txar artan ikusi zendunean: burua arantzaz josirik, arpegi eder

ura txistuz, odolez, eta autzez itxusiturik, gure pekatuen gurutza gañean zuela ta makilka zeramatela! Orduan bai, egiz, ezpata zoŕotzak zure biotza uŕatu zuala! Amarik atsekabetuena! Indazu, aŕen, nere pekatuen ta zure Semearen ta zure atsekabe oyen miña; nere pekatuen barkapena ta zure betiko maitasuna arki ditzadan. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango*
*Nere Jaungoiko laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Boskaŕen geldi aldia

## Jesus maiteari Gurutza eramaten laguntzeko Zirene'tar Simon artu zuten tokia

Gogora ekarzazu, kristaua, oñaze bide ontan gure Jesus ain argal ta nekez, ikaraz eta erortzeko zorian zijoala ikusi zutenean, Simon zeritzan Zirene'tar gizon bat artu zutela; bañan ez eŕukiz, gurutzeko oñazetan iltzen ikusi nai zutelako baizik.

## OTOITZA

Gure pekatuen astuntasuna zure gañean artuta gure bila ain nekez beterik ibili ziñana, ta Simoni bezela, Kalbario bidea egiten erakutsi ziguzun Jesus maitea! Iguzu, aŕen, Jauna, gure pekatuen damua, ta zure atsekabeen min aundia; gurutza eramaten orain zuri lagundu ta gurutzetik datoŕen zoriona izan dezagun. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoiko laztana.*

*Aita gurea. Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Seigaŕen geldi aldia

## Beronika zeritzan andre onak Jesus'i arpegia garbitu zion tokia

Gogora ekarzazu, kristaua, Jaunaren arpegia txistuz, odolez eta autsez beterik Beronika onak ikusi zuela, ta zapi garbi bat artuta arpegia garbitu ziola, ta zapian Jaunak bere arpegiaren iduria ordañez utzi ziola.

### OTOITZA

Nere Jauna, egizko edertasunaren eredua! Gure gaiztakeriak

ořela itsusitu bazinduten, biotzeko damua izango da, noski, zure izerdi, min ta loyak kentzeko bear degun zapi garbia. Iguzu, Jauna, laguntza biotzeko negařaren bidez animak garbitu, zure antz bizi bizia gure gogoak artuta gero zure arpegi edeřa zeruan ikusi dezagun. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beřiz miñik emango,*
*Nere Jaungoiko laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biřerosi zendualako.*



# Zazpigaŕen geldi aldia

## Jesukristo bigaŕenez erori zan tokia

Gogora ekarzazu kristaua, gure Jaunak guruzpean nekatuta, guziz argalduta, bigaŕen aldiz erori ta luŕa jo zuela, Gogora ekaŕi gizagaizto ayek joka jaso zutela ta Jesus onak, auŕera jaŕaituz Jerusalen galdua utzi zula.

### OTOITZA

Nere Jesus eŕukizko Aita! munduaren jabe bakaŕa! Zu zoro ta

ero bat bezela, Jerusalen'dik atera zinduten, ta ala ere, eŕi zorion gabeari eŕukiz begiratu zenion. Jauna zure ontasun eztiaz gure animai begira egiezu, ta gurutzea eramaten guk pozik lagunduko dizugu; ta gure okeŕengatik eŕitik jaurti bazaitue, guk gure biotzetan artuko zaitugu zurekin beti bizitzeko. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoiko laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Zortzigaŕen geldi aldia

## Jerusalengo emakumeai Jesus onak itz egin zien lekua

Gogora ekarzazu, kristaua, Jesus onak, bere nekeen artean, lapur gaizto antzera zijoala, eŕukiz ta negaŕez aren ondoan zijoazten andre onai esan ziena: Jerusalengo alabak ez nigatik, zuen semealabengatik negar egin zazute.

### OTOITZA

Artzai ona bezela gure animen biḻa ibiḻi ziñan, ta Kaḻbarioko

bide gogor artan, zure atsekabeen artean andre biotz on aiei, ta ayetan guri pekatuengatik bear bezela negar egiten erakutsi zenigun Jesus ona! Jauna, argi bizi bat iguzu, aŕen, ardi zuzenen antzera zure dei maitetsua aditu ta, Zure jaŕai-bidetik iñoiz ere aldendu gabe, zure ao gozotik zeruratzeko deia entzun dezagun. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoiko laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu; Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Bederatzigaŕen geldi aldia

## Irugaŕenez Jesus erori zan tokia

Gogora ekarzazu, kristaua, aldapa igotzean indaŕik gabe Jesus maitea irugaŕen aldiz erori zala, ta bere arpegi edeŕa autsez bete zitzayola. Jeiki nai, ta ezin; ta etsai gogoŕak ostikoka, joka ta deadarka gurutzean josirik iltzen ikusi nai zutela ta, jaiki erazo zuten.

## OTOITZA

Nere Jesus, zeruko jabe maitea! Zure gurutza ta luŕeko nekeak, gure nekeak gogo onez eramatera bizkortzen gaituzten nekeak dira, Jauna! nere gaizki egiñak dira Zu bultzaka ta joka luŕean, irugaŕen aldiz erabil̄i zaituztenak! Iguzu aŕen, laguntza orien damu izanaz gurutzearen atsekabeak gure gaiztakerien ordaintzat artu ditzagula; ta zure oñaze ta maitetasuna gogoan iduki ta, oyen saritzat zeruko zoriona iritxi dezagula. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoiko laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*





# Amargaŕen geldi aldia

## Jesukristori bere soñekoak kendu zizkioten tokia

Gogora ekarzazu, Kristaua, gudari odol-zale ayek, eŕukirik eta lotsarikan gabe Jaungoikoaren Semeari, soñekoak kendu ta beazunez naasitako ardoa eman ziotela.

### OTOITZA

Eramankizun miragaŕizko ikasbidea emen ematen diguzuna nere

Jesus! Zenbat naigabetuko zan zure biotza munduaren begietan zure soñekoa kendu, zauriak beŕitu ta lotsa goŕian utzirik, beazuna eman zizutenean! Iguzu, aŕen, Jauna pekatua utzi al izan dezagula, ta zure maitasunezko soñeko beŕia jantzirik, emengo atsegin beazunez beteak utzi-ta, egizko gure atsegiñak arkitzea. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoikoa laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Amaikagaren geldi aldia

## Jaungoiko Semea gurutzan josi zuten tokia

Gogoia ekarzazu, kristaua, Jesus ain bildots on ta ixila, gure pekatuengandik eskeñi bear zana, gurutze gañean ipiñi ta zaiñak uŕatuz iltze gogoŕez josi zutela. Malukada ayek Semearen gorputzarekin batera Ama maite maitagaŕiaren biotza uŕatu zuten!

## OTOITZA

Pekatuak kentzen dituzun Jesus bildots garbia! Maitetasunezko sutegi bizi egiñik egon zan, bai, zure biotza, ixilik eta biotz onez zure esku ta oñak gurutzan jostekoko eman zenituenean! Zure eramankizun onegatik iguzu, Jauna, laguntza, zure beldur, ta maitasunezko iltzez josi ta, zure biotzean beti bizi gaitezen. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beŕiz miñik emango,*
*Nere Jaungoikoa laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Amabigaŕen geldi aldia

## Jesus Gurutzean jaso ta il zan tokia

Gogora ekarzazu, kristaua, gure Jesus, egizko Jaungoiko ta egizko gizona, garutzean jaso ta josirik utzi zutela, eta mendi santu artan gure Eroslea gurutzean zinzilika agertu zala.

### OTOITZA

Nere Jesus maitea! Asketsi, barkatu gaur gure gaizki egiñak, ori

da bada zure oñaze ta zauriak, ori da gure negar malkoak eta biotzeko deadar̃ak Betiko Aitari eskatzen diotena. Ala izan bedi, Jauna, ta gure gaiztakeriak egizko damutasunez garbituta, zurekin il nai degu, zurekin beti bizi gaitean. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana:*
*Ez dizut ber̃iz miñik emango,*
*Nere Jaungoikoa laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez bir̃erosi zendualako.*



# Amairugaŕen geldi aldia

## Gorputz Deuna jetxi, ta Ama maiteari eman zioten tokia

Gogora ekarzazu, kristaua, eriotzarekin batera bukatu zirala gure Jaunaren oñazeak; baña, Ama maitearenak geyago iraun zutela. Gorputz ila, burni ziriz zulatua, Jose ta Nicodemus'ek gurutzetik jetxita Amari eman ziotela. Amaren naigabea ta samintasuna Seme laztanaren gorputz

ila bere besoetan artu ta estutzean!

## OTOITZA

Nere ama txit ona! oñaze ta naigabezko itxaso ondo gabea! Nork esan dezake zure bařenean zer gertatu zan zure biotzeko Semea ilik besoetan artu zenduenean! Aren burua, eskuak, oñak eta biotza irikiak ikusi zenituanean, zer nolako miña zure biotzean! Gure Amarik maiteena, zure samintasun eta naigabe oyengatik gutzaz eřuki zaite, egizko damuz gaiztakerientzat betiko il da, zurekin zeruan bizi gaitean. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut beřiz miñik emango,*
*Nere Jaungoikoa laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez biŕerosi zendualako.*



# Amalaugaŕen geldi aldia

## Obi beŕian Jesus'en Gorputza sartu zuten tokia

Gogora ekarzazu, kristaua, atsekabez betetako Amaren besoetatik, Gorputz deuna Jose ta Nicodemus'ek artu ta izare edo maindire garbi batean bildu eta aŕizko obi beŕian sartu zutela. Nork adirazi Ama minduaren oñaze ta atsekabe samiñak?

### OTOITZA

Martiri guzien Eŕegiña! Samin-

tasunezko geldi aldi ontan, maitetasunezko ta oñazezko lore txorta bat bezela zure Jesus biotz erdian betiko gorde zenun Ama! Zure atsekabe berdingabe onegatik, iguzu ar̃en, izan dezagula zorionik aundiena: gure atsekabezko bakartasun ontan gure gaizki egiñen damuz beterik lur̃ekoak utzi, ta zure Seme Jesus eta Zu zeruan beti maitatzea. Alaxe.

*Damu det, Jauna, biotz biotzez*
*Zuri min eman izana;*
*Ez dizut ber̃iz miñik emango,*
*Nere Jaungoikoa laztana.*

*Aita gurea, Agur Maria ta Gloria.*

Geldi aldi batetik besterakoan, esan: *Agurtu ta bedeinkatzen zaitugu, Kristo gure Jaun ori, gizadia zere Gurutzearen bitartez bir̃erosi zendualako.*

# Jesukristoren bost zauriai

Oñazez betetako nere Ama! zure Semeak neregatik artu zituan bost zauriak, zure auŕean gogora ekaŕi ta gurtu nai ditut. Erakutsi idazu egin nai dedana zuk egin zenun bezela egiten.

## Ezkeŕeko oñeko zauriari

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz maitatzen ta gurtzen zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna, nere ibilera gaiztoen bidez egin dizkizudan gaiztakeri guzien barkapena. *Aita gurea...*

## Eskuiko oñeko zauriari

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz gurtzen ta maitatzen zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna, nere itz eta egite gaiztoz egin dizkizudan gaiztakeri guzien barkapena. *Aita gurea...*

## Ezkeŕeko eskuko zauriari

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz gurtzen ta maitatzen zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna, nere begi ta beste zentzunaz egin dizkizudan gaiztakeri guzien barkapena *Aita gurea...*

## Eskuiko eskuko zauriari

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz gurtzen ta maitatzen zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna nere gogorapen, adimen ta

nayaz egin dizkizudan gaiztakeri guzien barkapena. *Aita gurea...*

## Saietseko zauriari

O nere Jesus'en zauri maitagaŕia! Biotz guztiz gurtzen ta maitatzen zaitut, eta eskatzen dizut, Jauna, zure biotza burni gogoŕak zauritu zun bezela, nere gogoa ere zure maitetasunak zauritu dezala, Zugandik alde egin baño len, iḻik gelditu nadin. Alaxe.

## Bost zauriei Xabier Deunak egunero egiten zien otoitza

Bost zauri gurutzean ta beste ainbeste ta geyago zure nekaldian gugatik artu erazi zizkizun maitasunagatik eskatzen dizugu, nere biotzeko Jaun eta Jaungoiko Jesukristo!, Zure odol ongiḻeaz erosi ginduzunok zure biotz onak zure ondora eraman gaitzala. Alaxe.

# ONDO ILTTZEN LAGUNTZEKO ELIZ OTOIAK



*«Zure eskuetan uzten det, Aita, nere gogoa».*

*(L. 26, 46.)*

---

**Xabier Deunaren eriotza**




# JAKINGAIAK

## Azken-igurtzia

*Zertarako da Azken-igurtzia?*

Lau gauzatarako da Azken-igurtzia: Lenengo, Jaungoikoaren grazia geitzeko; bigaŕen, izandako bizitza okeŕaren aztarna ta kutsuak eta gañerako pekatu ariñak kentzeko; irugaŕen, miñaren nekeak gogo onez eraman eta inpernuko etsaien ziri-kaldiak azpiratzeko indaŕa animari emateko; laugaŕena, animarentzat on ba-da, gorputzari osasuna emateko.

## Azken-igurtzia artzera beartuak daudenak

*Nor dago azken-igurtzia artzeko beartua?*

Iltzeko ariskuan eri dauden ezagueradun kristauak daude Azken-igurtzia artzeko beartuak.

*Nolako obena egiten du, Jaungoikoaren grazian egon gabe, Azken-igurtzia artzen duanak?*

Jaungoikoaren grazian egon gabe Azken-igurtzia artzen duanak, oben astuna egiten du.

*Zer egin bear du, beraz, oben astunean dagonak, Azken-igurtzia artzeko?*

Oben astunean dagonak aitortu egin bear du, Azken-igurtzia artzeko, ta ezin ba-du, maite-damuz damutu bedi.

## Azken-igurtzia noiz artu bear dan

*Noiz artu bear da Azken-igurtzia?*

Al baldin ba-du, ezaguera duan bitartean artu bear du eri dagonak Azken-igurtzia; Elizakoak artuta bereala egokiena.

## Eriotza

*Zer da eriotza?*

Anima ta gorputzak alkar uztea da eriotza.

*Zer gertatzen zaio gorputzari il ondorean?*

Usteldu ta auts biurtzen da gorputza il ondorean.

*Ta munduaren bukaeran, ildako guztiak piztuko al dira?*

Bai jauna, munduaren bukaeran piztuko dira ildako guztiak, len izan zituzten gorputz eta anima berakin.

## Bakoitz auzia

*Zer gertatuko zaio gure animari gu ildakoan?*

Gu ildakoan, gure animari Jaungoikoak bakoitz-auzian epaia emango dio.

*Nora joango da gure anima bakoitz-auziaren ondorean?*

Bakoitz-auziaren ondorean gure anima, edo inpernura, edo garbitokira, edo zerura joango da, bakoitzak irabazi duanez.

## Inpernua

*Inpernua zer da?*

Gaizto galduak, Jaungoikoa ikusi gabe, beti-betiko oñazetan dauden lekua da inpernua.

*Nortzuk joaten dira inpernura?*

Oben astuna egin-da Jaungoikoaren asaŕean iltzen diranak, joaten dira inpernura.

## Garbitokia

*Garbitoki edo purgatorioa zer da?*

Jaungoikoaren grazian, bañan beren obenen zoŕa oso ordaindu gabe iltzen diranen animak joaten diran lekua da Garbitoki edo Purgatorioa.

*Zertarako joaten dira animak Garbitokira?*

An izugaŕizko oñazetan garbituak izateko, joaten dira animak Garbitokira.

*Lagundu al dizaiekegu Garbitokiko animai?*

Lagundu dizaiekegu Garbitokiko animai otoitz, barkapen, limosna ta gañerako egintza onen bidez, Meza Donearen bitartez, batez ere.

*Ezaguerarik ez dutenak, Bataio gabe ilezkero, nora joaten dira?*

Ezaguerarik ez dutenak, Bataio gabe ilezkero, umeen linbora joaten dira, an zeruko zorion eta inpernuko zorigaitzik gabe izateko.

## Zerua

*Zerua zer da?*

Jaungoikoa ikusiaz ta maitatuaz, betibetiko atsegiñetan, batere gaitzikan gabe zoriondunak bizi diran tokia da zerua.

*Nortzuk joaten dira zerura?*

Jaungoikoaren grazian iltzen diranak joaten dira zerura.

## Betiko bizitza

*Zer esan nai du «Betiko bizitzak»?*

Emengo bizitza onen ondorean, bein ere bukatuko ez dan bizitza, izango degula, esan nai du «betiko bizitzak».

*Nolakoa da betiko bizitza?*

Betiko bizitza, onentzat zorionekoa izango da beti zeruan, eta gaiztoentzat zorigaiztokoa beti inpernuan.

*Inpernura ez joateko ta zerua iristeko zer egin bear degu?*

Inpernura ez joateko ta zerua iristeko Jaungoikoaren Legeko aginduak gorde bear ditugu.

## Zerua

*Zerua zer da?*

Jaungoikoa ikusiaz ta miatatuaz, betiko atsegiñetan, batere gaitzikan gabe zoriondunak bizi diran tokia da zerua.

*Norzuk joaten dira zerura?*

Jaungoikoaren grazian iltzen diranak joaten dira zerura.

## Betiko bizitza

*Zer esan nai du «Betiko bizitzak»?*

Emengo bizitza onen ondorean, betiere bukatuko ez dan bizitza, izango degula, esan nai du «betiko bizitzak».

*Nolakoa da betiko bizitza?*

Betiko bizitza, onentzat zorionekoa izango da beti zeruan, eta gaiztoentzat zorigaiztokoa beti infernuan.

*Infernura ez joateko ta zerura iristeko zer egin bear degu?*

Infernura ez joateko ta zerura iristeko Jaungoikoaren Legeko aginduak gorde bear ditugu.



# EGITEKOAK

## Gaxo zaudenean

Gaxo bazaude, kristaua, sendalarien eskuetan zure burua utzi zazu; Jaungoikoaren legeen kaltezko txorakeri aundia da, aŕokeriz, ikusi oi dan bezela, sendatzal̄earen laguntza aintzakotzat ez artzea.

Bañan zeruko sendatzal̄earengana batez ere jo zazu: osasuna eskatu zaiozu, zure onerako izango bada; bestela, eriotz ona egitea.

Azken ordurako ez utzi elizakoak eskatzea: makiñabat, usterik gutxienean, eriotzaren mendean betiko erori dira, Eliz Amaren azken laguntzik gabe. Beldurgaŕizko eriotza, kristau oiena! eta, zoritxaŕekoak orobat aitzaki gezurtiekin betiko

galera, agian, irabazi dieten guraso ta lagunak.

### Eriotza uŕean dagonean

Orduan batez ere, gaxo dagonari zor diogu laguntza, betiko zorionaren edo azken gabeko zoritxaŕaren epaia, gaxo oŕentzat bereala emango da-ta.

Suleizeko etsai gaiztoak bere aldetik iñoiz baño alegin aundiagoak egingo ditu orduan anima ori galdu dezan; lagundu dezaiogun gure aldetik Eliz Amak, laŕialdi ortarako eratu dituen otoitz edeŕak esanaz:

## OTOITZA

Gurutze auŕen kandela piztu, ta belaunikaturik esan:

### Eskariak

Jauna, *onen alde otoitz egizu.*

Jesukristo, *onen alde otoitz egizu.*

Jauna, *onen alde otoitz egizu.*

Maria Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Aingeru eta Goiaingeruak, *onen alde otoitz egizute.*

Abel Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Zoriontsuen sail osoa, *onen alde otoitz egizute.*

Abraham Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Juan Batailari Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Jose Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Aita-len eta igarle Deun guziak, *onen alde otoitz egizute.*

Petrus Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Paulus Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Andreas Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Bidali eta Ebaingelari Deun guziak, *onen alde otoitz egizute.*

Silbester Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Gregorius Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Agustin Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Gotzai edo Aitorle Deun guziak, *onen alde otoitz egizute.*

Benedictus Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Franziskus Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Camilus Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Juan de Dios Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Lekaide ta Eŕemutar Deun guziak, *onen alde otoitz egizute.*

Maria Magdalena Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Luzia Deuna, *onen alde otoitz egizu.*

Birjin eta Alargun Deun guziak, *onen alde otoitz egizute.*

Jaungoikoaren Santu guziak, *onen alde otoitz egizute.*

Onen alde zeralarik, *barka zaiozu Jauna.*

Onen alde zeralarik, *gorde zazu Jauna.*

Onen alde zeralarik, *Gorde zazu Jauna.*

Zure asaŕetik, *Gorde zazu Jauna.*

Eriotz zoritik, *Gorde zazu Jauna.*

Eriotz txaŕetik, *Gorde zazu Jauna.*

Suleizeko neke oñazetatik, *Gorde zazu Jauna.*

Gaitz guztietatik, *Gorde zazu Jauna.*

Etsaiaren mendetik, *Gorde zazu Jauna.*

Zure jayotzagatik, *Gorde zazu Jauna.*

Zure gurutze nakaldiagatik, *Gorde zazu Jauna.*

Zure eriotz lurperatzeagatik, *Gorde zazu Jauna.*

Zure piztuera adigańiagatik, *Gorde zazu Jauna.*

Zure ańigańizko igoeragatik, *Gorde zazu Jauna.*

Espiritu Santuaren doiengatik, *Gorde zazu Jauna.*

Azken epai egunean, *Gorde zazu Jauna.*

Guri pekatarioi, *entzun zaiguzu.*

Barka, aŕen, zaiozula, *entzun zaiguzu.*

Jauna, *gutzaz eŕuki.*

Jesukristo, *gutzaz eŕuki.*

Jauna, *gutzaz eŕuki.*

## OTOITZA

Zoaz, ludi ontatik Kristo-zale izandako ori, zure egile dan Jaungoiko guziz altsuaren izenean.

Zoaz zugatik ildako Jaungoiko

bizi Seme Jesukristoren izenean.

Zoaz zure baŕuan egondako Espiritu Santuaren izenean.

Zoaz Jaungoikoaren Ama Deun ta aintzagaŕi Maria garbiaren izenean.

Zoaz Mariaren Senar ospatsu Jose zoriontsuaren izenean.

Zoaz Aingeru ta Goi-aingeru, Jaunalki, Nagusi, Agintari, Indardun, Serafin eta Kerubin Aingeruen izenean.

Zoaz Patriarka, Igarle, Bidali, Ebaingelari, Ziñopa ta aitorleen izenean.

Zoaz, bai, Lekaide ta Lekaime, Biotz-garbi ta Deun guzien izenean

Goian bego gaur zure bizitokia; ta Zeruko Sion paketoki artan bego gaur zure etxea, Jesukristo gure Jauna dala bide. Alaxe.

## OTOITZA

Damu diranen ogenak askatu, ta egin izandako gaiztakerien ordain bearak zure eŕuki aundiz garbitzen dituzun Jaungoiko Biotz bera, ezti ta ona zeran oŕek begira zaiozu (N. esan gaxoaren izena) zure menpeko oni. Biotz aitorpen osoz bere ogen guzien barka eske dezu ta, entzuiozu, aŕen.

Aita maite oŕek, bere argalkeriz edo etsaiaren maltzurkeriz, zerbait ustelik ta bidegabezkorik onegan balitz, aŕen txukundu zazu, ta Eleiz Amaren alkartasunean seme au batu zazu.

Eŕuki zaitez, Jauna, onen negaŕez; eŕuki onen malkoz, ta bere itxaropen osoa zure biotz onean bakaŕik duan ezkero, zure adiskitasunean arzazu, Jesukristo gure Jauna dala bide. Alaxe.

Nere biotzeko senide ori, Jaungoiko guziz altsuak egiña zera-ta bere eskuetan uzten zaitut, gizatasuna izan dezulako egin dezun zoŕa eriotz bidez garbitu ta, zure Jabe ta lur buztiñez egin zinduarengana joan zaitezen.

Beraz zure gogo oŕi, soiñ baŕutik irten orduko aingeru talde argitsua bidera batorkio.

Auŕera betorkizula Bidali batzar epailaria. Zuriz jantzitako ziñopa talde garailea zureganatu bedi.

Aitorle disdiratsuen sail argiak erdian artu zaitzala.

Emakume garbi alaitsuen goiabesbatzak beregana zaitzala.

Patriarka'en besarkadaz estututa zoriontsu izan zaitezela.

Il-zori diran guzien Zaindari maitagaŕi dan Jose Deunak itxaropen aundiz bete zaitzala.

Jaungoikoaren Ama maiteak bere begi gozoak zuregana biurtu bitza.

Jesukristoren arpegia bigun eta argitsu ager zatzakizu, ta Berak ala nairik, Bere aurekoen artean jari zaitzala.

Ez ilunpeko ikarik, ez sugaretako karaskarik, ez ta oñaze goririk ere iñoiz etzazula ikusi.

Deabru bildurgariak eta bere taldeko etsaiak geldi laga zaitzatela. Ta zu aingeruen artean ta oen bidean ikusirik bildurez eta amoruz bijoala deabrua betiko gau beltzera.

Jeiki bedi Jaungoikoa eta bere etsaiak uxatu bitza, ta goroto ziotanak Jaungoikoaren auretik aldegin dezatela.

Gora dijoan keia, ta suondoko argizaria bezela, aize ta ur biurtu bitez gaiztoak Jaungoikoaren aurean. Beraz, lotsatu, ta bil bitez inpernuko etsai-pil guztiak, ta zuri zeru bidea eragozten ausartu ez ditezela.

Gurutzean gure aldez josi izandako Jaunak oñaze bidetik aldendu zaitzala.

Zuregatik eriozpetu nai izan zuan Kristok, betiko eriotzatik aldendu zaitzala.

Jaungoiko biziaren Seme dan Jesukristok zorioneko zelai beti berian jari zaitzala; ta egizko artzai onak bere artalderako aukeratu zaitzala.

Beraz zure pekatu guziak barka bitzaizkizu, eta bere eskubi aldean aukeratuen arteko zorionean euki zaitzala.

Aurez aure ikusi dezazula bai, zure Eroslea; ta bere begiko beti iraunda, egi argi ori begi zoriontsuz begira zazu.

Beraz, zerutaren artean egonaz, Jaungoikoaren arpegi gozoaren gozoan bizi zaitez menderen mendetan.

## OTOITZA

Biotz oneko zeran, Jauna; zure mendeko au zeru bidean jaŕi zazu. Alaxe.

Zure menpeko au inpernu-bidetik, oñaze estu eta nola naiko beste min guzietatik uŕutiratu zazu, aŕen, Jauna. Alaxe.

Elias eta Enok beaŕezko eriotzatik aldendu zenitun Jaun oŕek zure menpeko onen gogoa ere aldendu zazu Jauna. Alaxe.

Noe ujoletik bizirik atera zenun bezela, zure menpeko onen gogoa ere bizirik atera zazu, Jauna. Alaxe.

Jauna, kaldetaŕen Ur eŕitik Abraham atera zenun bezela, zure menpeko onen gogoa gaitzik gabe, aŕen, atera zazu. Alaxe.

Job bere oñaze goŕietatik atera zenun Jaun oŕek, zure menpeko

onen gogoa ere atera zazu. Alaxe.

Jauna, Isaka, il beaŕetik ta bere aitaren eskuetatik atera zenun bezelaxe, zure menpeko onen gogoa ere atera zazu. Alaxe.

Jauna, Sodoma'tik ta sugaŕetatik Lot uŕutiratu zenun bezela, zure menpeko onen gogoa ere sulezetik uŕundu zazu. Alaxe.

Ijitoko Paraon eŕegeren zigorpetik Moises atera zenun Jaun oŕek, zure menpeko onen gogoa ere etsai eskuetatik gorde zazu, aŕen, Jauna. Alaxe.

Jauna, Daniel legoe zulotik atera zenun bezela, zure menpeko onen gogoa atera zazu. Alaxe.

Jauna, labe goŕiko sutik eta eŕege gaiztoaren eskuetatik iru gazte aiek gorde zenitun bezela, zure menpeko onen gogoa ere gorde zazu. Alaxe.

Susana gezuŕezko salaketatik

atera zenun Jaun oŕek zure menpeko onen gogoa ere atera zazu, Jauna. Alaxe.

Zuk Jauna, Goliat'en eta Saul eŕegearen menpetik Dabid atera zenun bezela, zure menpeko onen gogoa ere atera zazu. Alaxe.

Kepa eta Paul giltzapetik gorde zenitun Jaun oŕek, zure menpeko onen gogoa ere aŕen, gorde, Jauna. Alaxe.

Tekla gizkarbi eta ziñopa zoriontsua ikaragaŕizko iru oñaze tokietatik askatu zenun Jaun, oŕek, zure menpeko onen gogoa ere askatu. Ta zeruko atsegiñetan zure pozkide egin zazu. Alaxe.

## OTOITZA

Zure menpeko onen gogoa zure eskuetan ipintzen dizugu, gizon guzien Gaizkatzale zeran gure Jaun Jesukristo! ta bere eŕukiz lu-

ŕeratu ziñan oŕek ez, aŕen orain, Patriarken zorioneko magaletatik aldendu. Zure eskuz egindako au zuretzat arzazu; ez baita bestelako Jainko izunak egiña, Zuk, egizko Jainko bizi oŕek egiña baizik. Zu beste Jaungoikorik ez da; ezta Zu bezelako egilerik ere. Zure ondoan onen gogoa atsegiñez bete zazu; ta bere aspaldiko gaiztakeriz ta aŕokeriz ez oroitu; orduan grin gaiztoko bero ta suak zeragion bada. Eta iñoiz pekatu egin bazun ere, Aita, Seme ta Espiritu Santua zalantzikan gabe sinistu ta aitortu zula oar zaitez, baita biotzez Jaungoikozale izan zala eta guztien Egile dan Jaungoikoa zintzoki jauresten ta gurtzen zula ere.

## OTOITZA

Onen gaztaroko arduragabekeri ta gaiztakeriak gogoan artu ga-

be, Jauna; zure eŕuki aundiari dagokionez, zeru argitsuan onetzaz oroi zaite.

Zeruko ateak zabal zatzaikio ta aingeruak poztu bezate! Zure Jauŕerian zure moroitzat ar zazu. Mikel, Goiaingeru Deuna, beste aingeru guztien buruzagi dan Mikel ura bidera betorkio; betoz, bai aingeru guztiak; eta Zeruko Jerusalen eŕira eraman bezate. Jaungoikoak zeruko atezai egindako Kepa bidalia betorkio. Betor laguntzera Paul Bidali langile autatua. Betor bere alde zeruko izkutuak argi ikusi zituan Yon Jaungoikoaren kutuna.

Betoz lotzeko ta askatzeko almena zuten Bidali guztiak onen alde otoitz egitera. Betoz ludian oñazeak eraman zituen Deun ta Jaungoikoaren maite guztiak, au ere bide ontako aragiaren lokaŕiak uŕatu ta zeru zabaleko argira

eldu dedin. Aita eta Espiritu Santuarekin menderen mendetan bizi dan Jesukristo gure Jauna bide dala. Alaxe.

## OTOITZA

Andre Mari Jaungoikoaren Ama ezti ori! N. zure menpekoaren gogoa zuk, atsekabetuen pozkiḻe on oŕek, eraman zazu zure Semearengana. On zeran oŕen bidez eriotz ikaragaŕiaren beldur izan ez dedin, ta zure laguntzaz zure abeŕiko etxe maitean poz pozik sartu dedin.

## OTOITZA

Zugana natorkizu il zorian dauden guzien Zaindari zeran Jose Deun ori. Zure eriotz orduan Jesus ta Maria'ren besoetan egon ziñan. Orain, bada, zure biotzeko maite bi oen bitartez, lagun

egiozu, aŕen, N. zure menpeko onen gogoari, bere azkeneko estuasun goŕi ontan, zure laguntzaz etsaien maltzurkeritik eta azkengabeko eriotzatik aldegin eta betidañoko pozean baŕuratu dedin. Jesukristo gure Jauna dala bide. Alaxe.

## OTOITZA

Gizadia jasotzeaŕen, jaioa, bil̃ebakia, judaŕek gaiztetsia, Judas maltzuŕaren musuz saldua, lokaŕiz lotua, eŕugabeko bildotsa bezela eriotzerako emana izan ziñan Jauna! Anas, Kaipas, Erode ta Pilatore'enean eragabeki alketua, zigorkatua, itz gaiztoz mindua, txistuz zikindua, arantzaz zulatua, masail̃ekoz zauritua izan ziñan Jaun oñazez betea. Zeoŕek nai zendula laga zenien judaŕai zure arpegia estali, soñekoak kendu, iltzez gurutzari josi, gurutzean jaso,

lapur artean ipiñi, beazun ardoa edanerazi ta burni ziriz saietsa zulatzen. Jauna nor ez naizen onek gogoratu ditudan zure oñaze gurgaŕi oen bidez, ta zure gurutz ta eriotz deunaren bitartez, inpernuko oñazeetatik onen anima aldendu zazu, aŕen; ta zurekin batean gurutzatutako lapur ona eraman zenduan tokira au ere eraman zazu. Betidaño Aita ta Espiritu Santuarekin bizi ta Jaun zeran oŕek. Alaxe.

*Ia ileȧn dagonaren aldez iru Aita Gure ta iru agur Mari esateko iru otoi xamur onuragaŕiak:*

*Kyrie eleison, Christe.., Kyrie..; Aita gurea, Agur Maria.*

## OTOITZA

Gure Jaun Jesukristo, zure eriotz gogor deunaren, ta Olio mendiko otoitz aldian odol-izerdia tantoka

luŕa bustitzeraño ixurizeaz gure aldez egin zendun otoitzaren bitartez, gure onerako eriotz-ikaraz ixuri zendun alako odol-izerdi ugari ura, goiko Aita guziz altsuari N. zure menpeko oneń pekatu guzien ordez, azaldu ta eskeñi zaiozu, aŕen; ta miñ oñaze oriek bere pekatuengatik izan zirala esaiozu; ta ikaraz daukazuń oni barka zaizkiozu eriotz ordu ontan laŕia damaioten pekatuen zor ta ordaindu bear guziak. Betidaño Aita ta Espiritu Santuarekin batera bizi ta Jaun zeran oŕen bidez. Alaxe.

*Esan Kyrie eleison, Kriste eleison, Kyrie eleison; Aita gurea, eta Agur Maria.*

## OTOITZA

Gurutzean gugatik il nai izan zendun Jesukristo gure Jauna! Zuk

gurutzean gu pekatari eŕukaŕiengatik eraman zenitun miñ eta atsekabe ain samiñak, eta batez ere, zure gorputz deunetik zure anima deuna irtetzerakoan izan zenituanak, Jaungoiko Aita guziz altsuari, N. zure menpeko onen animaren aldez eskeñi zaizkiozula eskatzen dizugu; ta bere pekatuz irabazi izan zituala-ta ikara ematen dizkioten miñ ta oñazeetatik bere eriotzako ordu ontan atera zazu, aŕen. Betidaño Aita eta Espiritu Santuarekin batean bizi ta Jaun zeran oŕek. Alaxe.

*(Esan Kyrie...; len bezela).*

## OTOITZA

Igarleen aoz: «betidanik maite izan zaitut, oŕegatik maiteki nereganatu zaitut» esan zendun Jesukristo gure Jauna! zure Nekaldi guziak artzeko zerutik luŕera era-

kaŕi zinduzen zure maitasun ura Goiko Aita altsuari zure menpeko N. onen aldez erakutsi ta eskeñi zaiozu, aŕen; ta bere pekatuz edo irabazi zituala ta ikara damakioten miñ oñazeak kendu zaizkiozu; irtetzeko dagon anima au zerura zazu.

Zabal zaiozu bizitz atea, ta betiko atsedenean zure santuen pozkide egizu. Eta zure odol bikañez erosi giñuzun Jesukristo gure Jaun biotzbera ori, onen animaz eŕuki zaite, eta beti alai eta eder dan zoriondegira sartu ezazu zure maiteen artean, iñoiz ere itzaltzen ez dan maitasun galdu eziñekoan zuretzako beti bizi dedin. Betidaño Aita eta Espiritu Santuarekin bizi ta Jaun zeran oŕen bidez. Alaxe.

## Azken arnasean

Zure eskuetan nere gogoa uzten

det, Aita! Nere Jaun Jesukristo, nere gogoa ar zazu. Andre Maria Deuna, nere alde otoi egizu. Esker eŕukizko Ama gorde ta zaitu nazazu orain nere eriotz laŕian; ta il orduko artu nazazu. Jose maite on ori, nere aldez otoi egizu ta Jaungoikoaren biotz eŕukitsua zure Emazte garbiaren laguntzaz zabaldu zaidazu. Jesus, Maria ta Jose, zuei nere biotza ta nere gogoa. Jesus, Maria, ta Jose, zuekin pakean etzanik lo egin dezadan egizute.

*Iltzen dagonak al badu ta bestela laguntzen dionak esan beza iru aldiz:*

*Jesus!*
*Jesus!*
*Jesus!*

## Il ondorean

R/ Jaungoikoaren Deunak, atozte. Jaunaren aingeruak, bere

bidera irten zaitezte Bere gogoa jasorik, Jaungoikoaren aurera eraman zazute.

V/ Dei egin dizun Kristok beregan zaitzala, eta Abraham'en altzora aingeruak eraman zaitzatela.

R/ Bere gogoa jasorik, Jaungoikoaren aurera eraman zazute.

V/ Betidañoko atsedena emaiozu, Jauna! Ta azkengabeko argiak argi beza! Jaungoikoaren aurera eraman zazute.

Jauna eruki
Kristo, eruki
Jauna, eruki
(Aita Gurea ixilik)
Ez gaitzazula utzi...
Baizikan gorde...

V/ Betidañoko atsedena emaiozu, Jauna.

R/ Ta azkengabeko argiak argi beza.

V/ Inpernu atetik.

R/ Bere gogoa gorde zazu, Jauna.

V/ Goian bego.

R/ Alaxe.

V/ Jauna nere otoitza entzun.

R/ Ta nere deia zuregana bedi.

V/ Jauna zuekin.

R/ Baita zure gogoarekin ere.

## OTOITZA

Zure ardurapen N.'ren gogoa jartzen dizugu, Jauna; guretzat il aŕen, zuretzat bizi dedin; ta gizarteko argalkeriz egin oi zitun pekatuak, zuk eŕukiz ta maitez barka zaizkiozu. Gure Jaun Jesukristo bide dala. Alaxe.

* * *

## Oaŕa

Il danagatik negar egitea ez da aŕigaŕia; bañan il danaren animari egin dezayokezun onik aundiena da otoi egitea, mezak atera ta entzutea, Jauna artzea, barkapenak ildakoarentzat irabaztea.



Loyolako Argi Izpiak

# JAKINGAIAK

## Sakramentuak

*Sakramentuak zer dira?*

Jesukristo gure Jaunak bere grazia ta onoimenak guri emateko jaŕi zituan ezaugaŕi ageriak dira Sakramentuak.

*Sakramentuak zergatik dira ezaugaŕiak?*

Ematen duten grazia adirazten dutelako, dira ezaugaŕiak, Sakramentuak.

*Sakramentuak artzen dituzten guztiak, artzen al dute grazia ere?*

Ez jauna, Sakramentuak artzen dituzten guztiak ez; bear bezela artzera dijoazenak bakaŕik artzen dute grazia.

## Zeruratzeko Sakramenturik beaŕenak

*Zein dira zeruratzeko Sakramenturik beaŕenak?*

Zeruratzeko Sakramenturik beaŕenak bi dira: Bataioa ta Aitortza.

*Norentzat dira beaŕezkoak Bataioa ta Aitortza?*

Bataioa, guztiontzat da naitanaiezkoa; Aitortza, beŕiz, bataiatuzkero oben astunen bat egin dutenentzat.

## Bein baizik artu ezin ditezken Sakramentuak

*Zein Sakramentu dira bein baizik artu ezin ditezkenak?*

Bein baizik artu ezin ditezken Sakramentuak iru dira: Bataioa, Sendotza ta Apaizgintza.

*Zergatik ez dira Bataioa, Sendotza ta Apaizgintza bein baizik artzen?*

Graziaz gañera, ezaugaŕi kendu-ezin bat animan ezartzen dutelako, ez dira Bataioa, Sendotza ta Apaizgintza bein bestetan artzen.

## Grazia – Zerutar emaitza

*Grazia zer da?*

Jesukristo gure Jaunak guretzat irabazita zeruratzeko ematen zaigun zerutar emaitza da grazia.

*Zenbat eratakoak dira graziak?*

Bi eratakoak, batez ere, dira graziak: donetzalea bata ta laguntzaleak besteak.

*Zer da grazia donetzalea?*

Gizona Jaungoikoaren seme ta zeruaren jabegai egiten duan Jaungoikozko izaki bat da grazia donetzalea.

*Zer dira grazia laguntzaleak?*

Pekatua utzi ta ona egiteko guztioi Jaungoikoak ematen dizkigun laguntzak dira grazia laguntzaleak.

*Grazia laguntzalea beařezkoa al da?*

Grazia Laguntzalea beařezkoa da: bera gabe ezin dezakegu, ez asi, ez jařaitu, ez bukatu, zerurako on danik ezertxo ere.

*Grazia donetzalea beařezkoa al da?*

Zerua iristeko ta gure egintza on guztiak sarigaři ta ordaingai izan ditezen, naitanaiezkoa da grazia donetzalea.

*Eta pekatu astunean daudenen egintza onak ez al dira ezertarako gauza?*

Pekatu astunean daudenen egintza onak ez dira, ez sarigaŕi ez ordaingai, baña mesederen bat Jaungoikoagandik iristeko gauza dira.

## Sinismena, itxaromena, goi-maitasuna

*Zein onoimen edo birtute ematen dituzte Sakramentuak grazi donetzaleaŕekin batean?*

Jaungoikozko iru onoimen edo birtuteak, sinismena, itxaromena ta goi-maitasuna, batez ere, ematen dituzte Sakramentuak grazi donetzaleareakin batean.

*Zer da sinismena?*

Ikusi ez deguna, Jaungoikoak ala agertu ta Ama Eliza Doneak erakusten digulako, siñestarazten digun onoimen zerutaŕa da sinismena.

*Zer da itxaromena?*

Jaungoikoaren grazia ta gure egintza onen bitartez zerua iritxiko degula usteerazten digun onoimen zerutaŕa da sinismena.

*Zer da goi-maitasuna?*

Jaungoikoa, beste ezer baño geiago, ta gure lagun urkoa Jaungoikoagatik geren burua bezela maitarazten digun onoimen zerutaŕa da goi-maitasuna.

## Oitura-onoimenak

*Jaungoikozko onoimenez gañera beste zein onoimen sortzen dituzte Sakramentuak gure animetan?*

Jaungoikozkoaz beste, oitura-onoimenak sortzen dituzte Sakramentuak gure animetan.

*Zein dira oitura-onoimenak?*

Oitura-onoimen nagusienak, lau dira: Zurtasuna, zuzentasuna, sendotasuna ta neuŕiztasuna.

## Bataioa

*Zertarako jaŕia da Bataioa?*

Jatoŕizko obena ta Bataioa artzera datoŕenak izan dezaken beste edozein oben kentzeko jaŕia da Bataioa.

*Noiz eraman bear dira umeak Elizara bataiatzeko?*

Alik lenena eraman bear dira umeak Elizara bataiatzeko.

*Eta estualdietan nork bataiatu dezake?*

Estualdietan, ezaguera duan edozein gizaseme naiz emakumek bataiatu dezake.

## Nola bataiatu bear dan

*Eta nola bataiatu bear da?*

Onela bataiatu bear da: Auŕari, al dala buru gañean, ur utsa ixuriaz, ta bataiatzeko asmoz esanaz: Nik bataiatzen zaitut Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu Santuaren izenean».

*Zer egitera beartzen da bataiatua?*

Jesukristoren sinismenean iraun eta bere Legeko aginduak betetzera beartzen da bataiatua.

*Zer uztera beartzen da bataiatzen dana?*

Inpernuko etsaia ta bere egintza ta aundikeriak bein betiko uztera beartzen da bataiatzen dana.

## Sendotza

*Zertarako da Sendotza edo «Confirmazioa» deritzan Sakramentua?*

Bataioan artu genduan sinismena sendotu ta idartzeko da Sendotza edo «Confirmazioa».

*Nola artu bear da sendotza?*

Jaungoikoaren grazian artu bear da Sendotza, ta grazian egon gabe artzen duanak oben astuna egiten du.

*Zer egin bear du, beraz, oben astunean dagonak, Sendotza artzeko?*

Oben astunean dagonak, Sendotza artzeko, aitortu egin bear du.

## Apaizgintza

*Zertarako da Apaizgintza deritzan Sakramentua?*

Elizako zaitzaleak, Apaiz, Diakono ta Subdiakonoak igurtzi ta artarakotzeko, da Apaizgintza deritzan Sakramentua.

*Elizako zaitzaleai begirapen eta lotsa izan bear al zaie?*

Bai jauna, Elizako zaitzaleai begirapen eta lotsa berezia izan bear zaie, Apaizai, batez ere.

*Zergatik izan bear zaie lotsa ta begirune berezia Apaizai ta Elizgizonai?*

Jaungoikoaren ondasun zaiak eta Jesukristoren oñordekoak diralako, izan bear zaie lotsa ta begirune berezia Apaizai ta Elizgizonai.

## Ezkontza

*Zertarako da Ezkontza deritzan Sakramentua?*

Ezkontzeko, ta ezkonduai, elkaŕekin pakean bizi-ta seme alabak zerurako azi ditzaten, Jaungoikoaren laguntzak emateko, da Ezkontza deritzan Sakramentua.

*Eta zer bear da Sakramentu au ondo artzeko?*

Sakramentu au artzean oben astuna egingo ez bada, beaŕezkoa da ezkongaiak Jaungoikoaren grazian izatea.

*Eta oben astunean dagonak zer egin bear du Sakramentu au bear bezela artzeko?*

Oben astunean dagonak Ezkontza bear bezela artzeko, aitorketa on baten bitartez Jaungoikoaren grazian jaŕi bear du.

## «Matrimonio civil» deritzana

*«Matrimonio civil» deritzan ori kristauen artean Sakramentua al da?*

«Matrimonio civil» deritzan ori kristauen artean ez ezkontza ta ez Sakramentu, sasi-ezkontza zatar bat baizik ez da.

*¿Egin al dezakete kristau katolikuak «Matrimonio civil» deritzan olakorik?*

Gero, legezko beren eskubideetan okeŕik izan ez dezaten, egin dezakete Kristau katolikuak ere «Matrimonio civil» deritzan oŕen joan-etoŕia, bañan ez dezakete iñolaz ere uste izan benetan ezkondu diranik, Kristau-ezkontzako Sakramentua artu gabe.

## «Divorcio» deritzan ori

*¿Ezkontza-auste edo «divorcio civil» deritzan oŕek, askatu al-dezake ezkontzako uztaŕirik?*

Ezkontza-auste edo «divorcio civil» deritzan oŕek ez dezake askatu ezkontzako uztaŕirik; ezin askatu ditekenetakoa baitda uztaŕi ori.

## Espiritu Santua

*Nor da Espiritu Santua?*

Aita eta Semeagandik datoŕen, Irutasun

guztiz Donearen irugafen persona, da Espiritu Santua.

*Nun dago Espiritu Santua?*

Espiritu Santua Jaungoikoa da, ta toki guztietan dago, baña kristau on eta zintzoengan, batez ere, bizi da.

*Zer egiten du Espiritu Santuak kristau on eta zintzoen animetan?*

Animak donetu ta bere emaitz eta sorkariz apaindu egiten ditu Espiritu Santuak.

*Zein dira Espiritu Santuaren Emaitz edo Doaiak?*

Espiritu Santuaren Emaitzak, zazpi dira:

Lenengoa, jakinduria;

Bigafena, adimena;

Irugafena, burubidea;

Laugafena, jakintza;

Boskafena, sendotasuna;

Seigafena, Jaungoikoarekiko biozperatasuna;

Zarpigafena, Jaungoikoarekiko bildufa.

*Zein dira Espiritu Santuaren Sorkariak?*

Espiritu Santuaren Sorkari edo Frutuak amabi dira:

Lenengoa, goimaitasuna;
Bigaŕena, adimena;
Irugaŕena, biotzabaltasuna;
Laugaŕena, onberatasuna;
Boskaŕena, zintzotasuna;
Seigaŕena, neuŕiztasuna;
Zazpigaŕena, poza;
Zortzigaŕena, eramana;
Bederatzigaŕena, onginaia;
Amargaŕena, otzantasuna;
Amaikagaŕena, xotiltasuna;
Amabigaŕena, garbitasuna;

*Noiz bidali zion Jesukristok Espiritu Santua bere Elizari?*

Pentekostetan, Bera zeruetara igo ta amargaŕen egunean bidali zion Jesukristok Espiritu Santua bere Elizari.

## Eliza

*Eliza zer da?*

Kristau sinistedunen batzaŕa da Eliza, Eŕoma'ko Aita Santua buru duala.

*Eŕoma'ko Aita Santua nor da?*

Luŕean Jesukristoren orde dan Gotzai edo Obispo Nagusia da Eŕoma'ko Aita Santua.

*Eŕoma'ko Aitaren esanetara egoteko beartuak al gaude?*

Bai jauna, Eŕoma'ko Aitaren esanetara egoteko beartuak gaude.

**Eŕoma'ko Aita Santua utseziña**

*Eŕoma'ko Aitari sinisteko beartuak al gaude?*

Bai jauna, Eŕoma'ko Aita utseziña da, ta berari sinisteko beartuak gaude.

*Nola da utseziña Eŕoma'ko Aita?*

Jesukristo gure Jaunak agindutako Espiritu Santuaren laguntzaz da utseziña Eŕoma'ko Aita.

*Zertan da utseziña Eŕoma'ko Aita?*

Sinismen ta oitura-gaietan zer-edo-zer erabakiaz Eliz guztiari erakustean, da utseziña Eŕoma'ko Aita.

*Eŕoma'ko Aitaren uŕen, Jaungoikoaren aginduz nori zor diogu begirune ta menpetasuna?*

Eŕoma'ko Aitaren uŕen Jaungoikoaren aginduz Gotzai edo Obispoai zor diegu begirune ta menpetasuna.

## Gotzai edo Obispoak

*Zer dira Gotzai edo Obispoak?*

Apostolu Doneen oñordekoak dira, Gotzai edo Obispoak, bakoitzak bere Elizbarutia Eroma'ko Aitaren mendean zaitzeko Espiritu Santuak ipiñiak.

*Nortzuk laguntzen diete Gotzaiai animak zaitzeko eginkizunean?*

Apaizak, eta eriko Apaiz Nagusiak, batez ere, laguntzen diete Gotzaiai animak zaitzeko eginkizunean.

## Eliza Jesukristok jaria

*Gure Ama Eliza Donea nork jaria da?*

Gure Ama Eliza Donea Jesukristo'k jaria da.

*Zeinbat Eliza jari zituan Jesukristok?*

Jesukristok ez zuan Eliza bat besterik jari: eta oregatik ura bakarik da egiazko Eliza.

*Zein dira egiazko Elizaren ezaugariak?*

Egiazko Elizaren ezaugariak, lau dira: Bat, eta Donea, eta Katolikua, eta Apostolutara izatea.

*Zein Eliza da, lau ezaugari oiek dituan Eliza bakara?*

Eliza Katoliku Eŕomataŕa da, lau ezaugaŕi oiek dituan Eliza bakaŕa.

*Zergatik deritzaio Eŕomataŕa Eliza Katolikuari?*

San Pedroren oñordeko dan Eŕoma'ko Gotzaia buru dualako, deritzaio Eŕomataŕa Eliza Katolikuari.

*Zeruan sartu al diteke, Eliza Katolikuan bizi ez danik?*

Ez diteke zeruan sartu, bere nai ta eŕuz Eliza Katolikuan bizi ez danik.

*¿Zeintzuk dira Eliza Katolikuan ez daudenak?*

Siniste gabeak, siniste ausleak, sinispen ukatzaleak, Eŕomako Aita buru ez dutenak, eta kristauen alkartasunetik boteak, dira Eliza Katolikuan ez daudenak.

*Gure Ama Eliza Katolikua il eta amaitu al diteke?*

Jesukristok agindu zionez, gure Ama Eliza Katolikuak, bere etsaiengandik eraso ta jasa ikaragaŕiak izan ditzake, bañan ez da iñoiz ere il eta amaituko.

*Zergatik ditu Eliza Katolikuak oŕenbeste etsai?*

Jesukristok berak ere ugari izan zitua-

lako, ta gañera, griña gaizto, zuzengabekeri, uste oker, eta gezur guztiak debekatu ta gaiztetsi ditualako, ditu Eliza Katolikuak ořenbeste etsai.

## Santuen alkartasuna

*Zer esan nai du «Santuen alkartasunak»?*

Eliza deritzan Batzar onen goi ondasunak, batzarkide guztien artean banatzen dirala, esan nai du «Santuen alkaıtasunak».

*Zeintzuk dira Elizako batzarkideak?*

Zeruko zoriundunak, Garbitokiko anima gaxoak, eta lurean, animaren etsaiekin gudan bizi diran sinistedun kristauak dira Elizako batzarkideak.

*Zeintzuk dira Elizako goi-ondasunak?*

Jesukristoren, Andre Maria Birjiñaren eta beste Done guztien irabazkiak; Sakramentu, otoitz, eta gañerako egintza on guztiak, dira Elizaren goi-ondasunak.

*Zergatik banatzen dira Elizaren goi-ondasunak batzarkide guztien artean?*

Guztiak Elizarekin gorputz bat bezela egiten dutelako banatzen dira Elizako ba-

tzarkideen goi-ondasunak alkaŕen artean.

*Oben laŕian bizi diranak Santuen alkartasunean sartzen al dira?*

Oben laŕian bizi diranak ere sartzen dira Santuen alkartasunean, baña obenen barkapena Jaungoikoagandik iristeko bear duten laguntza besterik ez dute artzen.

## Pekatuen barkapena

*Zer erakusten digu amargaŕen siniskaiak?*

Pekatu guztiak, alik geien eta laŕienak izan-da ere, barkatzeko eskubidea Jesukristok bere Elizari eman ziola, erakusten digu amargaŕen siniskaiak.

## Sinismena

*Sinismena zer da?*

Ikusi ezteguna, Jaungoikoak agertu digulako egitzat eukitzea da sinismena.

*Ikusi al-zenduan Jesukristo jaiotzen edo iltzen?*

Ez jauna, ez nuan ikusi Jesukristo ez jaiotzen ez iltzen.

*Sinisten al dezu Jesukristo jaio ta il zala?*

Bai jauna, sinisten det, Jesukristo jaio ta il zala.

*Ikusten al dezu Jesukristo gure Jauna Aldareko Sakramento guztiz Donean?*

Ez jauna, ez det ikusten Jesukristo gure Jauna Aldareko Sakramentu guztiz Donean.

*Sinisten al-dezu Jesukristo gure Jauna Aldareko Sakramentu guz iz Donean egiazki dagola?*

Bai jauna, sinisten det Jesukristo gure Jauna Aldareko Sakramentu guztiz Donean egiazki dagola.

## Zergatik sinisten dedan

*Zergatik sinisten dezu ori ta sinismenak erakusten duan gañerako guztia?*

Jaungoiko gure Jaunak onela agertu ta Ama Eliza Doneak onelaxe erakusten digulako, sinisten det ori ta sinismenak erakusten duan gañerako guztia.

*Eta zergatik sinisten dezu Elizak erakusten duan guztia?*

Jaungoikoaren laguntza berezi baten bitartez Eliza uts-eziña dalako, sinisten det berak erakusten duan guztia.

*Eta Jaungoikoa uts-eziña al da?*

Bai jauna, Jaungoikoa berez uts-eziña da.

*Eta uts-eziña izatea zer da?*

Bera ezertan ezin oker egon eta guri gezuŕik ezin esan izatea, da uts-eziña izatea.

## Kristau naizenez sinistu bear dedana

*Zer da zuk, kristau zeranez, sinisten dezuna?*

Sinismeneko egi guztiak, Kredoaren siniskaiak, batez ere, dira nik kristau naizenez, sinisten ditudanak.

*Beaŕezkoa al da sinistea, zerua iristeko?*

Beaŕezkoa da, bai, sinistea zerua iristeko.

*Naikoa al da sinistea zerua iristeko?*

Ez jauna, siniste utsa, goimaitasun edo karidade ta egintza onikan gabe ez da naikoa zerua iristeko.

*«Kredoa»'ren siniskaiak zer dira?*

Sinistu bear ditugun ezkutuki edo misterio nagusiak dira «Kredoa»'ren siniskaiak.

*Sinismen-ezkutukiak zer dira?*

Berez egiak izanaŕen, gure adimenak iritxi ezin dituan, eta Jaungoikoak era-

kutsi-ta dakizkigun egi batzuek dira sinismen-ezkutukiak.

*Zertarako dira «Kredoa»'ren siniskaiak?*

Jaungoiko gure Jaun, Jesukristo gure Salbatzale ta Ama Eliza Donearen beŕiak argi ta garbi emateko, dira «Kredoa»'ren siniskaiak.

## Liburu Doneak - Idazti Donea

*Kredoaren siniskaiez gañera beste ezer sinisten al dezu?*

Bai jauna, Kredoaren siniskaiez gañera Liburu Doneetan dagon guztia eta Jaungoikoak bere Elizari agertu diona sinisten det.

*Idazti edo Liburu Doneak zer dira?*

Idazti edo Liburu Doneak, Espiritu Santuaren laguntzaz idatzitako, Lege Zaar eta Beŕiko liburuak dira.

*Zer da Liburu Doneetan dagona ta Jaungoikoak bere Elizari agertu diona?*

Liburu Doneetan dagon eta Jaungoikoak bere Elizari agertu dionaren galderik ez egin neri, ezjaziña naiz ta; baditu jakintsuak Ama Eliza Doneak: aiek erantzungo dizute.



*Jesus'en Biotz maite maitagaŕia.*




# Jesus'en Biotzaganako maitasuna

Oso sustraiturik eta alde guzietara zabaldurik ikusten degu gure artean Jesus'en Biotzaganako maitasuna.

Gure Aldundiak eta eŕirik geyen geyenak Jesus'en Biotzari eskeñiak arkitzen ditugu. Etxerik geyenak ere beren **Etxeko-Jaun**'tzat Jesus'en Biotza aukeratu ta artu dute.

Jesus'en Biotz ber-berak bere seme kutun eta maitale zintzo

Kardaberaz Aita Jesulagun mixiolariaren biotzean piztutako txinpartak izan dira, noski, gure Eŕi ontan maitasunezko su-gar aundi au sortu dutenak.

Maitasunari maitasuna zor zaio, ta Jesus'en Biotzaren guganako maitasun neuŕigabe oni maitasunik beroenaz erantzuteko, ikasi erakusten diguna, ta egin egitea nai duana.






# Jesus'en Biotzak egindako amabi agindu

Nere biotzaganako zaletasuna dutenai:

1. Beren bizibidean bear dituen laguntza guziak emango dizkiet.

2. Beren etxeetan pakea zabalduko det.

3. Atsekabe guzietan Nik atseginduko ditut.

4. Bizitzan eta, batez ere,

eriotzan Ni izango naute babes eta gordelekurik onena.

5. Beren arazoak onetsiko ditut.

6. Pekatariak eŕuki ituŕi ta itxaso mugagabea arkituko dute Nere Biotzean.

7. Epelak berotu egingo ditut.

8. Beroak berotasun aundiagora elduko dira.

9. Apaizai biotzik gogoŕenak biguntzeko eŕeztasuna emango diet.

10. *Nere Biotz onen irudia agirian ipiñi ta gurtuko dutenen etxeak onetsiko ditut.*

11. Nere Biotzaganako maitasuna zabaltzen dutenen izenak nere biotzean betiko idatziko ditut.

12. Nere biotz onen eŕuki gegiegizkoan agintzen dizut bederatzi il jaŕaituen lenengo ostiraletan Jauna artzen dutenai nere maitasun guziz altsuak emango

diela eriotz ordurako beren gaizki egiñen damu egiazkoa, ez dirala nere aseŕean eta Elizakoak artu gabe ilko; ta azken ordu artan beren gordeleku bene benetakoa nere Biotz au bera izango dutela.

## Bederatzi il jaŕaituen lenengo ostiralatako Jaunartzea

Itz eman du Jesus'en Biotzak esanaz:

Bederatzi il jaŕaituen lenengo ostiraletan bear bezela Jaunartzen dutenak betiko zoriona iritxiko dutela (12'gaŕen agindua).

Eskatzen duana egiten badezu, ez du Jesus'en Biotzak bere itza jango.

Artu zazu, bada, egun oietan bear bezela Jauna, eta bederatzialdi bat edo geiago egin itzatzu.

Jaunartzea besterik ez zaizu eskatzen; baña ostiral oietan otoitz au egin dezayokezu Jesus'en Biotzari:

## OTOITZA

Ona emen, Jesus'en Biotz maite maitagaŕia!... iḹaren lenengo ostiral ontan, nere ustez bear bezela, edo beintzat al dedan ondoen Jauna artzen! Bederatzi iḹ jaŕaituen lenengo ostiraletan bear bezela Jaunartzen dutenai emango diezula adirazi zenun betiko zoriona irabazi nai nuke. Artu nazazu, Jauna, zure Biotz maite maitagaŕian eta ez utzi neri oitik alde egiten. Alaxe.

## Otoitz bidalguntza

Jesus'en Biotzaren maitatzaḹeen Bazkuna esan diteke dala Otoitz Bidalguntza (Apostoladua).

Aita Jesulagunen Ikastetxe baten 1884'gaŕen urtean sortu zan; eta orain aŕigaŕiro zabalduta dago; ia ogei miloetara eldu dira, bada, Bazkuna osatzen duten lagunak.

Otoitz Bidalguntzak nai duana da: *Jesus'en Biotzaren otoitz eta irabaziekin bazkide guzienenak batuta, Aita Jaungoikoari, Zeruko Amaren Biotzaren bitartez eskeñi, Jesukristoren Aginte osoa lenbaitlen alde guzietara zabaldu dedin.* Oŕetarako lan, eginkizun eta neke guziak otoitz biurtzen ditu.

Iru mala ditu Otoitz Bidalgutzak:

1. Eguneroko lan, neke ta otoitzak Jesus'en Biotzari eskeñi besterik egin beaŕik ez dutenena. (Ortarako otoitz egokia 98'gaŕen oŕialdean daukazu).

2. Lenengokoak egiten dutenaz gañera egunoro «Aita gure»

bat eta amar «Agur Mari» esaten dituenena.

3. Lenengokoak egiten dutenaz gañera Jaunartze ordaintzaĺea asteoro edo iĺero egiten dutenena.

## A. Agustin Kardaberaz'en alde Jesus'en Biotzari Eskaria

*(Uŕoz Jaunaren «Zeruratzeko Indaŕa»'tik)*

Jesus'en Biotz ona! Agustin Kardaberaz zure maitatzaĺe zintzoak Zuganako eraskuna gizartean zabaldu naiez alegiñak egin zituan ezkero, Zu goresteko eta gure Eliz Amaren onerako balitz beintzat, umilki eskatzen dizut, Zure maitatzaĺe Agustin lenbaitlen beatifikatuta, aldareetan bere iduria agurtua izan dediĺa, Jesukristo gure Jaun beraŕen. Amen.



# Jesus'en Biotzari Bederatziuŕena

*Gurutze...*
*Jesukristo nere...*

## Egunoroko asiera Otoitza

Jesus maitearen Jaungoikozko Biotza! Zure Biotz ortan ipiñi ditu Irutasun Doneak esker guztien neuŕigabeko ontasunak. Zure oŕen antzeko biotza iguzu, ta bederatziuŕen ontan eskatzen dizuguna, Jaungoikoaren aintzarik

aundienerako, Zure goratasun ta gure onerako baldin bada. Amen.

### 1'go egunerako Otoitza

Gogo bizi biziz biotz legor ta epelak zurearen antzeko egin nai dituzun Jesus'en Biotz done donea. Bizkortu, aŕen, eta gartu gure biotzen oztasuna ta epeltasuna, Zure maitasunean goriturik bizi ditezen. Zuri egindako bidegabe ta lotsagabekeriak ordaintzeko laguntza iguzu, Jesus maite oŕek!, baita bederatziuŕen ontan eskatzen dizuguna ere, Jainkoaren aintzarik aundienerako, Zure goralben, ta gure gogoen onerako baldin bada. Amen.

(*Iru Aita gure, eta iritxi nai dana eskatu*).

### Egunoroko azken Otoitza

Jesus'en Biotz Jaungoikozkoa! Egiz maitagaŕi ta beti goragaŕi

zeran Jesus'en Biotz gozo gozoa! Biotz biotzez gurtzen zaitut; zerutar ta aingeru gartsuen gorapen guztiak eskeintzen dizkizut, baita zure Ama eŕugabearen Biotzak eman al lizazkizun guziak ere. Amen.

Aña. Baña Jesu'gana etoŕi ziranean, il zala ikusirik, ez zizkioten ankezuŕak autsi. Baña Guda-mutil batek, burni ziriz sayetsa zulatu zion, ta bertantxe ura ta odola irten ziran.

V. Pozez atera ditzazute urak.
R. Gaizkatzaleearen ituŕietatik.

## OTOITZA

Gure gaiztakeriengatik uŕatutako Zure Semearen Biotzean azkengabeko maitasun ondasunak gure eŕukiz ipiñi dituzun Jaungoiko ori! Iguzu aŕen: Biotz oni gure aguŕik beroenarekin batera dago-

kion ordaintza eman dezayogula. Jesukristo gure Jaun beraren izenean. Alaxe.

## 2'en egunerako Otoitza

Gu Jaungoikoagana igo, ta Jaungoikoa gugana etortzeko zeruko ate zeran Jesus'en Biotz maite ori! Gure maitasun eta eskari guziei Zure bitartekotasuna iyezu; Zure izenez zeruko Aitarengana jun nai degunok Jaun beraren onespenez bete beteak izan gaitezen. Alaxe.

## 3'en egunerako Otoitza

Donetasun ta zeruko bidea erakutsi ziguzun Jesus'en Biotz zuzen zuzena! Zure bide zuzenetik aldendu gabe ibiltzeko bear degun laguntza iguzu; oitura garbien eta Zuganako maitasun biziaren ur gozo osasungaŕiz ase gaitzazu, luŕekoetarako egaŕia itzali dezagun. Alaxe.

## 4'en egunerako Otoitza

Edertasun guzien eredu zeran Jesus'en Biotz eder edeŕa. Zure Biotza baŕen baŕendik ezagutzen lagun iguzu, otoi, lan, gogapen itz ta egiñetan gure biotzak Zure antzera eratu ditzagun. Alaxe.

## 5'en egunerako Otoitza

Irutasun agurgaŕiaren poz betea zeran Jesus'en Biotz gozo gozoa! Gure egintza guztiak Zuk zuzentzen dituzun ezkero, ainbat uts eta akastun diran gure eginketak zuzendu itzazu; gure zabarkeriak Zuk zintzotuta, Jaunaren begietan atsegingaŕi izan ditezen. Alaxe.

## 6'en egunerako Otoitza

Gure gogo, almen eta zentzun guztiak Zereganatuta iduki nai

dituzun Jesus'en Biotz zabal zabala! Esan eziñ ainbateko pake, poz eta atseden tokia dan Zure Biotzera ekaři gaituzulako, eskeřak ematen dizkizugu, eta ortxe beti atsedeteko eskeřa iguzu. Alaxe.

## 7'en egunerako Otoitza

Jaungoikoaren eřukiak opa dizkiguzun Jesus biotzbera ori! Zeruko Aitak Zure izenez egindako eskariak beti entzungo zituela itz eman zuan esan zuanean: «Nere Seme kutun Jesus'en Biotza bitarteko dala eskatu; Biotz oři begiraturik entzungo dizut, eta nai dezun guztia iritxiko dezu». Bijoaz bada zure izenean Aita betikoarengana gure eskari ta otoitzak, opa ditugun ontarteak Zure bitar tez iritxi ditzagun. Alaxe.

## 8'en egunerako Otoitza

Gizon guztien maitasunez goriturik zauden labe sutsu eta argia zeran Jesus'en Biotz maite maite ori! Gizarte guztia zure maitasunean alkar sututzen bizitzea iguzu, baita maitasun oŕetan ludi guztia sututzea ere, maitasuna ordaintzen ikasi dezan. Alaxe.

## 9'en egunerako Otoitza

Atsekabez miñgoztutako Jesus-en Biotz minberatua! Zure guganako maitasunez gu gaizkatzeaŕen, zenbat biotz-miñ ta naigabe igaro dituzun! Gure biotzen gogortasuna bigundu ezazu, eta Zure Biotzeko gurutze, arantz, gar ta sayets zauria begien auŕean ditugula bizitzeko laguntza iguzu, oyei begiraturik eraman aundikoak izan gaitezen. Alaxe.



# Jesus'en Biotzaren Jai egunez egin beaŕekoa ordain-otoitza

(Boletin'etik)

Jesus gozo-gozoa! Zeñen txarki ta eskeŕik gabe ordaintzen degun gizonok Zuk gure artean ixuri dezun maitetasuna! Ementxe gaduzkatzu gu zure aldare auŕean, epel ta zabarkeri oŕek eta gañerako bidegabe guztiak zure Biotz on oŕi ematen dioten naigabe latza pixka bat lasaitu ta gozatu naiez.

Badakigu, Jesus, gu geurok ere askotan Zuganako eskergabe ta gaiztoak izan gerena. Barkatu, Jauna! Damu degu ta gertu gaude, txarkeri guztien ordañez jen-

tilkerietan eta pekatupean dabiltzan guztiak Zuregana erakartzen alegin guztiak egiteko.

Gaizki guzti-guztiak galdurik ikusi nai genituzke, Jauna; bañan oetxek batez ere: jantzietako ta biziera guztiko lotsa-galdu ta aragikeria, gazte eŕugabeai nunnai ezartzen zaizkien lakio ta erorbide galgaŕiak, jai egunetako lantegi ta elizarik ezak, Zure ta Santuen izeneko birau ikaragaŕiak, Eŕoma'ko Aitaren eta apaiz guztien kaltean nola nai itz egin bear gaiztoa, Aldareko Sakramentu Aundiarenganako zeinbaiten goŕoto itxua, ta aizkenik, Zuk guri emandako Ama Elizaren agintzeko ta erakusteko eskubidea ezagutu nai ez duten Eŕien esker gaiztoa.

O! Nork ito ta galdu lezazkikean bere odoletan gaiztakeri oiek guztiak! Bañan ori ezin degunezkero or dezu Zeroŕek gurutzean

bein eta gure aldereetan egunoro eskeintzen dezun Mezako Opari aundi, edeŕa; or dituzu Ama Birjiñaren ta zeruko ta luŕeko Santu guztien irabazi ugari-ugariak. Guk geurok ere zure laguntzarekin alegiñak egin nai ditugu, gure ta gizon guztien gaizki ta eskergabekeriak, sinismen sendo, oitura garbi ta goi-maitasun bero beroz ordaintzen, gaiztakeriari bideak galazten eta al ditugun gizon guztiak zure lege ta bide zuzenera erakartzen.

Artu itzazu, Jauna, gure eskiñi ta gogo on oiek Ama Birjin Ordaintzaleaŕen eskutik; egin gaitzatzu zintzo ta esanekoak zure mendean; eta emaiguzu aizkenik bide onetan il arte irauteko laguntza, egunen batean, Aitarekin eta Espiritu Santuarekin betiko agintari bizi zeran zeru edeŕean ikusi zaitzagun. Amen.



*«Zeru ta luŕen Jaun aundia*
*artu artu zuretzat*
*gure Eŕi maitea».*
*[Gure etxe maitea]*




# Etxe ta etxekoen eskeintza

## JESUS'EN BIOTZARI

*(Jaureskunde—Entronizazioa)*

### Ořak

Jesus'en Biotzaren irudia gerturik egon bedi, mai baten gañean. Batu bitez, al dala, etxeko guziak *Ezkeintza* egiteko.

Irudia, ořetarako gai bada, onetsi bedi onela:

## Oleiz otoitzak

—Adiutorium nostrum in nómine Dómini.
—Qui fecit caelum et terram.
—Dóminus vobiscum.
—Et cum spíritu tuo.

## OREMUS

Omnipotens sempiterne Deus, qui Sanctorum tuorum imagines (sive effigies) sculpi aut pingi non réprobas, ut quoties illas óculis córporis intuemur, toties eorum actus et sanctitatem ad imitandum memoriae óculis meditemur: hanc, quaesumus, imaginem (seu sculpturam), in honorem et memoriam Sacratíssimi Cordis Unigéniti Filii tui Domini Nostri Jesu Cristi adaptatam, bene†dícere et sancti†ficare digneris: et praesta; ut quicumque coram illa

Sacratíssimium Cor Unigéniti Filii tui supplíciter cólere et honorare studúerint, illius meritis et obtentu, a te gratiam in praesenti, et aeternam gloriam obtíneant in futurum. Per eumdem Christum Dóminum nostrum. Amen.

Esan guziak «Kredo» sinismena garbi aitortuaz.

*Aita gurea, Agur Maria, Gloria* etxean il diranen aldez.

Etxeko buru danak edo Apaizak berak ipiñi beza irudia toki nagusienean.

Al bada, abestu zerbait Jesus'en Biotzari.

Etxeko Buruak edo Apaizak esan beza, itz gutxitan, zer esan nai duan egitera goazenak, au da. Jesus'en Biotz Irudia jaŕi dan lekuan jartzeak, eta Berari egingo zayon *Eskeintzak*.

**Irakuŕi bedi eskeintza:**

## Nere etxea ta etxeko guziak Jesus'en Biotzari eskeintzeko

## OTOITZA

(Pio X'gaŕenak agindua.)

Kristau etxeetan agindu nai dezula Margarita Mari Doneari adirazi zenion *Jesus'en Biotz maitagaŕia!*

Zure oñetara gatoz gaur, gure etxeko Agintaritza nagusia Zuri ematera. Gaurtik auŕera Zugandik datorkigun bizitzaz bizi nai degu. Zuk goŕotu dituzun mundutaŕen zorakeriak guk ere goŕoto biziz goŕotatuta, gizonen artean bear dan egizko adiskidetasuna ekaŕiko dutela esan zenduan oitura onak etxeko guztiok erabili nai ditugu. Zure erakutsi gu-

ziak guk zintzo sinistuz, Zuk aginduko dezu gure adimenetan. Zugandik uŕutiratu nai gaituzten maitakeri guztiak, gure biotzetatik kenduko ditugu, saŕi Jaunartuz Zu bakaŕik izango zera gure maitea eta gure biotzen Jaun eta Jabea.

Guziok etxean batutzen geranean izan zaitez, ¡Jaungoikozko *Biotz ona!* gure Buru ta Agintari. Ontzat artu itzazu gogoaren ontasuna irixteko eta gorputzari bear duana emateko artzen ditugun asmo ta lanak. Kendu gugandik buruaste latzak. Ase Zure pozez gure pozaldiak. Atsegin biurtu gure atsekabeak.

Sendi ontako iñork naigabetzen bazaitu, gogora egiozu, Jauna, eta esan biotzera: Zure biotza gaizkile damutuentzat biotz eŕukitsua ta guztiz biguna dala.

Eriotza etxe ontan sartuta, ne-

gaŕez begiak eta samintasunez biotzak beteko diranean, ontzat artuko ditugu Zure erabakiak. Orduan ere Zu izango zera gure poza; elduko dala uste degu, bada, emen gauden guztiok beŕiro alkaŕekin bat egin da, Zu beti goratzen eta maitatzen egoteko azkengabeko eguna.

Maria'ren Biotz guztiz garbiak eta guzion Aita Jose Deun maitagaŕiak eraman bezate Zugana gure Eskeintz au, eta gogorazi begigute bizi geran artean gaur egin deguna.

¡¡Gora gure etxeko Jaun ta gure Aita dan *Jesus'en Biotza!!*

* * *

Al bada, abestu zerbait Etxeko Jaun egin degun Jesus'en Biotzari.

Amaitzeko eman beza Apaiz Jaunak, nai badu, onespena onela:

*Benedictio Dei omnipotentis,* ✝ *Patris et Filii et Spiritus Sancti descendat super vos et maneat semper. Amen.*





# Jesukristo Eŕegeari Bederatziuŕena

Noiz nai egin liteke, baña egunik egokienak Bere jaiaren auŕekoak dira.

*Gurutze...*

*Jesukristo nere Jaun...*

## Egunoroko asiera Otoitza

Eŕegeen Eŕege ta Agintarien Agintari, Jesukristo gure Jauna! Betor gugana Zure agintea. Agindu gure adimenetan zure erakutsiak bear bezela artu ditzagun; agindu gure oroimenetan Zu gure

Jaun eta Jabe zerala aztu gabe bizi gaitezen; agindu gure naimenetan Zuk nai dezuna besterik nai izan ez dezagun, eta agindu gure gorputz gogoetan beti Zureak izan gaitezen.

Iguzu, Eŕege Jauna, bederatziuŕen ontan eskatzen dizuguna, Zure aintzarako baldin bada; baña gure gaitzerako balitz eskatzen dizuguna, zuzendu gure eskaria, Zu eta Zugana eramango gaituana besterik nai izan ez dezagun. Amen.

## 1'go egunerako Otoitza

Elizaren eta Aita Santuaren Eŕege Jesukristo! Eman Zure Elizari ta bere Buru nagusi Aita Santuari Zugandik artutako eskubidez daukaten Jabetasun eta Nagusitasuna, luŕalde guziak zure sinismenaren argira eta Zure agin-

tearen mendera ekaŕi ditzaten. Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*

## Jesukristo Eŕegeari

¡Guzion Eŕege aitortzen zaitut, O Kristo Jesus! Izatea daukan dana Zuk izan erazia da. Erabiļi nazazu nigan dauzkatzun eskubideak eskatzen dutenez. Satanas'i ta Satanas'en aŕokeri ta lan gaiztoei uko egiñaz, bataioko eskeintzat beŕitu ta kristau onari dagokion biziera egingo detala; eta, batez ere, Jaungoikoaren eta zure Elizaren eskubideai beti garaipena emateko nere indar guziak egiñalak egitera beartuko ditudala, agintzen dizut. Eskeintzen dizkizut, Jesus'en Jaungoikozko Biotza! nere egiketa motelak, biotz guztiak Zure Eŕegetza Deuna ai-

tortuaz, Zure pakezko Agintea bazter guzietan zabaldu dedin. Ala bedi.

## 2'en egunerako Otoitza

¡Gotzai eta apez Jaun eta elizgizon guzion Eŕege Jesukristo! Zure argiz bete itzazu, eta zure maitasunean berotu elizgizon guziak Aita Santuarekin eta Zurekin bat egiñik giza-biotz guziak Zuganatzen aspertu gabe lan egin dezaten. Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*

## 3'en egunerako Otoitza

¡Munduaren lokaŕiak uŕatu ta, Zure jaŕai-bide zuzena bakartegietan (erlijio etxeetan) artu dutenen Eŕege Jesukristo! Piztu ta iraunazi ezazu gabetasun, garbitasun eta

menpetasun eskeintzaz Zuri loturik daudenen biotzetan Zuganako maitetasunik biziena Zurekin gurutzari josirik eriotzaraño egon ditezen: Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*

## 4'en egunerako Otoitza

¡Guraso guzien Eŕege Jesukristo! Etxeko buruak Zure Jauntasuna aitortzen ez badute, galduak dira etxeak eta eŕiak. ¡Ez dedila aŕen, onelako gaitzik gure etxe ta eŕietan sortu! Ta oŕetarako egizu, Jauna, ikasi dezatela gurasoak Zure mendean ibiltzen, eta beren umeak Zugana eramaten. Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*

### 5'en egunerako Otoitza

¡Gazte guzien Eŕege Jesukristo! Erakutsi neska ta mutil gazte guziei Zure mendetik iges egin eta lasai ibili naiak gaztediari ekartzen dizkion kalte bildurgaŕi ta lotsagaŕiak. Indartu beren biotzetan garbi zaletasuna Ama guztiz garbiaren eta Zure antza beti erabili dezaten. Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*

### 6'en egunerako Otoitza

¡Umeen adiskide ta Eŕege Jesukristo! Zure zureak dituzun umetxo laztan oyek etsai gaizto asko dauzkate. Atera itzatzu, Jauna, umeak etsai oyen atzapaŕetatik, zure erakutsiak bear bezela artu

ta bete ditzaten. Eman guziai guraso ta erakusle onak. Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*

## 7'en egunerako Otoitza

¡Agintarien Agintari Eŕege Jesukristo! Aztutzen ari dira Agintari asko Zugandik artu dutela Agintaritza, zure mendekoak dirala, eta zure aginduen kaltezko legerik ezin litekela eman Argitu, Jauna, agintari guzien buruak Zure Eŕegetzaren eskubideak baztefetatu ez ditzatzen; eta eman oŕetarako bear duten kemena ta laguntza. Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*

## 8'en egunerako Otoitza

¡Irakasleen Irakasle ta Eŕege Jesukristo! Erakutsirik gezurti ta

nazkagaŕienak baztar guzietan ari dira zabaltzen, Jauna! Zure mendekoen gogo ta biotzak ilundu ta usteldu ez ditezen, bialdu Elizara ta eŕietara Irakasle onak gezurti ta gaizto guzien maltzurkeriak ezereztu ditzaten. Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*

## 9'en egunerako Otoitza

¡Gudarozteen Eŕege Jesukristo! Okeŕak zuzentzeko, gaizkileak zigortzeko ta eŕi ta eŕidien eskubideen babeserako ezpata eskuan daukatenak, ez dezatela, Jauna, zure Agintaritza nagusia ta Eŕegetza aztu; ezpata Zure mendean eta Zure alde erabiliaz betiko garaipena iritxi dezaten Amen.

*Egin eskaria.*

*Jesus Eŕegeari iru Aita gure.*




### Jesukristo Eŕegearen egunez

# Jesus'en Biotzari gizadia eskeintzeko otoitza

*Jesukristo gure Jaun Eŕegearen Jai egunez egin beaŕeko otoitza ta esan beaŕeko Litaniak. (Gazteiz Eliz-baŕutiko «Boletín oficial» 'etik artuta).*

Jesus, gizadiaren Salbatzale gozo, atsegiña! Begira eiguzu zure aldare auŕean auzpezturik gaudenoi. Zureak gera, zureak izan nai degu, eta zurekin gero ta geiago

bat egiñik bizi gaitezen, gutako bakoitzak bere burua ementxe eskeintzen dizu Zuri.

Askok zoritxaŕez ez zaituzte zu oraindik ezagutzen, beste askok zure Aginduak alde batera utzita baztartu egin zaituzte Zu. Guztiak eŕuki izan itzazu Jesus On oŕek, eta erakaŕi danak zure Jaungoikozko Biotz oŕetara.

Jauna, artu bizaitzate beren Eŕegetzat, ez zure mendean bizi diranak bakaŕik, baita Zugandik uŕuti dabiltzan seme galtzaleak ere; datozela aŕen, datozela lenbailen beren etxealdera, goseak eta beaŕez il ez ditezen. Artu bitzaitzate beren Eŕegetzat gezuŕak iruzurturik edo aseŕeak sakabanaturik dauzkan guztiak; eramaitzu danak egiaren kai eta sinismenaren batasunera, artalde bat eta artzai bat besterik izan ez dedin laister munduan. Artu bitzaitzate

beren Eŕegetzat jentilkerietako ta mahomataŕen arteko ilunpean bizi diranak; erakaŕi itzatzu guztiak zure Eŕeinuko argi edeŕera. Begira ezaiozu azkenik, eŕukizko begiz antziña zure kutuna zan eŕiari; ixuri ezaiozu burutik bera, orain beretzat askatasun eta bizitzazko Bataioa izan dedin, bein batean bere gain izan zedin eskatu zuan Odola. Emaiozu, Jauna, zure Elizari osotasuna ta lasaitasun bete betea; emaiezu eŕi guztiai zuzentasuna ta pakea; ez dedila, aŕen, lur zabalean baztar batetik besterano deadar au besterik entzun: «Gora Jesus'en Biotza Berak ekari digu osasuna; Aintza ta Omena Berari orain ta bebeti». Amen.

## Jesus'en Biotzari Litaniak

Jauna, eŕuki zakigu, *Jauna, eŕuki zakigu.*

Jesukristo, eŕuki zakigu, *Jesukristo, eŕuki zakigu.*

Jauna, eŕuki zakigu, *Jauna, eŕuki zakigu.*

Jesukristo, entzun eiguzu, *Jesukristo, entzun eiguzu.*

Jesukristo, adi zaiguzu, *Jesukristo, adi zaiguzu.*

Zeruko Aita Jaungoikoa, *Eŕuki zakigu.*

Gizadiaren Salbatzale zeran Jaungoikoaren Semea, *Eŕuki zakigu.*

Espiritu Santu Jaungoikoa, *Eŕuki zakigu.*

Irutasun Done Jaungoiko Bakaŕa, *Eŕuki zakigu.*

Betiko Aitaren Seme Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Ama Birjiñaren sabelean Espiritu Santuak sortu zinduan Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jaungoikoaren Semearekin bat

egiñik zauden Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Neuŕigabeko aunditasunez jantzirik zauden Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jaungoikoaren Eliza Donea zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jaungoiko aundiaren Gela zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jaungoikoaren Jauregia ta zeruko Atea zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Goi maitasunezko labe goria zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Zuzentasun ta maitetasun ontzia zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Ontasun eta maitetasunez beterik zauden Jesus'en Biotza, *Eŕu ki zakigu.*

Onbide guzien osin ondorik gabea zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jesus'en Biotz goragaŕi goragaŕia, *Eŕuki zakigu.*

Gure biotz guzien Eŕege ta Eguzkia zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jakinduri ta jakintza guztien gordairuak zugan dituzun Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jaungoikoa bera bere betetasun guztian bizi dan Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Aitaren atsegiña zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Zure betetasunetik guztioi eman diguzun Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Betiko mendi bizkaŕen gurari bizia zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Eraman eta eŕuki aundiko Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Eskean datozkitzun guzientzat emaĺe aberatsa zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Santutasun eta bizitzaren ituŕia zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Pekatariok Zeruko Aitaren asaŕe gozagaŕi zaitugun Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jesus'en Biotza iguin burlaz ase ta betea, *Eŕuki zakigu.*

Gure gaiztakeriagatik zatitua izan ziñan Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Iltzerano Aitaren esanekoa izan ziñan Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Jesus'en Biotz lanzaz zulatua, *Eruki zakigu.*

Poz guztien ituŕia zeran Jesusen Biotza. *Eŕuki zakigu.*

Gure bizi ta piztuera zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Gure Aitarekiko pake ta adiskidegaŕi zaitugun Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Pekatarien aldeko oparia zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Geren ustea zugan daukagunontzat osasuna zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Zugan iltzen diranen itxadopena zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Santu guztien atsegiña zeran Jesus'en Biotza, *Eŕuki zakigu.*

Gizonen pekatuak kentzen dituzun Jaungoikoaren Bildotsa, *Barka zaiguzu, Jauna.*

Gizonen pekatuak kentzen dituzun Jaungoikoaren Bildotsa, *Entzun eiguzu, Jauna.*

Gizonen pekatuak kentzen dituzun Jaungoikoaren Bildotsa, *Eŕuki zakigu, Jauna.*

Jesus apal eta biotz berakoa, *Egizu gure biotza zurearen antzekoa.*

## OTOITZA

Guzialdun eta betiko Jaungoikoa! Zure Seme maitearen Biotza-

ri eta Berak pekatarien alde eskiñitako gorapen eta ordain sariai begira zaiezu, aŕen; eta eŕuki eskean gatozkizun guztioi eman zure barkamena, Jauna; gizaldi ta gizaldietan Zurekin ta Espiritu Santuarekin batean Eŕege bizi dan Jesukristo zure Seme oŕen beraren izenean. Amen.




*Agur Maria*

*Sortzez garbia*



# JAKINGAIAK

### Gizona zerurako egiña

*Zertarako egin zuan Jaungoikoak gizona?*

Bizitza onetan bere mirabe izan eta gero Bera ikusi ta maite izanaz betiko atsegiñetan bizi izateko egin zuan Jaungoikoak gizona.

*Eta ondoren ori iristeko, nola ipiñi zituan Jaungoikoak gure lenengo gurasoak?*

Graziazkoa deritzan izaeran ipiñi zituan Jaungoikoak gure lenengo gurasoak.

*Iraun al zuten beti gure lenengo gurasoak graziazko izaeran?*

Ez jauna, ez zuten iraun gure lenengo

gurasoak graziazko izaeran: oben egiñaz galdu egin zuten berentzat eta guretzat izaera ura, eta oŕela jatoŕizko oben edo pekatuan eriotzari ginduzten.

## Jatoŕizko obena

*Zer da jatoŕizko oben edo pekatua?*

Gure lenengo gurasoengandik sortzez guztiok dakarguna, da jatoŕizko oben edo pekatua.

*Zer galdu zuan gizonak jatoŕizko obenagatik?*

Graziazko bizieraz gañera, Jaungoikoak biziera onen lagungaŕi eman zizkion emaitza ta doai guztiak galdu zituan gizonak jatoŕizko obenagatik.

*Zor al-zitzazkion gizonari emaitza aiek?*

Ez zitzazkion zor gizonari emaitza aiek: Jaungoikoaren onginai utsezko ta zerutikakoak ziran guztiak, eta beragatik Jaungoikoak, okerbiderik gabe, kendu zitzazkioken bai Adani, baita bere ondorengo guztioi ere.

## Jatoŕizko oben gabe sortua

*Izan al da iñor gizonen artean Jaun-*

*goikoak jatoŕizko oben ori gabe egin duanik?*

Bai jauna, gizonen artean bada bat, Jaungoikoak, (Jesukristoren irabazkietan) jatoŕizko oben ori gabe egin zuana: Andre Maria Ama-Birjiña graziaz betea.

*Bere artan utzi ote zuan Jaungoikoak gizona, obena egin zuazean?*

Etzuan bere artan utzi Jaungoikoak gizona, obena egin zuanean; eŕukitu zitzaion ta Salbatzaĺea agindu zion.

*Zein da Jaungoikoak gizonari agindutako Salbatzaĺea.*

Jaungoikoak gizonari agindutako Salbatzaĺea, Jesukristo gure Jauna da.





# Andre Mari sortzez garbiari Bederatzi-uŕena

*Gurutze...*

*Jesukristo nere Jaun...*

*Egunoro asteko eskeintz Otoitza.*

Nere Ama ta nere Jabea! Ni osoro eskeintzen natzaizu: ta dizudan maitetasuna Zuri erakutsi nairik, ematen dizkizut egun ontan nere begiak, nere entzumena, nere mingaña, nere biotza, nere izate guztia. Ni zurea naiz: Zu izan nere Jabea; ta Zure gauza

bezela, begira ta gorde nazazu, Ama guztiz ona!

(Emen egun bakoitzeko Otoitza)

### Egunoro azkeneko Otoitza

Oroitu zaitez, Ama erukitsua, egundaño ez dala entzun Zugana laguntza bil̄a eldu danik eskatzen zaizuna iritxi gabe gelditu dala. Uste ontan nator ni Garbien Garbiagana; pekatari naiz, bañan ez utzi entzun gabe nere eskaria. Eman idazu aŕen, eskatzen dizudana.

*(Eskatu nai dana).*

*Otoitz egizu gugatik Andre Mari sortzez garbia!*

*Jesukristoren eskeintzak irixteko gai izan gaitezen.*

### OTOITZA

Sortzez garbi Zuk egindakoagan Zure Semearentzat bizitokia

egin zenun Jaungoikoa! Seme oŕen eriotza begiratuta, Garbia loi gabe gorde zenuanak, egizu, gu ere, bere bitartez garbi Zuregana eldu gaitezela. Amen.

## Lenbiziko eguneko Otoitza

Gau ilunaren ondoren gure biotzen alaigaŕitzat agertu ziñan *goizeko izar* Andre Mari sortzez garbia! Argitu itzatzu gure gogoak eta poztu gure biotzak bizitz ontako bide latza erori gabe igaro ta, izaŕak gora zure ondoraño igo gaitezen. Amen.

*Iru Agur Mari...*

## Bigaŕen eguneko Otoitza

Gure Ama maite maitagaŕi Andre Mari sortzez garbia! Zu zera egunaren argi edeŕa berekin dakaŕen *goizeko argidiria!* Iguzu be-

ti argi eder au, pekatuen gau beltz ilunean galdurik ibili ez gaitezen. Amen.

*Iru Agur Mari* ..

### Irugaŕen eguneko Otoitza

Andre Mari sortzez garbi garbia! Zure Semearen edertasuna Jaungoiko beraren edertasuna da; ta Semeak Zu bere edertasunez apaindu zaitu. Oŕegatik ikusten zaitugu *eguzkiz jantzia*. Iguzu, Ama txit garbia, jantzi ori; gu ere Zure antzera Jaungoikoaren begietan eder eta garbi agertu gaitezen. Amen.

*Iru Agur Mari*...

### Laugaŕen eguneko Otoitza

Andre Mari sortzez garbi garbia! Eguzki argi zure Seme maitea iñoiz izkutatzen bazaigu, izan zai-

te Zu guretzaz *iľargi alaigaŕia*. Zure Semeagandik artutako argiz argitu ta berotu gaitzazu, Ama txit garbia, oztu ta galdu ez gaitezen. Amen.

*Iru Agur Mari...*

## Boskaŕen eguneko Otoitza

Badazkizu, Ama laztan sortzez garbia, mundua asaŕetutako itxaso bat dala; ta guk, itxaso ontan galdu ta ondatuko ez bagera, zuzen erabiľiko gaitun izar bat bear degula. Zu zera gure Ama, *itxasoko izaŕa*. Argitu gaitzazu ekaitz gogoŕen artean ito ez gaitezen. Amen.

*Iru Agur Mari...*

## Seigaŕen eguneko Otoitza

Jaungoikoaren Jakintza neuŕigabeak beretzako egin eta apain-

du zuan *bizilekua* zera Zu, gure Ama sortzez garbi garbia! Eskatu zure Semeari artu ditzala Beretzat gure biotzak eta apaindu ditzala zure antzeko izan gaitezen. Amen.

*Iru Agur Maria...*

## Zazpigaŕen eguneko Otoitza

Gizadi guzia berekin batera etsaiaren menpeko egin zuten gure lenengo gurasoai esan zien Jaungoikoak: etsaiari burua lertuko zion emakume bat sortuko zala. Zu zera, Andre Mari sortzez garbia, *etsaia oñazpian daukazun emakumea*. Ez utzi etsai oŕi guri gaitzik egiten. Amen.

*Iru Agur Maria...*

## Zortzigaŕen eguneko Otoitza

Ester Judako alaba eder liluragaŕiak Eŕegearen biotza berega-

natuta, bere eŕia gaitzik okeŕenetatik atera zuan. ¡Andre Mari sortzez garbia! Zure *edertasun zoragaŕiak* Jaungoikoa bera Zuganatu du. Eskatu Zure Seme Jaungoikoari gaitz guzietatik atera ta Beregana eraman gaitzala. Amen.

*Iru Agur Maria...*

## Bederatzigaŕen eguneko

## Otoitza

Agur Andre Mari sortzez garbia! Jaungoiko berak zure sortze garbian ez du Zugan *edertusuna baizik* arkitu. Egizu, Ama txit maitea, ibili gaitezela gu ere Jaungoikoaren adiskidetasunezko jantzi edeŕez apaindurik; zureak geran eta beti izan nai degunok Zure antzeko izan gaitezen. Amen.

*Iru Agur Maria...*

*(Naiz Arantzazu'ko, naiz Begoña'ko Amari Bederatziuŕena egin nai liokenak* **Argi Donea'***tik artutako otoitz oek esanaz egin bitza).*

## Arantzazu'ko Ama Gipuzkoaren Zaindari Doneari

### OTOITZA

Arantzazuko Ama maitea! Guda ikaragaŕian alkar nastuta zebiltzen Euskaldunak zure ardurapean biltzeaŕen Aloña mendian agertu ziñalako, eta aŕezkero zure eskubidean dauzkazun ontasun azkengabeak, beñere eten-gabe, zabaltzen dituzulako, Euskaldun eskeronekuak beren zerutar Zaindari nagusitzat artu ziñuten.

¡Ene Ama biotz samuŕa! Eŕuki zaitez gutzaz, artu gaitzazu zure babes atsegingaŕian, eta zaindu gaitzazu gure griña okeŕen arantz-

tartean naspilduta galdu ez gaitezen. Alaxe.

*Befogei ta amar eguneko barkapena.*

## Begoña'ko Ama Bizkaya-ren Zaindari Deunari

¡Begoña'ko Andre Maria laztan eder ori! zaitu beti gure Euskaleŕi maite-maitea, lengo oitura garbiak arduraz gordeta, lenbailen iritxi dezagun lengo zorion edeŕa, gure Eliz Ama donearen babespean.

OTOITZA (ex officio)

Aŕen eskatzen dizugu, Jaungoiko maitea! zure serbitzarien obenak barkatu; eta gure egikizunak ezpazaizkizu gogozkoak, Zurekin batean bizi dan eta agintzen duen Jesukristo zure Semearen Amak, bere bitartekotzaz betiko zoriona iritxi dizagula. Alaxe.

tartean nasplidduta galdu ez gaitezen. Alaxe.

[illegible]

## Begoña'ko Ama Bizkaya-ren Zaindari Deunari

¡Begoña'ko Andre María lazdan eder orri zaitu jetsi gure Euskaleri maite-maitea, lengo oitura garbiak arduraz gordeta, lenbailen urtxi dezagun lengo zorion edera, gure Elitz Ama donearen babespean.

### OTOITZA (ex officio)

Aren eskatzen dizugu, Jaungoiko maitea! zure serbitzarion ebenak barkatu; eta gure egikizunak ezpazaizkizu gogozkoak, Zure Seme bakarraren bitartez, bizi gintezen doen Jesukristo zure Semearen Amak bere bitartekotzaz betiko zoriona itxi dizagula. Alaxe.



# Agurtza Donea

## (Eŕosario Santua)

(Kristau - Ikasbide'tik)

*Gurutze Santuaren...*

*Jesukristo nere Jaun.*

Grazia ta Eŕukizko Ama gorde ta zaitu gaitzazu orain eta geren eriotzeko orduan. Amen.

### Pozezko ezkutukiak

*(Astelen eta Ostegunetarako)*

Lenengo gertakaria: Jaungoiko-Semearen Gizakundea.

Bigaŕen gertakaria: Andre Mariak bere lengusuari egindako ikustaldia.

Irugaŕen gertakaria: Jaungoiko Semearen jaiotza.

Laugaŕen gertakaria: Andre Maria'ren Elizan sartzea.

Boskaŕen gertakaria: Jesus auŕa galdu ta Elizan arkitzea.

## Nekezko ezkutukiak

*(Astearte ta Ostiraletarako)*

Lenengo gertakaria: Getsemaniko baratza santuko otoitza.

Bigaŕen gertakaria: Jesus'en zigorkada ikaragaŕia.

Irugaŕen gertakaria: Jaunaren arantzazko koroia.

Laugaŕen gertakaria: Jesus'ek gurutzea sorbaldan eraman zuanekoa.

Boskañen gertakaria: Jesus'en gurutzeko eriotza.

## Aintzazko ezkutukiak

*(Asteazken, Larunbat eta Igandeetarako)*

Lenengo gertakaria: Jaungoiko-Semearen Piztuera.

Bigañen gertakaria: Jesus'en zeruetara igotzea.

Irugañen gertakaria: Espiritu Santuaren etoñera.

Laugañen gertakaria: Andre Maria'ren zerura jasotzea.

Boskañen gertakaria: Andre Maria'ren Zeruetako aintza.

## LETANIAK

Kyrie, eléison.
Christe, eléison.
Kyrie eleison.
Christe, audi nos.
Christe, exaudi nos.

Pater de caelis, Deus, miserere nobis.

Fili Redemptor mundi, Deus, miserere nobis.

Spiritus Sancte, Deus, miserere nobis.

Sancta Trinitas, unus Deus, miserere nobis.

Sancta Maria,
Sancta Dei Génitrix,
Sancta Virgo vírginum,
Mater Christi,
Mater divinae gratiae,
Mater puríssima,
Mater castíssima,
Mater inviolata,
Mater intemerata,
Mater inmaculata,
Mater amábilis,
Mater admirábilis,
Mater boni consílii,
Mater Creatoris,
Mater Salvatoris,
Virgo prudentíssima,

ORA PRO NOBIS

Virgo veneranda,
Virgo praedicanda,
Virgo potens,
Virgo clemens,
Virgo fidelis,
Speculum justitiae,
Sedes sapientiae,
Causa nostrae laetítiae,
Vas spirituale,
Vas honorábile,
Vas insigne devotionis,
Rosa mystica,
Turris davídica,
Turris ebúrnea,
Domus áurea,
Foederis arca,
Jánua caeli,
Stella matutina,
Salus infirmorum,
Refugium peccatorum,
Consolatrix afflictorum,
Auxilium Christianorum,
Regina angelorum,
Regina patriarcharum,

ORA PRO NOBIS

Regina prophetarum,
Regina apostolorum
Regina mártyrum,
Regina confessorum,
Regina virginum,
Regina sanctorum ómnium.
Regina sine labe originali concepta,
Regina sacratíssimi Rosarii,
Regina pacis,

ORA PRO NOBIS

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, parce nobis, Dómine.

Agnus Dei qui tollis peccata mundi, exaudi nos, Dómine.

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.

V. Ora pro nobis, Sancta Dei Génitrix.

R. Ut digni efficiamur promissiónibus Christi.

## OREMUS

Grátiám tuam quaésumus, Dómine, méntibus nostris infunde, ut qui, Angelo nuntiante, Cristi Filii túi Incarnatiónem cognóvimus, per Passionem eius et Crucem, ad Resurrectionis gloriam perducamur. Per eúmdem Christum Dóminum nostrum. Amen.

Loyolako Argi Lapiko



# JOSE DEUNARI

## Zazpi igande jaŕaituetan

## Zazpi atsekabe - atsegiñen

## OTOITZAK

*Gurutze...*
*Jesukristo...*

1. Andre Mari guztiz garbiaren senar garbi Jose goragaŕia!

Samintasun gaŕatza zure biotzeko samintasuna emazte maitea utzi beaŕean arkituko ote ziñan egon ziñanean; baña aundia zure atsegiña zure emazte garbiaren sabelean sortu zana Espiritu San-

tuarena zala aingeruagandik jakitean.

Atsekabe atsegin oriengatik iguzu ibili gaitezela zuzen Jaungoikoaren naia egiten, zure antza bizitzan da eriotzan izan dezagun,

*Aita Gurea..., Agur Maria..., Gloria...*

2. Jaungoiko Seme gizon egiñaren Aitatzat aukeratua izan ziñan Jose Deuna! Jesus aurtxoari bere jaiotzan estalpe otz bat beste gelarik ezin emanak samintasunez bete zizun biotza.

Baña aingeruen abesti ta oyu alaiak eztitu zizuten gogoa samintasuna alaitasun biurtzeraño.

Atsekabe atsegin oriek dirala bide, iritxi iguzu lurekoak ezerezetsita beti goikoen bila ibiltzea.

*Aita gurea..., Agur Maria..., Gloria...*

3. Jaungoikoaren naiaren egile zintzo, Jose Deun maitagaŕia! Jayo ta zortzigaŕen egunez zure Jesus'ek biḹebaiketan ixuri zuan odolak biotza zauritu zizun; baña, Aingeruak esan bezela, aurtxo Jaungoikoari Jesus izena ematekoan pozez beterik gelditu ziñan. Atsekabe atsegin oen bitartez iguzu Jesus'ekin bizi, Jesusekin il, ta Jesus ikusi ta maite izanaz egon gaitezela beti zeruan.

*Aita gurea.. Agur Maria... Gloria...*

4. Simeon zar agurgaŕiaren itzak ezpata zoŕotzez zulatu zuten zure biotza Jesus eta Mariak eraman bearko zituten neke ikaragaŕiak jakitean.

Baña pozik aundienaz bete ziñan neke oriek Jaungoikoaren aintza, ta gizadiareu sendabidea ekaŕiko zutela entzutean. Atse-

kabe-atsegin oen bidez iritxi iguzu, aŕen, sendabidean sartuta zeruraño zuzen eldu gaitezela.

*Aita gurea..., Agur Maria..., Gloria...*

5. Jaungoiko seme gizon egiñaren Zaindari Jose Deun agurgaŕia! Gogoŕak eta latzak izan ziran zure nekeak Ijito'ra Jesus eta Maria'rekin iges eginda erbestean bizi beaŕa izan zenunean!

Baña Jesus beti zurekin idukitzeak arindu ta eztitu zizkizun neke oriek. Atsekabe-atsegin ayengatik iguzu ludian bizi geranok erbeste ontako nekeak Jesus'ekin eta Jesus'en maitasunagatik pozik eraman ditzagula.

*Aita gurea..., Agur Maria..., Gloria...*

6, Andre Mari txit garbiaren ezkontide eta Jesukristo gure Jau-

naren Aita orde Jose Deuna! Atzeŕitik Eŕiratzean Erodes gaiztoaren seme Arkelao juduen agintari zala jakiteak iḻundu ta naigabetu zizun biotza.

Baña oso pozik bizi izan ziñan Nazaret'eko baztar ixiḻean, Jesusekin lan egiten. Atsekabe-atsegin oyek gogoratuta egizu gu ere bizi gaitezela pozik, bakoitza bere arazoan Jesus'ekin lan da lan egiten.

*Aita gurea..., Agur Maria..., Gloria...*

7. Jaungoikoaren antz antzeko izan arte gure gogoak edertzen ikasteko ikasbide zoragaŕi Jose Deuna! Zure Jesus Jerusalem'en galdu zitzaizunean samintasunezko arantza zoŕotzak odoldu zizuten biotza.

Baña samintasunak alde egin, eta pozik alaienak bete zuan

zure biotza Jesus arkitu zenunean.

Atsekabe atsegin oyek Jaungoikoari eskeñi ta, eskatu egiozu guretzako, iñoiz gure arduragabekeriz Jesus galduko bagenu urtu ditezela miñaren miñez gure bio tzak; arkitu dezagula beŕiro gure Jesus, eta ez dezagula galdu bizitzan eta batez ere eriotzako ordu laŕian; Jesus'ekin bizi, Jesus'ekin il eta Jesus'ekin beti zoriontsu izan gaitezen.

*Aita gurea...*, *Agur Maria...*, *Gloria...*

### Nai dezuna eskatu

Antiph. Ipse Jesus erat incipiens quasi annorum triginta, ut putabatur filius Joseph.

V. Ora pro nobis Sancte Joseph.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

## OREMUS

Deus qui ineffabili providentia Beatum Joseph Sanctissimae Genitricis tuae Sponsum eligere dignatus es; praesta quaesumus; ut quem Protectorem veneramur in terris, intercesorem habere mereamur in caelis. Qui vivis et regnas in saecula saeculorum.

R. Amen.



## Loyola'k Xabier'i:

*«Zertarako litzaizuke, Xabier, ludi osoa irabazi izana, zere burua galduko bazenu».*

*(Mat. 16, 26'tik.)*




# Loyola'tar Iñaki Deunari Bederatzi-uŕena

*Guratze...*
*Jesukristo nere Jaun...*

## Egunoro asteko Otoitza

*Belaunak luŕean, eskatzen dizugu, ¡gure biotzeko Aita guziz agurgaŕio! iritxi dizazkiguzula Jaungoikoagandik bere naia argiro ezagutu ta zintzo betetzeko indaŕa ta laguntza.* Ta, batez ere, bederatziuŕen ontan iritxi nai degu-

na Jaungoikoaren aintzarako, zure goratasunerako ta gure onerako baldin bada.

Baña gure gaitzerako balitz iritxi nai deguna, zuzendu gure eskariak zuk beti zure nairik bizientzat iduki zendun Jaungoikoaren aintzarik aundienera. Amen.

## 1'go egunerako Otoitza

*Siniste* argia gure biotzetan piztutzeko zerutik etoŕi ta gizonen erakusle izan ziñan Jesus gure Jaun maitea! Agertu guri ere zeru bidean zuzen ibiltzeko jakin bear ditugun egiak, Aita Iñaki Deunari agertu zenizkion bezela; bere antzera sinistean indartsu izan gaitezen. Amen.

*Irurak bat diran Aita eta Seme ta Espiritu Santuari iru Aita gure.*

## Egunoro azken Otoitza

Gure Jaun eta Jaungoiko maitea. Gure Aita Iñaki Deunagandik ikasi ta berekin batera egiten dizugun eskeintz au biotz onez entzun ezazu:

*Tori Jauna, ta artu nere aukeramen osoa, nere oroimena, nere adimena ta nere naimen osoa; dedan eta daukadan guzia. Zeořek eman zenidan. Zeoři, Jauna, itzultzen dizut. Guzi au zurea da. Nai dezun lezela erabilzu; Zure maitasuna ta adiskidetasuna inzkidazu; ez det beste ezer nai eta.*

*Egin eskaera.*

Ant. *Similabo eum viro sapienti, qui oedificavit domum suam supra petram.*

V. *Amavit eum Dominus et ornávit eum!*

R. *Stolam gloriae induit eum.*

## OREMUS

Deus qui ad maiorem tui nominis gloriam propagandam, novo per beatum Ignatium subsidio militantem Ecclesiam roborasti: concede; ut eius auxilio et imitatione certantes in terris, coronari cum ipso mereamur in coelis. Per Christum Dominum nostrum. Amen.

## 2'gaŕen egunerako Otoitza

Betiko zoriona guretzat irabazteko ainbeste neke gogoŕetan ibiļi ziñan Jesus maitea! Iguzu guri ere Aita Iñaki Deunari eman zenion bezelako *itxaropena*, zeru bidea auldu gabe egin da gero, betiko atsedena irabazteko *este oso osoa* iñoiz galdu ez dezagun. Amen.

*Irutasun Deunari iru Aita gure.*

## 3'gaŕen egunerako Otoitza

*Jaungoikoaren maitasunezko* su gaŕetan lıdi osoa irazekitzen ibilli ziñan Jesus maitagaŕia! Aita Iñaki Deunaren biotzean sugar ori piztu zeıdun bezela, piztu ezazu gure go{oetan ere zure Biotzeko txinparŕaz, oraiñ eta gero ta beti Jaungokoa maite izaten bizi gaitezen. ʌmen.

*Irutısun Deunari iru Aita gure.*

## 4'gaŕen egunerako Otoitza

*Baa besteaganako maitetasuna* dala kristau guzion ezaugaŕia san zenigun Jesus laztana! Gur· Aita Iñaki Deunak ain ederki eakutsi ziguna ikasi ta bete dezgula, bere antza onbide ontan artrik, berekin eta Zurekin beti

alkar maite izaten bizi gaitezen. Amen.

*Irutasun Deunari iru Aita gure.*

## 5'gaŕen egunerako Otoitza

Gurutza zure sorbaldan artuta, neke gogoŕak eramanaz *zerua irabazten* erakutsi zenigun Jesus maite maitatia! Aita Iñaki Deunari erakutsi zenion bezela erakutsi guri ere bizitz ontako lan eta nekeak Zuri begiratuz pozik eramaten, berak bezela zeruan sari aundi ugaria irabazi dezagun. Amen.

*Irutasun Deunari iru Aitagure.*

## 6'gaŕen egunerako Otoitza

«Eskatu ta emango zaizute» «atea jo, ta zabaldako zaizute» esanaz, beaŕean gauden guzitan Jaunari *eskariak egiten* erakutsi zenigun Jesus goragoŕia! Eizu

guk ere, Aita Iñaki Deuna erakusle degula, ikasi dezagun estutasun guzietan Jaunagana gogoa jasotzen, nai eta bear deguna iritxi dezagun. Amen.

*Irutasun Deunari iru Aita gure.*

## 7'gaŕen egunerako Otoitza

Gizon egin ziñanetik eriotzarano *Aita Jaungoikoaren naia bete tzen* beti jardun zendun Jesus gure Irakasle maitea! Jaungoikoaren naia ezagutzeko ta betetzeko gure Aita Iñaki Deunak iduki zun gogo bizi bizia eman iguzu, iñoiz ere, zerurako bide zuzen au galdu ez dezagun. Amen.

*Irutasun Deunari iru Aita gure.*

## 8'gaŕen egunerako Otoitza

Gurutzeari josita guretzat odol guzia ixurtzen ari ziñala *Zure*

*Ama, Ama laztantzat* eman zeniguzun Jesus eŕukitsua! Ez dezagula, aŕen, amarik maitagaŕiena atsekabez bete. Ta oŕetarako gure Aita Iñaki Deun maiteak maite izan zun bezela guk ere maite izateko berotasuna iguzu. Amen.

*Irutasun Deunari iru Aita gure.*

## 9'gaŕen egunerako Otoitza

Betiko bizitzarako bidean auldurik galdu ez gaitezen, *gure janari* egiñik lur ontan gelditu ziñan Jesus gozo gozoa! Jaungoikozko janari onen bidez gizonen aulkeria indar biurtzeko Aita Iñaki Deunari eman zenion gogo bizia eman guri ere, emen erori gabe ibili ta, zeru goietako atsegiñetara igo gaitezen. Amen.

*Irutasun Deunari iru Aita gure.*



# XABIER DEUNARI

## Bederatziuŕena egiteko

## OTOITZAK

Xabier Deunari Bederatziuŕena egiteko egunik egokienak Epaila-ren 4'gaŕenetik 12'gaŕenerakoak dira. Egun oyetan egiten danari: «Grazi edo Eskeŕaren bederatziuŕena» deritzayo.

*Egin: Gurutze Santuaren...*
*Jesukristo nere Jaun...*

## OTOITZA

Done Guztiz Maitagaři ta Maitalaria! Zurekin auzpezturik agur egiten diot Jaungoiko aundiari. Pozturik eman zizkizun esker ain bereziengatik eta orain zeruan daukazun atsegin zoragařiagatik eskeřik aundienak egiten dizkiot Jaun berari; eta bizitz eta eriotz ona zure bitartez irixteko laguntasuna eskatzen diot; baña batez ere bederatziuřen onetan erditsi nai detana (egin emen eskaria). Bañan au Jaungoikoaren aintza eta nere animaren onerako ezpada, eman nere onik aundienerako izango dana.

*Esan: Iru Aita gure, Agur Mari ta amar Gloria Patri.*

* * *

¡Xabier doatsua, Indietako Apostolu anima zale naiz itzez ta

naiz egitez ain indar aundikoa! Zure laguntza eske datozkizunei erakutsi oi diezun eŕukiagatik, eta siñiste gabekoai amar urtez Jaunaren itza agertzeko indaŕa eman zizun gogo zaletasun sutsuagatik auzpezturik eskatzen dizugu: Jaunarekin bitarteko izan zaiteala siniste gabekoak argitu, sinistausleak eta banatuak Elizamaganatu, oker dabiltzenak onbideratu eta zuzenak zuzenagotu ditezen. Eskatu Jaunari garbitokiko animen alde; eta baita kristau arteko agintarien benetako pake ta alkartasunagatik ere. Indazu beŕiz neri lagun urkoa iñoiz okerbidera ez eramateko laguntasuna; onela, itzez eta erakutsiz, Jaunak ipiñi nauen bizibidean zure antzeko izan da, zure lagun izan nadin zeruan menderen mendetan. Alaxe.

## Santuak asmatu ta saŕi esan oi zuan Otoitza

Gauza guzien egile, betiko Jaungoikoa! Oroitu zaite Zuk zere antzera egiñak dituzula siniste gabe ta pekatarien animak. Begira sulezea betetzen ari dirala; eta ez aztu anima oyek zeruratzeaŕen ainbeste neke igaro ta bere odola ixuri zuala Zure Seme Jesukristo'k Ez utzi siniste gabeko ta pekatariai zure Semea ta gure Jauna aintzakotzak ez artzen; egizu aŕen anima on eta zure seme guziz Donearen emazte Eleizaren eskariak entzun da, azturik euren siniste-eza, jainko gezuŕezko ta gaiztakeriak; Jesukristo ezagutu ta biotzez maitatu izan dezatela bera baita gure bizitz ta berbizitza, gure beŕeroste eta askatasuna. Aintza Berari beti ta beti.

V. *Eskatu Xabier Donea gure alde.*

R. *Jesukristoren agintzak iritxi ditzagun.*

## OTOITZA

Eŕi ta eŕi agintariei Zure izen deuna erakusteko Indietako Apostolu Franzisko Deuna goi ondasunen ontzi autu dezun Jaungoikoa! egizu, Zure aintzaren zabaltzal̄e aŕigaŕia luŕean izan zana, zeruan gure bitarteko izan dedil̄a. Jesukristo gure Jaunaren bitartez. Alaxe.



*Gaztediaren Zaindari*

*Gonzaga Deuna!*

*Zaindu nazazu.*



# Luis Gonzaga Deunaren Bederatziuŕena

*Gurutze...*
*Jesukristo nere Jaun...*

## Garbitasuna irixteko Otoitza

Garbitasuna maite izanaz aingeruen edertasunez apaindu ziñan Gonzaga Deuna! Nik, zure maitatzal̄een artean azkenekoena naizen onek, zure esku uzten det nere gorputz animaren garbitasuna. Eskatu, bada, nere alde Jesus Bildots garbi garbiari ta bere Ama eŕugabe, edeŕenetan edeŕenari ez

dezadala gaurgero okeřik egin. Lagun idazu eřurik txikienaz ere nere gogoa loitu ez dezadan eta ziltzaldian edo erorbidean iñoiz ikusten banazu, aldendu nere biotzetik gogamen txařak eta naikeri lizunak; ekaři nere gogora betitasunaren eta Jesus gurutziltzatuaren oroipena; josi nere biotz bařu bařuan Jaungoikoaganako bildur ona; ta kixkal nazazu bere maitetasunezko su bizian, zure antzekoa lur gañean izan da, zurekin zoriontsu zeru goietan izan nadin. Alaxe.

## Egun bakoitzerako Otoitza

*Sei Aita gure, Agur Maria... Gloria...*

## Luis Deunaren bitartez eskatu nai dezuna

a) *Gure alde eskatu, Luis Deuna.*

e) *Jesukristoren eskeintzak irabazteko gai izan gaitezen.*

## OTOITZA

Aingeru Luis gazteagagan aŕitzeko bizi garbitasunarekin batera ideko neke egaŕia bildu zendun zeruko ondasunen banatzale Jaungoikoa! Bere otoitz irabaziengatik iguzu, garbitasunean bere antzik ez degunok, neke egaŕian beintzat bera bezelakoak izatea Jesukristo gure Jaunaren izenean. Alaxe.

## BEDERATZI EGUNETARAKO OTOITZAK

### 1'go egunerako

*Sinismen* bizi biziak egiten zizun argiz Jaungoikoa alde guzietan ikusiz ibili ziñan Gonzaga

Deuna! Sendotu gure *sinismena* zure antzera ibil̄i gaitezen. Amen.

*Sei Aita gure...*

## 2'en egunerako

Zeruko zorionaz jabetzeko *uste* oso osoa Jaunagan zenduala, zeru bidean beti bizkor ibil̄i ziñan Gonzaga Deuna! Iritxi guretzat ere betiko ondasunen *itxaropen* bizi bizia. Amen.

*Sei Aita gure...*

## 3'en egunerako

Jaunaganako *maitasunaren* su gaŕez beterik beti egon zan zure biotz oŕek iritxi beza, ¡gure Zaindari maitea! guretzat ere Jaungoikoaganako *maitasun* irazekia. Amen.

*Sei Aita gure...*

## 4'en egunerako

Luŕeko aberastasunak baño *ezerez eukitzea* naigo izan zendun Gonzaga maitea! Ez dezagula ezerez biurtzen diran aberastasunetara iñoiz gure biotza eraman. Amen.

*Sei Aita gure...*

## 5'en egunerako

*Garbi* izatea maiterik maiteen zenduala ta, zure gorputzari ain neke gogoŕak eman zenion aingeru maitea! Egizu guk ere gorputz ustelkoia goŕotatuz garbitasuna zure antzera maite izatea. Amen.

*Sei Aita gure...*

## 6'en egunerako

Jaunaren eta bere ordezko guzien *mendeko* zintzo zintzoa izan

ziñan Gonzaga Deuna! Eskatu gure alde, gu ere beti Jaunaren eta bere ordezkoen *mendean* zuzen ibiḷi gaitezen. Amen.

*Sei Aita gure...*

## 7'en egunerako

Guzion Ama guztiz garbiagandik *Jesus'en Lagundira juateko agindua* artu ta, zeru bide zuzena ikasi zendun Gonzaga Deuna! Egizu guk ere *Ama guztiz maitearen naia* egiñaz eta gogoa beteaz zerua irabaztea. Amen.

*Sei Aita gure...*

## 8'en egunerako

*Jaunartzean* ain ederki biotza apaintzen eta eskeŕak egiten oitu ziñan Aingeru Luis! Erakutsi iguzu noiz nai *Jauna artzeko* biotz garbi garbidunak izaten. Amen.

*Sei Aita gure...*

## 9'en egunerako

Aita Santu Pio XI'gaŕenak dionez *Jesus Biotzaren pozgil̄e* izan ziñan Aingeru Gonzaga maitea! Iritxi zugana gatozen guzioi Jesus Biotza iñoiz naigabetu gabe bizi izateko eskeŕa ta laguntasuna. Amen.

## SEI IGANDEAK

*Luis Gonzaga Deunaren* Sei Igandeetako *jarduerak ere egin litezke egunoroko ta egun bakoitzerako otoitzetatik bear diranak artuta.*



*Kostka'tar Estanis*
*gazte Deuna!*
*Zaindu nazazu.*




# Estanis Kostka Deunari Bederatziuŕena

*Gurutze...*
*Jesukristo nere Jaun...*

## Egunoroko asiera Otoitza

Zure Eŕi Poloni'ko aingeru zaitzale ta Jesus'en Lagundiko Jesuitagai biotz gartsudun Estanislao Kostka Deuna! Jaungoikoaren aintzarik aundienerako, ta Zu bear bezela goratzeko baldin bada egun oetan eskatzen deguna, iritxi igu-

zu Jaun Beragandik; ezperen, gure eskaria zuzen ezazu, ta eska zayozu Berari gure zorionerako ondoren dagokiguna.

## 1'go egunerako Otoitza

Gure Jaun eta Jaungoiko maitea! Zure ontasunak agindu die Aingeruai gizonen zaitzale izatea. Ta zure ontasunak egin zun Estanis Deuna bere Eŕi Poloni'ren aingeru zaitzale. Ayen irabaziak eskeintzen dizkizugu, Aingeru eder garbi onen garbitasunarekin, bere antza artu dezagun, ta biotz garbi garbiz Zu ikusi ta beti maita zaitzagun. Amen.

## Egunoroko azken Otoitza

Gure Zaindari maite, Estanis Deuna! Deuntasunezko edergaŕirik egokienez apaindu zizun Jaungoikoak biotza: Beragandik artu

zendun, bada, Ama guziz garbiaren bitartez, Jesus'en Lagundira juateko agindua; agindu au betetzeko gogo irazekia Berak eman zizun; Berak Aldarean daukagun Jesus'ganako esan al baño maitasun aundiagoa; Berak Ama garbi garbiarenganako zaletasunik biziena; Berak apaltasuna eta nekerik gogoŕenak pozez eraman naia eman zizkitzun. Jaungoikoagandik artutako apaindura oek zugan ikusita, lagun zaiguzu, aŕen, edergaŕi oyek guretzat ere Jaun Berangandik irixten, iritxitakoan iñoiz galdu gabe erabiltzen, Zure antza emengo bizitzan artuta, gerokoan ere zu bezela, betiko atsegiñetan bizi gaitezen. Amen.

*(Emen bakoitzak Jaunari bere biotza jaso, eta Estanis Deunaren bitartez sinismen eta itxaropenik aundienaz eskatu beza nai duana).*

*Iru Aita gure.*

*Aña:* Jaunaren Aingeruak Estanis'i Jaungoikozko janaria ekaŕi, ta esan zion: Ea, jan ezazu, oraindik bide luzea daukazu ta.

V/ Janariak Jaungoikozko indaŕa eman zion.

R/ Eta bere ibilbidea txit ondo egin zun.

## OTOITZA

Zure Estanis maiteari bere bidean aingeruen eskuz Eukaristi deuna eman zenion Jaun aundia! Aren biotzeko garbitasuna iguzu, Zure maitetasunezko Sakramentua artzeko gai egin gaitezen, eta onen bidez eta indaŕez zeruko bizitza bidean beti ibili gaitezen. Amen.

## 2'en egunerako Otoitza

Zure aintzarako diran egitekorik aundienak Goi-aingeruai agin-

tzen diezun gure Jaun eta Jaungoiko maitea! Oyen irabaziak eskeintzen dizkiguzu eta zure semetxo kutun Estanis Jesuitagaiarenak ere bai, gure eginkizun guzietan Zure naiaren bil̄a ibil̄i gaitezen; eta zuk gugandik nai dezuna jakindakoan beste ezer egin ez dezagun. Iguzu, Jauna, gure zaitzal̄e gaztetxoaren bitartez eskatzen dizuguna, gure onerako bal̄din bada. Amen.

## 3'en egunerako Otoitza

Eŕietako Zaitzal̄e ta arduradun Aingeru garaienak egin dituzun gure Jaun eta Jaungoiko maitea! Oyen irabaziak eta Poloni Eŕiaren zaitzal̄e ta arduradun egin zendun Estanis Deun gaztetxoarenak eskeintzen dizkizugu; gure zerurako lanetan arduragabeak izan gabe, aŕetaz eta zuzen ibil̄i gaitezen.

Onela, zure legeak beteta zuk aginduko dezu gugan, eta zuk eramango gaituzu gure Zaindari maite Estanis Deunaren ondora. Iguzu Jauna, eskatzen dizuguna, gure onerako izango bada. Amen.

## 4'en egunerako Otoitza

Etsai galduak azpiratzeko indařa Aingeru Agintedunai eman zenien gure Jaun eta Jaungoiko laztana! Oen irabaziak, Jesus'en izenarekin etsai guziak ondatzen zituan Estanis Deunarenakin batera eskeintzen dizkizugu; guk ere, oyen bitartez, etsaiaren ekiñaldi guziak ezerezteko indařa Zugandik iritxi dezagun. Eman, Jauna, eskatzen deguna. Amen.

## 5'en egunerako Otoitza

Mirari ařigařiak egiteko eskua daukaten Aingeru indartsuen Egi-

le ta Jaun eta Jaungoiko maitea! Oenak eta mirarigile Estanis Deun Jesuitagaiaren irabaziak eskeintzen dizkizugu, gure griña txar eta okeřerako makurkeria ezi ditzagun eta beti beti zure aginduak zintzo bete ditzagun. Iguzu, ařen lan ontarako bear degun laguntasuna eta indařa. Amen.

## 6'en egunerako Otoitza

Beste Aingeruei Zure izenez agintzeko eskubidea Aingeru Agintariei eman zenien Jaun eta Jaungoiko maitea! Aginte ori zure legea bete erazten erabiltzen dute, zuk ořetarako egin dituzulako. Begira, bada, oyen eta Estanis Deunaren irabaziak, batez ere gaztetxo onek Zure agindua betetzeko Jesus'en Lagundira juan zanean egin zituanak. Eta eman, Jauna, guk ere zure aginduak zea-

ro betetzeko bear degun gogo zuzen eta bizia. Amen.

## 7'en egunerako Otoitza

Zure aunditasun azkengabearen egonleku bezela izan ditezen Zuk egiñak dira *Trono* deritzan Aingeruak. Egonleku oyetan bezela egon oi ziñan atsegin guziz zure edertasun berdin gabea erakusten gure Estanis Deun Jesuitagaiaren biotzean. Ayen eta onen irabaziak begiratu ta, iguzu, Jauna, gure biotzetan ere zuretzat egonleku guztiz atsegingaria guk egitea, gugana pozik etoŕi eta gugan beti bizi zaitezen. Amen.

## 8'en egunerako Otoitza

Zu zaitute beren Egile ta Irakasle Aingeru - Jakintsuen izena dutenak. Eta Zerori izan ziñan gure Zaindari Deun Estanis Kostkaren Irakasle. Zugana begiak eta

burua biurtuaz, eta zugandik artutako argiz ikasi zitun, bada, zure maitasunean ain bero berotu zuten egiak. Piztu bezate egi oyek gure biotzetan ere Zuganako maitasun irazekia, gure zaindariaren antzekoak izan gaitezen. Amen.

## 9'en egunerako Otoitza

Zure maitasunezko gar bizietan beti eŕetzen dauzkazu Zuk egindako Aingeru gartsuak, gure Jaun eta Jaungoiko maitea! Gure Zaindari maite Estanis Deun Jesuitagairen biotza ere zure maitasunezko gaŕetan bein baño geyagotan iduki zendun, Jauna. Bialdu itzazu bada gure biotzera ere zure maitasunezko txinpartak. Zu maite izaten orain ibili gaitezen. Zu maite izaten jardun eta Zu maite izaten iraun dezagun beti beti. Amen.

burua biurtuaz, eta zugandik artutako argiz ikasi zitun, bada zure maitasunean ain bero beratu zuten egiak. Piztu bezate egi oyek gure biotzetan ere Zuganako maitasun irazekia, gure zaindariaren antzekoak izan gaitezen. Amen.

## 9'en egunerako Otoitza

Zure maitasunezko gar bizietan beti erretzen dauzkazu Zuk egindako Aingeru gartsuak, gure Jaun eta Jaungoiko maiteal Gure Zaindari maite Estanis Deun Jesuitagaren biotza ere zure maitasunezko garretan bein baño geyagotan iduki zendun, Jauna. Bialdu itzazu bada gure biotzera ere zure maitasunezko txinpartak. Zu maite izaten orain ibili gaitezen, Zu maite izaten jardun eta Zu maite izaten iraun dezagun beti beti. Amen.

# BILABIDEA

(IRU ZATITAN)

## LUISTAR, ALEGIA, ANDRE MARI-REN LAGUNTALDEKO BAZKIDE IZATEAK ESAN NAI DUANA TA ESKATZEN DUANA

## a


Andre Mari'ren Laguntaldeak:

Noiz sortuak 11

Zer eta zertarako diran 29

Zeintzuentzako 30-4

Araudia 25

Araudi laburtua 13

# b


Barkapenak:
(Irabazten diran) 21
Batzařak:
Noiz egin bear 31, 32
Batzordea:
Batzordearen erabakiak 16, 37
Noiz beřitu 16,38
Batzorde lagunak 51
Iritzia agertu 52
Zuzendariari lagundu 56
Bigařen malakoak 56
Bide baztařetako ibilerak 15
Birauak 15
Bizibidea aukeratzeko 73
Jakin beařak 74
Egin beařak 76
Burua-Batzar, *ikusi* Lendakaria.


# d


Dantza lotuak 15
Dirua eman 50
Diruzaia 55

## e

Elizaren alde 14, 15, 29, 45
Elkarteak:
Laguntaldeen 59
Emaztegaia nolakoa, t. a. 77
Erabakiak (Zuzendariaren) 16, 49
» (Batzordearen) 16, 49
Erbesteratzean 50, 51
Eŕuki egintzak 49
Espetxekoei ageŕaldiak 34
Ezaugaŕia bakoitzari 23
Ezkongaiarentzat zeruráko bideak 73
Ezkongaia aukeratu 73
Bizi lagun gaia 77

## g

Gaixoak ikustera 34
Gau beranduko ibilerak 15
Gogo-Jardunak 13, 33
Gogo-Zuzendaria bear 46, 47, 79

## i

Idatzi Zuzendariari 51
Idazkaria 53

Idaztegizaia 57
Ikas-batzak 15, 34
» Jakitun-Batzak 34
Ildakoen alde otoiak 30
Ileoroko eta maizagoko Jaunar-
tzea 14, 32
Irabazten dan barkapena 21
Irakasleak 54

j

Jaunartzea 14, 33

k

Kristau-Ikasbidea erakutsi 34

l

Lagun-gaiak, Luistar-gaiak 54
Laguntaldean artu 39
» aŕera nagusia 40
Aŕera nagusian egin oi diranak 19, 24
Aŕera ixila 43, [28]
Laguntaldeen alkaŕen arteko ar-
tu emanak 58
Elkarteak 59
Laguntaldeen Zuzenpideak 35

Laguntaldekoen egin beaŕak, 14, 45 [32-47]
» Siniste ta oiturak 45
Egunoro egin beaŕak 45, 46
Gaitzbideak 46
Gogo Zuzendaria 47
Aitortza orokaŕa 47
Jaunartzea 14, 47
Andra Mariaganako leya 48
Besteen onerako egintzak 49
Esanekoak 49
Anai-kristau maitasuna alkaŕi 49
Sailak 34
Laguntalderako dirua eman 50
Laguntaldetik ayenatu bear diranak 44 [31]
Lagun (congreganteen) eginkizunak 14, 31, [4-12]
Lendakaria 53
Liburu egokiak (Andre Mari'ren Laguntalde gaietan) 79
Liburuak (Laguntaldeko) 54
Loiak, (irakurgai, ikusgai) 15
Luistaŕak eriotzako orduan 21
Luistaŕak irabazi ditzaken barkapenak 21
Luistaŕaren eginbeaŕak: 14
Egunoro 61

Asteoro 63
Ileoro 64
Urteoro 65
Beti 66
Luistaŕen asmo erabakiak 69
Luistar sailak 34

## m

Maria'ri Andre..... Laguntaldean sartzeko egin oi zaion otoitza 19, 41
Medalak bedeinkatzeko 22
» ipintzekoan 23

## o

Oarlariak 54
Oitura garbiak 15, 46

## p

(Periodikoak) egunkariak 15

## s

Sailak, *ikusi* Luistar
Saŕera, Laguntaldean 17, 39
Saŕeran egin oi dan otoitza 19
» Zuzendariak esan oi duana 20

## U


Urteoroko Gogo Jardunak


## Z


Zaindari jaiak 22, 33
Zaindari Nagusia André Mari 13, 48
Zenbakariak 56
Zineak 15
Zuzendaria 16, 51
Zuzendariaren erabakiak 16, 51
Zuzendariak esan oi duana iñor
Laguntaldean artzean 20, 42
Zuzendariaren lagunak 37

# II

## JAKINGAIAK

### a

Aginduak bete beaŕa 120
Aginduak (Jaungoikoaren Legeko) 131
I 131
II 135
III 137
IV 138
V 144
VI 146
VII 146
VIII 147
IX
X 149

| | |
|---|---|
| Elizarenak | 151 |
| I | 151 |
| II | 153 |
| III | 153 |
| IV | 154 |
| V | 158 |
| Agintari (nolakoak aukeratu bear) | 143 |
| «Agur Maria»'k | 94 |
| Agur, Eregiña | 91 |
| Agur Maria | 91 |
| Aingeruei Agur | 133 |
| Aingeru ta doneai | 92 |
| Aintza | 93 |
| Aita gurea | 86 |
| Aitaren | 84 |
| Aita Santua | 406 |
| Aitorketa (aozko) | 126 |
| Aitortza | 123 |
| Amarenak eta asikiñak | 158 |
| Andre Mariari agur | 133 |
| Andre Mariari Otoitzak | 90 |
| Aozko aitorketa | 126 |
| Apaizgintza | 401 |
| Aragi-uzteko egunak | 156 |
| Asareak nagusi-langileen | 142 |
| Asmoa (damua ta) | 124 |

Auteskundeetako eginkizunak 143
Azterketa 124

## b

Baraua 154
Barau egunak 154
Barkapena (pekatuen) 410
Barkapenak 130
Bataioa 399
Nola eman 400
Biblia 413
Bulda Santua 155

## c

(Confirmazioa) Sendotza 400

## d

Damua ta asmoa 124
Damua (Maite) 125
Dirua (eliz) 158
«Divorcio civil» deritzana 403

## e

Eginkizunak Jaungoikoarekiko 117
» lagun urkoarekiko 118
Eguneroko (periódico) gaiztoak 133

Eliza 405
Elizaren Burua 406
Eliza nork jaŕia 407
Eliz dirua 158
Eŕomako Aita Santua 406
» » » utsezina 406
Eŕuki egintzak 159
Eskariak (Aita gurearenak) 88
Espiritu Santua 403
Espiritu Santua'ren Emaitzak 404
Espiritu Santuaren Sorkariak 404
Etsai (elizaren) 144
Etsaiak (gure) 119
Eukaristia 215 ta 243
Ezkontza 402

**g**

Gaizpidea 145
Gizona 115
Gizona zerurako egiña 461
Gloria 93
Goi-maitasuna 398
Gorpuzkiñai agur 134
Gotzaiak 407
Grazia 397
  Donetzalea 397
  Laguntzalea 397

Gurasoen eginkizunak 139
Gurutze 83
Gurutzean il̄a Jesukristo 322
Gurutze donea 321

## i

Idazti Donea 413
Irudiei agur 134
Irutasuna 203
Itxaromena 398

## j

Jatořizko obena 462
» oben gabe sortua 462
Jaunartzea 219
Jaungoikoa 201
Jaungoikoarekiko eginkizunak 117
Jaungoikoaren Legeko Aginduak 131
*Ikusi* Aginduak
Jesukristo 205
Sořera ta jayotza 207
Bizitza ta erakutsiak 208
Nekaldi, Eriotz, Obiratzea 209
Inpernuetara jeixtea ta Piztutzea, 211
Zeruetara igotzea ta epaitzerako etortzea 212
Eliza jaři 407

## k

Katolikoen eginkizunak 142
Kredoa 93
Kristaua 83
Kristau naizenez sinistu beaŕak 412

## l

Lagun urkoarekiko eginkizunak 118
Langileen eginkizunak 411
Liburu Doneak 413
Liburu gaiztoak 133
Liturgia 8

## m

Maitasuna (Goi) 398
Maite Damua 125
«Matrimonio civil» deritzana 402
Mendekoen eginkizunak 140
Meza deritzan opari donea 247
Noiz eta nola entzun 248
Igandez gañera noiz entzun bear dan, 249
Meza (entzun beaŕeko egunak) 152
Mezerdiko itzak esan baño len, eta esanezkero 243

## n

Nagusien eginkizunak 141
Nagusi-langileen asaŕeak 142

## o

Obena 120
Oben astuna 121
Oben ariña 121
Obispoak, *ikusi* Gotzaiak
Ogia ta ardoa Jesukristoren gorputz eta odol biurturik 245
Oitura-onoimenak 399
Onoimenak (Oitura) 399
Oparia Donea, *ikusi* Meza
Ordaña 129
Oŕi gaiztoak 133
Otoitz egitea 86
Otoitzetan onena 87

## p

Pekatuen barkapena 410

## s

Salbea 91

Sakramentuak 395
Zeruratzeko beaŕenak 396
Bein baizik artu ezin ditezkenak 396
Santuen alkartasuna 409
Santuei agur 133
Seme alaben eginkizunak 138
Senar-emazteen eginkizunak 140
Sendotza 400
Sinismena 398, 410
Sinisten det 94
Sinisten det (Zergatik?) 411
Sinistu beaŕak 412, 413

**Z**

Zeruratzeko Sakramenturik beaŕenak 396

# III

## EGITEKOAK

### a

Abestia Gurutz bidean 326
Aginduz agindu azterketa 171
I 171
II 173
III 173
IV 173
V 174
VI 176
VII 177, 179
VIII 180
IX 180
X 181
Elizaren aginduz 188
Agurtza Donea 475
Aitortza ondorean 195
Aitortza aurean 167

Aitortzaren gaya 164
Aitortz aurerako Otoitza 167
Akino'tar Tomas Deunaren Otoitza 225
Andre Maria'ri Otoitza 231
Anima Christi 236
Ao Aitorketa 191
Apostoladua, *ikusi*
Otoitz Bidalguntza
Arantzazuko Amari Otoitza 472
Atsegin-Atsekabeak 483
Azterketa 169

# b

Barkapena Jaungoikoagandik 163
Bederatziurena:
Jesus'en Biotzari 423
Jesukristo Eregeari 443
Sortzez Garbiari 465
Iñaki Deunari 491
Xabier Deunari 499
Gonzaga Deunari 505
Kostka Deunari 513
Begoña'ko Amari Otoitza 473
Beldur damua 185
Bonabentura Denearen Otoitza 229

## d

Damua 185
Maite 185
Beldur 185

## e

Eŕosarioa, *ikusi* Agurtza
Eskeŕaren Bederatziuŕena
Xabier Deunari 499
Estanis Deunari Bederatziuŕena 513

## g

Galdeerak Aitortzarako 170
Gaxo zaudenean 369
Gurutz bidea 324

## i

Igande sei-Gonzaga Deunari 511
» zazpi-Jose Deunari 483
Iltzen (ondo) laguntzeko 369
Ilen lenengo ostiralak 419
Itxaropen egintza 98
Irudia bedeinkatzeko Otoitzak 436

## j

Jaunartze auŕeko Otoitzak 221
» ondorengoak 229

Jaunartzea, gogozko 240
Jesus Gurutzatuaren auŕean Otoitza, 235
Jesukristo Eŕegeari Bederatziuŕena 443
Jesukristoren bost zauriai 357
Jesus'en Biotzaganako maitetasuna 415
Amabi agindu 417
Bederatziuŕena 423
Jaureskundea 435
Jesus'en Biotzari etxea eskeintzeko Otoitza 438
Jesus'en Biotzari Gizadia eskeintzeko Otoitza (Kristo Eŕege egunez) 451
Jesus'en Biotzaren Litaniak 453
Jesus'en Biotz egunez egin beaŕeko Otoitza 432
Jose Deunari zazpi Igande 483

## k

Kalbarioak, *ikusi* Gurutz bidea
Kardaberaz A.'ren alde Otoitza 422
Kostka'tar Deunari Bederatziuŕena 513

## l

Lētaniak, (Andre Mari'renak) 477
Letaniak (Jesus'en Biotzárenak) 453

Loyola'tar Iñaki Deunari Bederatziuŕena 491
Luis Gonzaga Deunaren Bederatziuŕena 405

## m

Maitasun egintza' 98
Maite damua 326
Otoitz labuŕa 326
Meza donea 251
» ixilaren ondoren 303
» laguntzeko era 307
» kantatzeko era 807

## o

Ordaña 193
Ostiralak ilen lenengo 419
Otoitzak:
Goizeko 97
Jatorduko 101
Egun bitarterako 103
Aŕatseko 1C5
Ildakoen alde 109
Jesukristo Eŕegeari 432
Jesus'en Biotzari 98, 432, 438, 451
Zeruko Amari 99

Aingeru Zaitzal̃eari 100
Aitortza auŕerako 167
Aitortza ondoren 195, 196
Otoitzak Jaunartze auŕetik 221
» Jaunartu ondoren 229
Otoitz-bidalguntza 420

S

Sei Igande Gonzaga Deunari 511
Siniste egintza 98

X

Xabier Deunari Bederatziuŕena 499

Z

Zazpi Igande Jose Deunari 483
Zauriai Jesukristoren bost 357



**PRÁCTICA 1.ª**: Hacer todos los días este

OFRECIMIENTO AL CORAZÓN DE JESÚS

¡Divino Corazón de Jesús! * Por medio del Corazón Inmaculado * de María Santísima, * te ofrezco todas mis oraciones, * obras y padecimientos de este día * en reparación de nuestros pecados, * y por todas las intenciones * por las cuales te ofreces continuamente * en el Santísimo Sacrificio del altar. * Te ofrezco todo esto en especial * por las intenciones del Apostolado de la Oración * y por las señaladas por el Papa para este mes: * **Que por el culto al Corazón de Jesús reinen entre los hombres la paz y la caridad cristianas, * y por la eterna salvación de los que viven en aquellas naciones de Asia donde la Iglesia no puede cumplir plenamente su oficio apostólico.**

**PRÁCTICA 2.ª**: Un PADRENUESTRO y diez AVEMARÍAS, contemplando el *Tercer Misterio* gozoso.

**PRÁCTICA 3.ª**: La COMUNIÓN REPARADORA ofrecida al Corazón de Jesús.

Esta Comunión será el día. . . . a las. . . . . .

Ejercicio de la tarde: día. . . . a las. . . . . .

Comunión semanal el. . . . . . . . . . . . . . . .

*Coro*. . . . *Celador*. . . . . . . . . . . . . . . . .

*Sr. D.* . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . . .

. . . . . . . . . . . . . . . . . *calle*. . . . . . . . . . .



# ✠ APOSTOLADO DE LA ORACIÓN

Asociación de almas que, por medio de la oración y *unidas al Corazón de Jesús*, aspiran a GLORIFICAR A DIOS Y A SALVAR A LOS HOMBRES.

JUNIO DE 1959

## PATRONO DE MES

Junio, 18: San Efrén, dr.—Examina las aficiones de tu corazón y arranca de cuajo las contrarias al amor divino.

*Máxima.*—Para estar siempre alegres y dispuestos a lo que os mandaren, sed humildes.

*San Ignacio de Loyola.*